


# EUSKARA MITO BIZIA



Félix Zubiaga

*“Filologia eta mitografia gonbaratuak  
geure historia ulertarazten digute”  
(M. Müller)*

*“Hiztegi honetako hitzak ondo begiratu  
eta beste hizkuntzetako hitzekin  
gonbaratzen dituenari,  
linguistikak bitxi izkutu ederrak  
erakutsiko dizkio” (R. M<sup>a</sup> Azkue)*

**EUSKARA**  
**MITO BIZIA**

**FELIX ZUBIAGA**

Argitaletxea: EUSKAL UNIBERTSITATEA  
1974

*Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiko  
Kultura Sailaren diru laguntza izan du*

# EUSKARA MITO BIZIA

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta  
Ekoizpena: Erroteta - [www.erroteta.com](http://www.erroteta.com)

ISBN: 84-933155-4-0  
Lege Gordailua: SE-802-2004

Inprimaketa: Publidisa

Autorearekikoa (para dirigirse al autor)  
Teléfono: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)  
edo/o [felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net](mailto:felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net)

FELIX ZUBIAGA

AURKIBIDEA	or.
SARRERA.....	6
1. Antxina baten hasi zan.....	9
2. Zerua eta lurra aspertzen zirenekoa.....	13
3. Miel Otxinen Osin Beltza.....	18
4. Sanpantzar antzarretan.....	22
5. Laminen alamenan.....	24
6. Ainanino ala deabrusko?.....	29
7. Ibarrateko Baradisua.....	32
8. Gizakiak jakitun zena jakin zuenekoak.....	36
9. Neska izan nahi zuen mutila.....	40
10. Jainko izan nahi zuen gizakia.....	44
11. Galarren galgarria.....	49
12. Mari Yonagorriren koba.....	52
13. Amaren gona zabala.....	57
14- Markitosen marka.....	62
15. Zikurateko eskailerak.....	64
16. Basajaunaren orroa.....	69
17. Erensuge gosetia.....	73
18. Piramide bakartia.....	77
19. Fenix txoriaren pioa.....	81
20. Aitoren seme-alabak.....	86
21. Olentzaroren orena.....	91
22. Balbea eta Azaga.....	95
23. Tregoarriko sekretua.....	100
24. Harrigizon harritua.....	105
25. Ereku eta erregu.....	109
26. Mairu-baratzeko koronarria.....	114

27. Asaben Zapatua.....	118
28. Laratzen Larunbata.....	122
29. Sanso eta Sansonarria.....	127
30. Malatu Zuhaitza objetore.....	132
31. Troiako torrea.....	136
32. "Tartalo, hemen nago!".....	139
33. Gizaki izan nahi zuen Jainkoa.....	143
Ondoretan .....	149
Hiztegia.....	151

**SARRERA**

Hizkuntzaren garapena analogia da. Analogiaren iturriak idoroez gero, hizkuntzaren sorrera bertan dago. Hizkuntzalarientzat euskararen jatorria aztertzea ezinezko ahalegina izan da gaurdaino, aurreritzi okerretatik abiatu direlako. “Euskarak nondik ditu bere iturriak?” galdetu izan da gizaldietan, eta indoeuropeisten erdizkako asterkeraz geroztik, klasifikatu ezineko zerrendan ipini zuten.

Gure etnografoek ahalegin bikainak egin dituzte aspaldidanik, baina herriaren errito, otoi zahar eta oroitzapenetan gelditu da euren azterpen lana, ostaz iritxi direla beste herrien ohiturekin gonbaratzera edo euskarari eratan galdetzera. Hizkuntzalariek mitoak aipatzen ere bildur dira, mitoa arrazoiaren eta, beraz, ustezko argiaren kontra dagoelakotan. Eta hona, arrazoiaren mitoak, disziplinaren mitoak, metodologiaren mitoak, konstituzio mitifikatuak demokraziari baino, kalte gehiago egin diote euskararen azterpenari.

Euskararen jatorriaz erromantikoen garaian egin ziren ahaleginak hutsal joak izan zirenez geroztik, hizkuntzalariek aurrera pausorik ematen bildur-edo izan dira, haiekiko kritika garratzak azterlari berrien oldarra ere ez tikatu egiten duela. Mendiko iturrien bilan bide asko dago, egotez, baina batzuk amildegiren batek ebaitzen ditu, goragoko pausoa eragotziz. Amildegion izuak kikildu ditu nonbait gure filologoek eta hizkuntzalariek. Besteek eman ditzatela lehen pausoa, “besteek asma dezatela”, gu geure auzian alderdikoi-edo baiginan. Argia Alemaniatic-edo baletor, azterlariak Europako Hizkuntza Eskoletatik aurreratuko balira, orduan bai, “zuzenbide egin digute” ohiukatuko genduke, eta geu gara geure buruari, edo geure euskarari, zuzenbidea egin behar diogunak.

Aspalditxo da atzerriko hizkuntzalari ospetsuek ohar egin zigutela: euskararen lehengusuak Antxinako Sortalde Hurbileko hizkuntza zaharrak direla eta izen eta guzti seinalatu zizkiguten. Nori dagokio orain hizkuntza zahar ohiekin eta euren literatura zaharrarekin euskararen ADN bateratsu ete datorren ebaztea? Exegetei eta Erljioen Historia aztertu dutenei? Sikologia sakonaz edo teologiaren erroez arduratu direnei? Hizkuntzaren oinarritzko antropologia astertzen dutenei? Norbaitek ornitu beharko du hizkuntza-

larien porrota. Mitoak aztertuz, ots, mitokritikaz besteek argitasun asko lortu badute, euskal hizkuntzalariek ez liokete muzinik egin behar besteek onetsi metodologiari.

Euskararen jatorria aipatzen denean, bestalde, nonbaitetik etorria delakoa aitortzen dugu, gure ortuari eta frutaki ezituak ere nonbaitetik harakoak direlako ezagutzen dugunez. Gure urtemugatako erritoak, Inotekoak adibidez, aztertuez gero, beste herri askok ere ospatzen edo ospatu izan dituztela konturatzen gara. Guk geure erara gorde ahal izan ditugu asaben ohikunok, euskararen laguntza beti ere bidean erritoko formen gordailu eta oroigarri aparta izan dugula, errittoa eta hizkuntza elkarrenak bai-dira.

Mittoa eta hizkuntza batera jaino ziran eta batabestearen lekuko dira. Sumerrek eta Egiptok idatziz eman zituzten euren mitoak eta jakinduriak. Geure sukaldetik urten eta geure kultura hurbilen ditugun beste kultura zahar haiekin gonbaratzean ikusiko dugu, ea gure euskararen ereduak euren jainkoekin zerikusirik duten, ea *nomen/numen* “izena/jainkoa” den, edo *izen/izan* hizkuneak hitz hutsak diren gure asaben jakindurian.

Gurean ahoz aho entzuniko mitoak ez dira horren ugariak, baina mitoen amakide den euskarak berak horretaz zerbait baino gehiago daki, “Aitoren seme” bezalako esakera askotan euskara mito bizi agertzen zaigulako. Mitoaren klabea berari galdetzea daukagu. Ala, mitoen bidez egin azterpena zientifikoa ez dela-ta, euskara bazterreko gela ilunera kondenatu behar ete dugu beste ehun urtetan? Ikustea baino ez dago giza jakintzako azterlariak, hizkuntzalariek izan ezik, mitokritikaren hermeneutikaz baliatzen direla. Mitoak, gure asaben kondaira sakratuak eta euren jakinduriaren zuzia badi-ra, ezin genitzake amatau edo ekidin euskal jatorriaren azterpenetan.

Orain, bada, “Aitoren seme” esakera mitoetatik harako analogia eder bat da beste askoren artean eta analogiok frogatzeko 33 lezio idekiren egitura eman diogu saio honi, irakurle gazteak ere une egokienean askatasun osoz galderak eginik, eskolako arieketan parte hartu ahal dezan, itaunak ituna egin dezakelakoan. Orobat, azkenean doan Hiztegiak testuinguruko edukina argitzen lagungarri izango duela uste izan dugu.

### 1. Antxina baten hasi zan

Gizakia, aberea bezala, ez bai-da ogiaz soilik asetzen, lanaz aspertu eta janaz asetu zeneko, ipuinak kontatzen hasi zan. Eta ipuinok kontatuala, gogoaz asetzen zuela konturatu zan eta ipuinok zirela gogozko esnea, eta esne hau edoskiala, jakindurian adindu eta mintzaeran ere trebatzen zioala.

Hasiera baten gizakiak milaka urtetako eskarmenduz ikasi zuena umeei erakusten die eta eskolaumeak gero eta arinago trebatzen dira lanerako edo urteen epe nahiko laburrean adintzen jakintzan. Baina gaur ere haurra, jatorrizko gizakia bezala, hutsetik hasten da ikasten eta gurasoen laguntza gabe zutunik egoten edo “ama” esaten ere oztaz lortuko luke. Baina hotsak entzun, eskuketa ikusi eta izenak bereizten dituela, umeak ere pixkanaka mintzoa askatzen du eta etxeko seina etxekoen seneko dela ematen. *Seina/sena* hizkunean azpimarratu zuten eskolabiderako, bada “umeen zentzuna, etxean entzuna” kudeatu zan esakunetan.

—Nik beste honela entzun duk: “umeak entzuna sukaldean, esaten du atarian”.

—Umeak hizkuntzaren trebezia ikasten du lehenago, jakinduriaren aholkua baino. Mihina askatzen doa, baina ez du lokune nahiko senean. Etxeko sena dakar, baina ez daki etxeko sekretua gordetzen, ez da zetzundun, adinera arte. Ez daki oraindino egia eta gezurra bereizten. Eskola bereziak hartu behar ditu amaren alztotik saltatzen dueneko ere. Aiton-amonek kontatzen dizkioten ipuinak, haietxek bizkorrazten diote irudimena.

—Tio Potherrek esan nahiko duzu, ja, ja.

—Bai, Potherrenak ere nolabait etxean entzunak dituk, baina etxe senekoak al dituk? Eta aitonarenak ezean, zenbateraino zentzatzuko ote dute gure umea osaba Potherrenak? Hor zegok, ba, koska: “umeen zentzuna, etxean entzuna” izango duk, hala ere. Umeen zentzuna zaintzeko, etxekoena begiratu behar, umeen euskera sendotzeko etxekoena begiratzen dugun bezala, umea ere ez delako eñeaz bakarrik alikatzen.

—Umeei zergatik esaten zaie *eñe*, adinduontzak *esne* dena?

—Oinharritzko galdera dun horixe, neska. Umeei mokau txikia, alegia, bai janarietan eta bai mintzoan. Nahiko da *eñe* monosilaboduna haur baten adikune eta ahorako, geroago ikasiko du *esne* esaten. Jara gehiago eman behar zaie hiztegiari “haur hizkera” bezala aipatzen diren izenei, umeen sorrerak bezala, aldi bateko amen eskola, behin-behinekoa bai-dira. Monosilabook dira, hain zuzen, analogiak gohieneko iturburutik jasoriko mitoaren berri dakitenak.

—Ez dot ezer ulertzen. Zer da mitoa, lehengo eta behin?

—Mitoak antxinako ipuinak dira eta ipuinok baino harago ez da ezer gelditzen herrien oroitzapenetan. Mitoak izan ziran herrien eta kulturen sortzaile, bizigarri, sustatzaile eta hizkuntzen inude eta osagarri, mitoa da asaben haurtzaroko kulturaren *eñe*. Beraz mitoak ere baso esnea bezain betegarri eta bizkortzaile izan dira herri kulturarentzat. Norbere mitoak aztutzea, oroitzapena eta jatorriaren arrastoa galtzea da.

—Eta zergatik ez dugu ezagutzen euskararen jatorria?

—Mitoaren jakinduriara hurbildu ez diren azterlarien erruz, hain zuzen. Mitoaren inguruan, han aurkitzen bai-dira euskararen aita eta ama eta aidekoak, mitoeekin batera jaio bai-zan euskara ere. Haurrak ipuinak entzunez, hitzak ezagutzen, hizkuneak osatzen eta esakunak ulertzen eta hitz egiten ikasten du eta horrela antxinako asabek, hako mitoak kontatuala, osatu zuten euskara, hagarrik da euskara mito bizia, mitoeekin batera sortu eta hazi zelako antxina haretan eta euskaldun petoa ez da asetzen ipuin hutsaz, berak euskara mito bizia ulertu nahi luke, euskal gogoaz ere asetu, Euskal Herriaren jatorria ezagutzearren.

—Nik ba dakit euskara, eta gurasoek lanbidea bilatzeko-eta euskara jakitea ona dela dinoe.

—Jakina! Baina, bizibidea bilatzearren euskara ikasten duenak baso esnea dauka gogoan eta halakoa aztu egin daiteke euskal gogoaz. Euskara bizibideko tresnatzat soilik darabilenak, beste hizkuntza tresna batekin truka arriskua bai-dauka eguneroko eskeintzan, euskara gogorik edo gogozko euskararik ezean.

—Zer da euskal gogoia edo gogozko euskara?

—Txikitari “esne asko hartu behar da, mutil handia edo neska galanta hasteko” entzuna duzue inoiz edo behin. Era berean datorke beste aholku hau: “euskal gogoia inutzeko euskara mito biziaz jabetu behar duzue”. Adindun zaree eta esne epela baino eliku sendogarriagorik hartzeko ere ba zaree eta ez gorpuzkeraren aldetik bakarrik.

—Zer da mito bizia?

—Antxinakoen esana eta maizetan gaurko predika. Jung bezalako psikologistek edozein hizkuntza dute “mito bizitzat” edo M. Müller bezalako ikerleek erlijioen historia hizkuntzen historiarekin berdintzen dute, mitoak jainkoen eta gizakien arteko harremanen kon-daira zaharrak direlako eta hizkuntza, berriz, kondairon behin-behineko agiri, geroago tauletan edo papiroetan idatzi baino lehenago. Inungo hizkuntzarekin hori gertatzekotan, euskararekin osooan gertatzen da, bere egitura hasierako mitoen pertsonaiez eta ereduaz osatzen bai-da. Eta nahiko izan du ereduon gidaripean hasi eta jarraitzea, ezelako izkribu barik, oroitzaren euskarria zaintzeko.

—Kontu eziguzu mito bizi bat.

—Euskal esakerak zaharrak dinonez, “zerua eta lurra aspertuta zeudeneko behin, itxasoan egin zuten”. Holako esakerak hasierako sorkuntzen mitoak dira. Horren aurretik, Sumerren Eriduko kosmogonia zaharrenak dinonez, “Ama.ù-tu.an.ki” bakarrik bizi zan. Zer esan gura duen? *An* “zeru”, *Ki* “lur” eta *Amatu* “ume egin”. Euskaraz “amak egin zituan zeru-lurrak” esango genuke. Beste mito batek honela dino “Anuk-eta...buru beltzen herria sortu zuten ordu-rako landaretza erruz garatzen zan lurrian eta ordekatu abereak arteziaz hartu zuten izakera”. Sorkuntzaren era bateko aipamena zan, ots, “esan eta egin”, *esan/izan*, *izen/izan* hizkuneetan gogoratzun dugun magia, lehendabizi jainkoei egotsia eta gerago gizakiak berak ere erritoaren artezian beregatzun saiatu zenaz.

—Izenak bai, baina zein izen? Edozer esan eta egin?

—Ez! Lehenengo *eñe*, *ano*, *ene*, *ino* bezalako monosilaboak, edo konsonante bakarrek, ziran esankizun eta eskakizun.

Hala familia arteko izenak ere: *Ama*, *Ane*, *Aina*, *Ania*, *Ainhoa* emakumezkoei egotziak eta *Aita*, *Ato*, *Udo*, *Unai*, *Enio* gizonezkoei. N/M/N̄ daroen izenak *An* “zeru” antza daroe eta *T/D/DD*, berriz, *Utu* “iduzki” edua. Euskarak bere egituretan orekatu eta antxinako hizkuntza batzuk buztinean idatzita hutzi zuten zeruaren eta eguzkiaren lehen izena, hala nola Antxinako Sortalde Hurbileko sumeriarrek eta urartiarrek. Urartiarrek Eufrates eta Tigris sorburuko mendian, bizi ziran eta sumeriarrek, berriz, ibarre beheko itxas-atoko marran. Hagatik Ibarrate deitu zioten ibai nagusiari eta Ategorra edo Zagros mendiei erantziago datorren garaiko ibaiari, Ategorra edo Tigris. Urartu mendietako edurren urteaz ibaiok harrotzen direnean, uriola sor daiteke itxas marra-ko Sumer Behean, eta hala gertatu omen zan behin, euren ipuin-mitoetan kontaktzen denez. Errua, zeruari eta eguzkiari barik, Nergal inpernuko jainkoari egotzi zioten, berak, gizakiak bere erreinura eramateko amarruz eta amorruz, ideki bai-zituan hodeietako anteparak eta harrezkero, Kantauri itxasoan ekaitza sortzen denean, hako Nergalena gogoratu, euskal arrantzaleek, arketipoak itzuliaz, *galarrena* deitzen diote olatuen erasoari.

—Bai, baina, zeruaren eta eguzkiaren izenaz zer dino euskarak “ama.ù-tu-an.ki” edo harakoa geuretzat ere nonbait ulergari izan dadin?

—Sumeriarrek *An* eta akadiarrek *Anu* deitzen zioten zeruari, Urartiarrek, berriz, *Inu* eta euren beheko marran bizi eta lehengusu ziren hurririk, *Eni*.

—Ino! Eta euskaldunek nolatan deitzen zioten, ba?

—Heuk dinoan bezala, halako enoiuan, hizkuntza herrikoi eta mito biziaren ohikunaz, *Ino* aitatu duk-eta. Heure baserritar hizkerak eta esamoldeak salatu hau.

—*Ino* esan dudala-eta beste barik, ni euskaldun?

—Horixe erantzun ziokan behin Venezuelako aireportuan ezezagun batek norbati: “Tu eres vasco” —Cómo sabes tú que yo soy vasco? —Por que has dicho “ene!” -hak erantzun. Ipuina dela, ala gertatua? Gutxi ardura. “Año” esan ba zuan, Erribekako nafartzat joko zuten. Euskal-



dunek, ez dakitelarik ere, urtero gaurdaino *Ino* Jainkoren garaiko *Inotea* ospatzen dute. Antxina *inoak* eta *aieneak* abesten zizkioten urtearen hasieran udaberria oparoa izan zedin, Sumer herrian eta gero Babilonian bezala eta Urartun bezelaxe *Inori inoka*, *Anuri ainüka* erreguz edo *Eniri eneika* erreguz ekiten zioten, hala *inudek eñea*, eta Euskal Herriko mendirik gorenak ere *Ainomendi* edo *Ainamendi* izen-datu zituzten *Ino* edo *Eni* Jainkoaren santutegi aitortzen zituztelako.

—Izenak jainkoak badira, zelan edo zergatik aztu zuten izen eder hori euskaldunek?

—Ez, ez zuten eguno ere aztu *Ino* izena, baina Jainko sendia, gizakiena bezala, belaunez belaun gurasoengandik semealabengana hazten doan bezala, *Inoren* semeari *Inko* deitu zioten, *Eni* jainko semeari *Eniko*, edo Ama jainkosaren alabari *Amako* ohi bezala, eta Ifarraldeko zenbait tokitan gaurdino erabilia edo ezagutua izan da *Inko* izena eta askok *inkaz* deitu ere egiten diote, eta azken aldian, berriz, *Xainko* edo *Jainko* izenaz ezagutzen dugu eta maiz *inkesaz* erregutu ere egiten diogu, ezin aztuzko *Inu Jainkoari*, baina jakinduriaren arian, bakoitzean argi berriaz eta izen osotua goz ezagutu izan dugunari.

—Zein da azken aldia, jakin ahal balei?

—Hako Kixmi edo Kristo iragarri eta jaio zenetik honakoa, kristau ikuspegitik esanda. Artean, bada, haurra gizaki heldua egin zeino, eta izena monosilabotasunetik aglutinaziora jo eta handik hizkuntza zaulira heldu arte, asaben jakinduria ere euskararekin batean hazten joan bai-zan.

—Urrengo *Ino* horretaz gehiago jakin nahi nuke, euskarak edo beste hizkuntzen batek haren berri badu, behenipehin.

—Ene, ba! Antza, ipuinak ezeze, euskara mito biziak oratu hau heu ere. Hanartean jakin ezak euskaldunen umetaroa *Ino* jainkoaren analogiak *inutu* zuena besteak beste eta, nahiz *Inotean inudeek* eta *unaiek inoka* eta *inkaz antzi* egiten dioten, memoria galduan ere, *hain joran* handiz *ainoratzen* eta *ansiatzen* dutela.

## 2. Zerua eta lurra aspertzen zirenekoa

“Jainkoak lehengo bere burua egin zuan eta gero gainerako guztia” dino Euskal herriko jakinduria zaharreko kosmologiak. Beste batek, ordea, zera dino: “Zerua eta lurra aspertuak omen zeuden eta orduan itxasoa egin zuten”.

—Eta zer gertatu zan orduan?

—Hori, hori. Eta orduan, itxasoa egin eta gero zer gertatu zan? Horrelako galderekin sortzen da ipuina, bada halako galderei erantzuna eman behar zaie, itaunak ituna duelako sor. Gizakiak bere buruari eginiko itaunei erantzun behar die eta orduan asmatzen dira sortzailearen eta sorkarien arteko mitoak. Jakinduri-azko esakunak labur dino zero eta lurraren asperkundearena. Baina zer esan zion zeruak lurrari edo lurra zer eskatu zion zeruari edo eta nor ziran zerua eta lurra elkarrekin hizketatu eta bien gogoko itxasoa egin ahal izateko?

—Itxura baten esateko, zerua Jaungoikoa eta lurra gizakia.

—Bero, bero, baina nor zan, orduan itxasoa bien arteko asperkuntzatik atera zitzan zerua eta lurra? Bientzako zerbat pozgarri, maitagarri edo harrigarri izan behar zuen. Ez ala? Edo zer edo nor da zuentzat itxasoa?

—Bizigunea, zelula txikienetik handienera, sortu duen ueña.

—Eta sorten jarraitzen duena. Horixe da, ahin zuzen, zienziak erakusten duena eta giza jakinduria zaharreko kosmologiak ere ba zuan halako susmorik, itxaso eta ibaien arteko ur gazi-gezen arteko nasan gertatzen dena ohartuaz, hantxe, uretako belar artean uzten bai-dute arrainak arraba eta zelula txiki haietatik hasten bai-dira arrain txiki eta handiak eta horrela bizitzak eten gabeko jarraipenean. Hagatik euskarak *nasa/naza* hizkunea azpimarratzen du, *nasa* delako *nazaren* edo askaziaren sorgunea.

—Eta ugaztunak ere itxasotik sortu al ziran?

—Ugaztunak eta arrautzetik sortzen direnen hegazti eta narrastiak. Hoiiek arrainak ez bezalako arnas bidea desarroilatu

zutela, baina eta batzuk bizian eta bestean arrautzaz hasten dute la ondorea. Ugaztun batzuk, baleetarikoak, bezela, ez dute uzten bizira erakarri zituen itxaso eta txori asko eta gizaki asko ere, umeak amari ohi bezala, janari eske itxasora itzultzen dira.

—Eta, izurdeak bezala, uretara jostatzeraz edo kirol egitera joaten diren surfistak ere horregatik al doaz itxasora?

—Edo itxas egaleko hondartzara olatuen blastadak entzutera edo aparrak uki ditzan doazenak. Itxasoak, edozelan ere, erakarri egiten du jendea, baina gutxi ausartzen dira olatuei aurre egiten, gizakiak, behin uretatik urten eta arnasa hartu zuenetik, urari bildur bai-dio: “ura eta sua belaunetik berakoa” esakunaren arabera. Jaio berriak ere, amaren uretatik urten dueneko, arnasea hartzen duenean, hasten da bizitzen, *Marijesietan* abesten den bezala: “Nabegadua izan zan/ bederatzi hilabetian/ mundu honetarako/ itsasoaren gainian”, *Maria*, Jesusen ama, “itxaso”, zeru ta lurren *marra*” eta bizigunea aipatzen bai-du, ez talakoan. Eta horra *marra/mar* hizkunea euskara-erdaran, eta biak *Maria* izenarekin. *Marra* igaro eta bizi arnasa hartzean hasten da bizitza, hagatik *asa/hasi* dino hizkuneak, eta biziaren ukapena, berriz, *azaga* izango da.

—Zer da *azaga*?

—Euskarak *-ka/-ga* atzizkiez edukinaren ezkorra adierazten du eta, beraz, *asa/azaga* elkarren aurkako hizkunea da eta *azagae-na>azkena* dator, berriz. “Zer da heriotzea? Arnasa galtzea/ arnasa ateratzea” eskolatzen du esakun zahar batek, hain garbi ere, *asa* “arnasea” bizitzaren eusgarri egiten duela.

—Gizakia ez zuan, bada, Jainkoak bere eskuaz eta bustinaz egin eta gizona bakarrik aspertu egiten zelako, emakumea haren laguntzaile sortu?

—“En pin, en pin, uraz eta buztinaz in zuan Jainkoak Serapin” dino beste herri jakinduriako esakunak, baina ez dakit bere senak emonda ala beste nonbaitetik, Bibliatik ausaz, erakutsita. Gizakia, beraz, beste ugaztunen sortekide da eta emakumea gizonaren urgazle bizitza berriztean. Mitorik zaharrenak Sumerreko Baradisuan ikusten du senar-emazteen lehen bikotea Ensag eta Nin-

hursag. An jainkoak lurreko ur gezen antolakuntza ardura eman zion Enki/Esageri eta itxasoko ur gaziena Ninhursag emazteari.

—Zer esan nahi du “urgazle”?

—*Lagun, gozagarri, bultzagile* guzti hori esan nahi du, arrainen arrabak ibaiko ur gezatan idoroten dutena bezalako laguntza. Uren nasan itxasoko ur gazia lurretiko ur gezen urgazle den bezela, hala emakumea gizonaren lagun da seme-alaben sorkuntzan. Hagatik euskara mito biziak *ur gazi/urgazi* hizkunea eratu du, ur gazia ur gezen lagungarri dela esateko. Hareago *Ninhursag* izenak “Hursag Andrea” dino sumerieraz eta *Hursag/urgazi* dator arketipo ereduaren itzuliketaz, nahiz eta otoz-otoan ulertzeko, hau larregitxo izan.

—Eta zer gertatu zan Ensag eta Ninhursagen artean?

—Senar-emazteen artean gertatzen dena: seme-alabak izan zituztela Dilmun zeritson Baradisuan. Zer gehiago? *Utu* eguzkiari *otu* egiten ziotela, *otoi, Utu, uizuz oihuka*, haregandik *doahien* bat *udukitzeko*. Hagatik dator *otu/otoi* hizkunea, *Utu iduzkiaz otutzen* zireneko, *otoi* egiten ziotelako, umeak ama ikusten duen bakoitzean, zerbait eskatzen dion bezala.

—Baradisuko lehen gurasoek euskara egiten zutela entzundut. Egia al da hori?

—Dilmuko gurasoek sumerieraz bezala, euskal Baratzekoak edo Parajekoek euskaraz, zer esanik ere ez. Lehenengo monosilaboka, gero bikoitz edo hirukoitz sortan eta horrela *Baradisua*, ere *baratze* landua gertatu zan eta baratzea lehenik landu zen parajea Sumer, hain zuzen, eta aramearrek ere *Pardes* bezala aipatzen zuten baratze hori eta *Baratzeta>Parades>Pardes* dator eta *baratze/baratxe>feraz*, berriz, lurra landuez gero, emankor egiten delako.

—Baina euskal Baratze edo Paraje hori non sortu zan, han Sorraldean ala hemen Sarkaldean eta zerikusit du Paradisuarekin?

—Jendea non baratzen den, han paratzen du baratza eta egiten parajea. Euskara berak dino *baratu/paratu* eta *baratzea/parajea* hizkuntan. Ibiltari *pareideak*, bertan gozo egin eta lanerako lur egokiren bat aurkitzean, landu edo paratu egiten zuan eta baratzea

sortu eta bere pare-pareko lur landua huraxe du parajea eta behin behineko Baradisua. Ondo dakizuenez, baratze kultura hako Sortalde Hurbilean sortu zan Neolitikoan. Euskaldunek ere handixek jaso zuten, baratze kultura hori eta ezituriako haziak eta landareak. Handik eta hona itxasketarako erreza den ura baino ez dago tartean eta lur berriak ezagutu gura handia abenturaren lagun.

—Euskara Sortalde horretako hizkuntzen lehengusu dela entzun dut. Egia al da hori?

—Hizkuntzalari ospetsuek dinotenez gero, hala izango da, beraz hango jainkoen izena gure mendietan aurkitzea eta euren izen asko euskerak ulertzea edo latinak, grekoak eta hizkuntza erromanikoek euskera altxorretik zenbait mailebatu hartu izatea gaur bertan egiztatu genezakena da. Euskera ere handiko ereduaren hotsera mintzatzen bai-da. Orain ba dakigu Sumerreko mitoei eta jakinduriak arrakasta handia izan zutela paraje haretan eta haien lehengusu hurritek atitarren kultura harremanez kutzatu zutena eta sumeriera hizkuntza bizi bezala ahienatu zenean ere, liturgiako hizkuntza bezala irauten zuena herri askotan.

—Zer da liturgia?

—Liturgia erritoaren inguru antolatzen den ospakizun edo elizkizuna da. Han ikasten da jainkoei zer eta nola eskatu, zer eskeini eta nola eregin egin, haiekandik mesedea lortu ahal izateko. Liturgizuneko hitzak indar berezia zuan, “esan, abadeak mezan” edo “esan eta egin” esakunen eragina adierazteko, halako hizkuntza jainkoek ere ulertzen zutelako, hareago, eurekiko itunbena zelako funtzean.

—Euskera Jainkoak lehen gurasoei erakutzi ziela ere entzun dut. Egia al da hori?

—Egipton esana da Thot, eskribarien zaindaria, asmatu zuela hizkuntza, jainkoek eta gizakiek helkar uler zezaten. Euskarak, ordea, dakigunez, ez du eskribaririk ezagutu bere sorkuntzan. Jainkoak gure asabei euskara bezalako hizkuntzak asmatzeko jakinduria eman zielakoa, ostera, Sortzaldeko jakinduriak bidena-bar aitortzen du. Zerua eta lurra, itxaso sortu aurretik, aspertuta zeuden, agian elkar ez zirelako ulertzen. Nola ulertuko, bastak bes-

tearen hizkuntza jakin ezik? Orduan zeruak eta lurak elkar ulertereko izkuntza egokia, errituak eskatzen zuan araberakoa sortu zuten. Asperkundeari ihez egiteko oraintxe ere euskara sakonean ikasten hastea baino hoberik ez dago. Euskarak jainkoei eregin daki, euren izenak eredutzat hartu eta *mintzoz imitatzen* dituelako. Azken baten, grekoen *mithos* ere “imenzio” esan nahi bai-du. Eregua zen dan? Umeak amari txatxantxu egitea bezala, hagandik nahi duena lortzerren. “Amatxu, amatxu” esan ea laztanak eginez egiten dio umeak eregin amari. Hagatik *eregu/erregu* dator hizkuntzean, batak bestea eta bien artean *erregalia* dakarrelako.

—Eta zelan dakigu euskerak jainkoei eregin edo erregu egiten dienik, erregaluak jasotzeko?

—Hori euskarak berak bere ahotzekin erantzun behar du. “Ze metodologia duzu guzti hori frogatzeko” galdetzen dute zientzialariek? Metodoa euskara bera da. Berari galdetzea baino ez dago. Ea euskerak jainko ereduaren ahotzekin monosilaboz berba egiten dakian, ea bien arteko elkargoa egitearren, jainkoen arketipoei bere giza arketipoak nastatzen dizkion, ea umea amaren inguru bezala, euskara jainkoen inguru hasten eta burutzen den.

—Zer dira arketipoak?

—Hako tipoa, hi? “Antxinako eredu” esan nahi dik. Antxinako kosmogoniak oinarritzko lau elementu bereizten zituan: uin/ur, su, aire eta loi/lur. Elementu bakoitzak bere jainko ereduaren zuan: uin=*Inu* “zeru” urartieraz (zerua ur gezen lekua bai-zan), su=*Utu* “eguzki” sumereraz, aire=*Erra* “eguzki” egitieraz, eta loi=*Ilu* “jainkoa” ugaritieraz. Hoiiek ziran izadiko sorkariei deitzeko jainkoen ereduak. Baina, hala ere, zerua eta lurra aspertu egiten ziran elkarren berri ez zutelako eta orduan gizakiak ordezkariak bidaldu zituan jainkoen bilerara, giza auzia jainkoen auzi-mahaira jaso ahal izateko. Gizakiak bere burua kosmoko zatiki hautemanen, ots, lur zen aldetik lurki, ki sumerieraz, *Ka* arketipoa ordezkatu zuan eta, bere sainetan uin den aldetik, *ibai* ereduaren *Ba* arketipoan aukeratu zuan eta birietan kosmoko aireaz bizi denez gero, *As* arketipoa izentatu. Haraz gero, nahinolako eta ezin aspertuko solasa izan zuten zeruak eta lurak elkarren artean.

### 3. Miel Otxinen Osin Beltza

Munduaren hasieran dena zan Osinbeltz, uhar eta zurruburu, Sumerren kontaktzen zuten arabera. Osin Beltzeko Subetzarrak inguratzen zuan lurra eta haren gainean oinarritzen zan lehorra. Handik garatu omen ziran munoak eta mendiak. Orduan ibaiak sortu ziran mendiko *Ap.su* zeritzaion *putzu* haretatik eta Osinbeltzeko ur gazitarantz abiatu. Ba dago oraindio Sortalde haretan *Osinbeltz* deitzen den itxasoa eta latinez Pontzo *Euxinu* deitu zena eta Europako ibai handienak han okatzen dituzte urak. Ur gozoko *Su.ap Subea* edo Putzuko ibaiak Osin Beltzera heldu zirenean, bizia sortu zan. Argituko al zan orduan *Osin Beltza!* Putzu aita eta Osin ama, ur geza-gazien ordezkariengandik, lehen jainkoak sortu omen ziran. Jainko umeok hazi ziran eta jainko gazteek buila handia ateraten omen zuten eta, ohi bezala, *Ap.su* aitaren loa eragotzi. Zaharren eta gazteen arteko otina sortu zan orduan. Enki, jainko gazteen buruak, *Ap.su* erail omen zuan, haren aholkulari *Mummu momoak* zeukala eta haren emazte Tiamat Osina Marduk jainkoak erdibi eginik, erdi bata goi zerura eta bestea lur barrenera banandu zituanean. Enki ur gozoen erreinuaz jabetu zan eta Lantzeko Jotean gazteek *otina Otxini* egotziz ematen dioten epaian hako asaben mitoa ospatzen dute algara handiz.

—Eta zergatik jotzen dute Miel Otxin?

—Ez, Jotea Inoteko ohikuna berezia da, Inotea, Inu jainkoari inoz eta aienez urteko anoa eskatzeko den bezala, Jotea, Urte Zaharrari eskasiagatik epaia eman eta Eguzki berriaren juzoan kontuak eskatzekoa da. Hatarako joaileek prozesioko martxasoinua jotzen dute. Adarra jo, soina jo, martxa jo, aurrera jo eta joan, Otxinen juzoan bezala, herriko plazaraino.

—Zer da prozesioa?

—Ibilketa, edo kalejira. Lehenago elizaren inguru egiten ziran prozesioak Korpusti jaietan eta santuen egunetan, batez ere. Baina Jotea elizako prozesioak baino askosaz zaharragoa da, bera da, izan ere, ezagutzen den prozesiorik zaharrena. Gaur bertan ere

euskararen aldeko Ibiltaldi eta mugidatan antxinako joaileak urtetzen dute aurrelari, hain egoki, hatan ere, antxinakoa gaurkoaz argitzen bai-datoz eta gaurko eskakizunak antxinakoez lotzen, burua galdu ez duten herrietan behenipehin.

—Bai, baina, joaileek zertarako edo norako martxa jotzen dute?

—Lantzeko prozesioan parte hartzea baino ez duzu, berak zaroaz herriko plazaraino. Ikusi Lantzeko txantxoak. Burua amaru sare margotsuz mozarrotu bezala daroe, eskuetan erratzak eta bazterrak garabitu beharrez kurritzen dute kalea, errudunaren bila. Nongo Subek mugitu zituan Osin Beltzeko urak, halako sorkari kaltegiak zor zitzan? Ze dragoek eragin elur Osin Zuriko zurrunbiloak? Nork kaltetu gorrinaz soloko uzta? Nork izurratu zituan, harakoan bezala, pataten ostro berdeak? Joaileen aurrelariak, burrukarako deiadarra jotzen bailihardun, samako zainak eten beharreko inkesak egiten ditu adarrotsean. Herria plazan batuko da eta errudunari herio epaia emango diote iluntzean.

—Eta gorrinaren kontra prozesioak? Xomorrook garbitzeko ba dago orain kimikazko emendio hoberik.

—Maiz emendio eskasa, hala ere, kimika bera izurri galanta gertatzen delako eta xomorro batzuk, gainera, kimikari kaka egiten diote eta xomorroena emendatuarren, non gelditzen dira uriolen, edo harriaren, edo legortearren kalteak? Bai al dago elementu hoi kontrako indarrak gaurko zientziaren dendan? Bestelaz, ezin denean, santuengana edo, Lantzeko Jotean bezala, mitoaren inguru egiten den erritoaren artezira jo behar izaten zan. Joaileek, arran handien durundira, inguruko landetan izkuta ohi ziren gaizkinak uxatzen zituzten eta dituzte. Errogatibetan ere kanpaeak jotzen baidiren haideko indarrak hodeia ustu eta euria hasi zedin.

—Zer dira errogatibak.

—Oraindino herrizka batzuetan ermiten batera egiten diren prozesioak. Herriak Jainkoari, Andre Mariari eta bere Santuei arrenez, igoten du ermitara. Ez, arranak edo zinzarriak joaz, ermitako kanpaea baino, Jainkoari arrenetan solorako ura eskatuz. Orduan, solo ondasunetatik bakarrik bizi zen jendeak bestelako

fedea zeukan, beharrianak biztutzen bai-du itxaropena eta fedea. Zuek, ostera, dena daukazue aukeran eta beharra zer den ere ez dakizue, beharra zer den jakiteko pobrea izan behar bai-da eta inkaz abestu Inkori arrenak.

—Eta gure asabak ere behartsuak izan al ziran?

—Behartsu eta beharti eta, beraz, sinistedun. Horrek ez du esan zoritxarrekoak zirenik. Zoritxarreko izan balira, ez ginduezan mundura ekarriko. Baina Jotea bestelako prozesioa da. Joailleek ere ustea Jainkoaren juzoan zeukaten eta Jainkoak gaizkinei egin juzoa halako arrandiz ospatzen zuten.

—Nik entzunda daukat, gure aitonek-eta Ostiral Santuz Judas Saltzailea makilakixki jotzen zutela eleizan edo eleizpean, jarraile aizun harek Jesus Maisua saldu zuela-ta.

—Noski, Judas horrela zehatzean, herriak juzoan parte hartzen zuan eta ziur, kristau espirituari baino, antxinako juzo zaharragoren bati lotuago, Jesusen saltzailea ere, Miel Otxin bezala, gaizkile handizat jotzen zutelako, agian.

—Ze kalte egin zuen, bada, Miel Otxinek?

—Moxorroak, xomorroak, izurriteak, euriteak, izozteak, legorteak, haizeteak, galernek, kaskabarrek, etab. Kalte guztiak joazen orduan Miel Otxinen lepora. Dagoneko herrian bere izen abizen agiriak galdurik, “mila otxin” diru ostu zituelakoa ere ego-tzi zioten. Baina ba-dago bazterretan lapur handiagorik eta ez zaio hain otinezko juzorik egin.

—Zer esan nahi du, bada, Miel edo Migel Otxin izen-abizenek?

—Hara, mielga, subearen antzeko arraina da, luzenga eta eskata gabea. *Migel* denetik *mielga* izan daiteke eta *Otxin* denetik antxinako *Osin*>*Océano*. Mendiako lezei ere *osin* deitzen zaie, hurbiltzen zirenak barrura tiratzen zituela-ta. Euskal geologian asko dira. Bat Artikutzatik Aralarra bidean. Hormaz inguratuta dago, “ez bota zakarrik” dino kartel batek. Harririk-edo boteaz, idittu deabruzkoak urteten zutela esan ohi zuten. Itxinako eta Txindokiko osinak itxasoko urekin zuzenean harrematen omen zuten. Arando mendiko osinaz hitz egin zidan behin Artomañako batek, beste

behin Serantekoaz santurtziar batek. Biek ere ardura bera zeukaten: osin haretako urak, ibaiez zehar barik, itxasokoez zuzenean nastatu zitezkelako susmoa, bada, deskuidoan nastatzen baziran, nastatu, bizia barik, orduan eguraldi onen amaia izan zeitekela-ko eta erabat ordena guztiaren galpena, ekaitza eta ixurritearen erreinua, uztaren kontrako kalteak, hako Sugoi edo Sugar jeinuak Mari Anbotokoaren kobara joaten zenetan bezala. Kalteok zirela-ta, *otin* handia zioten herrian *Otxini*, euskarak *otin/Otxin* hizkunez parekatzeraino, hatan ere.

—Eta herriak nola gorde ahal izan du Migel Otxinen mitoa?

—Urteroko Jote erritoari esker. Erritoak berritzen ditu lehen aldiko ekintzen eta jainkoekiko itunen oroimena. Errito horren parte da euskara ere, ez dagoelako hitzik gabeko erritorik, hitzak eta otoitzak ematen diolako erritoari barne funtsa. Horrela, euskarak *otin/Otxin* hizkunean lotu ahal izan ditu zioa eta pertsonaiaren eskarmendua, mito zaharra mito biziaren aitorpenaz ezagutu ahal dezagun. *Otxin* mitoak izadiko indar bildurgarriak adierazteko erabilia izan da. *Osin* galgarriak, barrura tiratuz, irentzi egiten zuten osartua. Ez al duzue inoiz ezagutu hoietako osinik zuen baserrietan? “Jainkoarren, ez urbildu haietara” esaten zitzaaien haurrei.

—Eta zer egiten diote Otxini Lantzeko Jotean?

—Enki edo Ea eta beste jainko gazteak Babiloniako mitoetan *Ap.su* zaharri eta haren emazte Tiamat Osinari egin ziotena bera: erail, haren heriotzetik bizi berria sor zedin.

—Miel Otxinena Babilonia garaitako mitoa dela esan nai duzu?

—Ez, Babiloniako poema Sumerreko mito zaharrago baten hiruzkina da. Lantzeko Jotean ez dago errege piurarik, adibidez, eta Babiloniakoa Marduk erregearen omenez egin zan. Babiloniakoak *Ap.su*-ren heriotz ostean haren emazte Tiamat, ur gazien ordezkariari, egiten dioten juzoan ere azaltzen da, bere soinean egiten bai-da ur gazien eta ur gozoen banaketa, goian ur gezak, behean ur gaziak. Nolabait gizonezkoek euren sekxu erratuak garbatzen dituzte Otxinen lepotik.

—Jo! Halako epaiak eta halako zigorrak emango balira, emaz-

teki gutxiago jausiko liraketela euren gizonen eskuetan?

—Aizan, ez zegoen horixe txarto iruzkindua eta, alde hortatik, Migel Otxinena herrien jakinduria ondakin bat izan daiteke. Bestalde, Otxinen erreketeta edo turreketeta denez, neguko Erra eta Utu eguzki jainkoen juzoa ere ba da, gero Ekaineko *Donien* Suteaz ospetsuago garatuko zena: Donienetan ere, suge, zapoak aipatzen dira kaltegielearen artean. Otxinen juzoan txantxoaren Erratz dantzak eta Donienetan Bordon dantzak, Makil dantzak eguzki berriak Kaos Zurruburuaren aurka lortzen zuen garaipena ospatzen zuten, Sumerretik hasi eta honaino.

—Beraz, Kaosaren ospakizuna-edo, nolabait esateko?

—Bai-ta zera ere! Horrek gaupasetako dantzak izango dira, izatekotan, hau, ostera, Kaosaren aurkako errittoa da. Ikustea baino ez dago dantzarien lerroa eta mugimenduen doitasuna eta errittoaren seriotasuna? Ez dago ospakizunetan, hitzarekin batera, errittoa baino gauza serioagorik eta zurruburuaren kontrako artezia ziurragorik. Hori da, eguratz aldaketen aurka egiten zen araoa eta eguzki eguraldi onaren emaileagandik itxaroten zena.

#### 4. Sanpantzar antzarretan

Sorkuntzaren asieran, ur goienak eta ur barrenak berezi aurretik, zurruburu eta naste handia zan ama Hubur itxasoan, iluna zan nagusi eta Jainko asa bakarrik denaren gainetik. *Ap.su* putsutik ibaiak sortu ziran eta Tiamat itxasoan Lajmu eta Lajamu bikote ezbaikorra, erdi gizaki, erdi arrainki sortu ziran. Hurrengo bikotea zehatzago eratua izan zan: *Anzar* “zeru” eta *Kizar* “lur”, bien artean halako marraz bereizten zirela. Guraso biokandik jaio omen zan An/Inu Inkoa.

—Baina zer dira Antzar eta Kizar, Jainko guraso izateko?

—Akadieraz *Anzar* dena *Sar.an* da sumerieraz eta akadieraz *Kizar* dena *Sar.ki* sumerieraz, arketipoen itzuliketa mailebatuak estaltzeko hizkuntzen artezi zaharra dela jakin dezazuen. Euskaraz ere *zar* deitzen zaie guraoei, izen berezko aita-sembleak edo ama-alabak bereizteko:” Matia zar/Matia gazte” bezala.

—Baina nik zera jakin gura nuen, ea Antzar hori euskeraz “antzar” hegaztiarekin zerikusirik ete zuen.

—Ba, antzarrak ere zero aideko bizidunak dituk eta arrainak uretakoak, ostera. Ohartzekoa da, bestalde, “antzarretara ibili”, “antzarretan ekin” esakerak zertatik datozen. Antzar jokoan, antzarrei burua moztzen zitzaieen ezpataz mozteak zaldi abiadan joazela. Zer dela-ta halako zigorra antzarrei? Besterik da *An.shar* sumeriarra ots eta edukin euskerazko *antzar* etortea. Hegazti hau *An.shar* jainkoaren abere kutuna izatea leitekena da, uxu Utu iduzkiarena edo arrano Erra iruskiarena diren bezala. Hurbilketa bat egin behar eta berdin Antzar eta Pantzar pertsonaiena, ea elkarrenak direnez. Alde batetik euskara bera dugu abisari eta bestetik euskal errittoa. Bien artean ezelako elkarterik egiten denean, esan genezake euskarak asabengandiko errittoaren izena gorde duela eta errittoa bera antxinatik honaino gorde izan den herri ohikuna dela horren lekuko, Isturizeko Inotean egiten den Panzar edo Sanpantzarren auzia. *An.Shar* jainko zaharraren mitoa jakin, Pantzar pertsonaiarena argitu ahal izateko. *An.Shar* semea Pantzar etortea gauza arrunta bai-da, hala: An>Iban, Ilu>Balu, Utu>Pu.zu, Ra>Pharau, etab. jainko gizatua adieraten dator, Ba arketipoak gizatasunez jantzen bai-ditu. *An.Shar* jainko zaharraren auziak garoaz, beraz, *Pantzar* pertsonaiaren auzira.

—Nik San Pantzar entzun dut beti.

—Bai, *San* jainkoek eta Jainko serbitari bereziak ere gero lortu zuten tituloa da. Benafarroako Ustaritzen Pantzarren lepotik egiten duten auzian urte zaharreko gaitzen aitortpena egiten da. Jainko gazteak ere jainko zaharren lepotik garbitu nahi izan zituzten euren erruak eta oraingo gazteek ere maiz zaharren lepotik, “zaharrago eta txarrago” eta “zaharraren umea martxuka” salatzen bai-du herri jakinduriak eta, halatan, “zaharra da-ta, hil bedi” epaitu zaleak bai-dira.

—Zer egiten diote, ba, Pantzarri?

—Urte Berriak Urte Zaharrari bezala: “kendu hadi hortik, jarri naiten ni”. Nolabait An/Inu jainko berria inoz eta aienez enoiatu, Antzar jainko zaharraren gaitzak, uzta kaltetu zuten lainak, lai-

nabera, lupu eta lupeak aihenatu eta uzta berrirako aro onak bidal ditzan eta Urte Berrian eguzki berria nausi daiten. Hagatik Antzar edo haren meneko Pantzar jainko zaharraren mamu erraldoia herriko plaza erdira daramate, idi, otso, artz, arrano, asto, oilasko, zaldi, etab. abere usu edo bezatuak atzetik lekuko dituela, eta arpegi marrotu, tunturro, gona gorri eta atorra zuri-dun *marika* pareak idi bustanezko ixipuz bazterrak xautzen dituztela. *Marukka* izengotia Marduk jainkoak berea egiten zuan eta “jainko guzti egile” esan nahi du. Kalejira plazara heltzean, juezak, inguruan apaiza, alkatea, eta medailaz beteriko kapitaina lekuko dituela, Pantzar salatu egiten du: alperra delakoaz, gaupasari emana, Baionako manifatara joan zale, eta bederen, beti euskaraz mintzatzen duelakoaz. Jarraian sua ematen diote Pantzar mamutzarrari. Eta, jakina, behin Pantzar, garbitu eta gero, *San Pantzar* da, *zendua/zaindua* delako hizkunez edo “hil haite eta santua izango haz” esakuneak agintzen duen lez.

—Zera, euskaraz egiteagatik erre egiten zutela?

—Medailatun kapitain askok eta euren lagunak egin izan dute gaurdaino antzekorik, euskalduna ez den aginteak euskara bera ere hizkera zarkitua ahienatuz, egin nahi izan dutelako herrien batasuna eta berdintasuna. Bestalde, *San Pantzarren* auzian antxinako erruen garbitasuna eta erabat oraingoan kritika egiten da.

## 5. Laminen alamena

Antxina haretan jainkoek gizakia sortu aurretik, saio bezala, beste izaki batzuk sortu omen zituzten, erdi gizaki ta erdi arrain ziren mamuzko, erdi uretako eta erdi lehorreko izaki ziren laminak edo lamiak. Mito honek Euskalerrian arrakasta handia izan zuan, euren akordua bezalako tokizenetan gelditzen bai-da oraindino. Lamien ipuin asko ere ezagunak dituzue, *Laminaren orrazia*, *Lamiarekin amoratu zen artzainarena*, etab. Ipuinok antxinako mitoeekin topo egiten dute. *Ap.su* potzuko ur gozoen jainkoa eta *Tiamat* itxasoko ur gazien jainkosaren arteko lehen umeak omen ziran *Laimu* eta *Lajamu* lehen bikote mamuzkoa, Babilonian, kontatzen zenez.

—Eta zer da mamuzko?

—Mamu itxurakoak zirela, Basajaun bezala, ez gizaki utsak, jeinu bereziak baino. Mamua mamu, eta jeinua jeinu, *lamina* zer zen garbi inork ez zekian, hagatik bakoitzaren susmo, irudipen, kezka edo begitantzinotatik antzematen zan, edozein ikuskizun *lamotu*, *lanhatu* edo *lainotu* edo *amilana* bezalako haize bolada dela-eta: *lama*, *lano*, *laino*, *amilen*, *amilana* bezalakoa, hitzok izaki haien analogiak bai-dira eta mamuok, berriz, haien antzerako sorkari giza irudimenean.

—Baina zergaitik horren beste izen? Ez ete da nahiko bakar bat, denetan arruntena, elkar hobeki ulertu ahal izateko?

—Noski, gauza arruntetan elkar ulertzeko, baina *laminak* ez dira horren arruntak, mitoaren kume baino eta euskara mito biziak bere hots guztiez baliatu behar du ezelako argirik egitekotan eta sumerierako *Laimu* izenetik *Laino* izenera doana ere begiratu. *Ab.su* ur gozoen eta *Tiamat* ur gazien arteko kumeak, zirenez gero, ea *lamos* eta *lamote* bezalako arrain arraparien antzik ote duten, *laminak* ere gerritik behera arrain mamutzat ematen bai-zituzten, itxasoko *leoin* eta foken antzeko bulardunak. *Laimuak* eta eurekin *leoin* basak salatzen ditu, izan ere, Babiloniako mitoak. Akadieraz *Ab.su* dena *Su.ap* zan sumerieraz eta horra *sube*, arrain sube buztandun izugarri irudikatzen dituzte *lamiak* bai Babilonian eta bai Grezian.

—Guzti hori lainabera baino ganduagoa da niretzat.

—Oroimenetik urrun joanak bezala, orduan. Lainabera bisitari ezeze, uztari ere kalte galantak egiten dizkio. Garia *lanhatu* dela esaten denean, “garia galdu da” esan nahi da eta zeuok daki-zue errepidetako lainoak egiten dituen kalteak. Lainoak ikuskitzuna eragozten du eta orduan datoz istripuak eta laminen begitantzinoak eta *lamak* izadiko fenomenoaren benetasuna izkututzen du eta orduan datozke susmoak, lilurak eta bildurrak.

—Horren kaltegarri izan ete ziran, bada, laminak?

—Kaltegarria ezjakina bera da edo badaezpadako susmoen pentsudan egotea. Aguraingo *amilamiak* oso onak omen ziran edo Sumeriako *lammak*, angeru zaindariak, Greziako *lamiak*,

ostera, akadiar *lamashtu* deabrua bezain gaizto eta umeginen hondatzaileak. Zer dela-ta? Mitoak ipuina dakarrenez, ba omen zegoen Frigian lamiaren erregina guztiz ederra, Zeuz jainkoa bera haretaz maitemindu ei zan, harekin seme-alabak izateraino, hatan ere. Hera, Zeusen emazteak, ostera, tukuak hartuta, lamiaren umeak erail omen zituan eta, ordekoz, lamiak harrapatzen zituzten haurrak suntzitzeko erabakia hartu omen zuten. Mito zaharrak eleberritzen direnean, lainoak eta lamak ugaritu egiten dira irudimenean. Nonbait gaurko gizakiari ere atsegin zaizkio irudipenok, burua izkutatzeko edo norbere erruak nori egotzi ahal izateko.

—Euskal Herrian orduan, antza denez, laminak ez ziran izan horren kaltegarriak.

—Ez, Ap.su eta Tiamat jainko-jainkosek ez zituzten inoren kalterako sortu *Laimo* eta *Lajamu*, jainkoen serbitzurako baino eta, lehenengo eta behin, jainkoen tenploak garbitu eta zaintzeko. Euskal Herriko laminen jokera berdintsua izan zan. Edotariko lanera emanak omen ziran, berdin josketa finenak egitera edo etxegintza erraldoiak eraikitzaera, tregoarriak, koronarriak, elizak edo Kastrejanako zubia bera, ipuinek kontatzen dutenez. Halare, gure amonek, badaezpadan, Gabonetako hariz ehunduriko atorra janzten omen zuten, laminen kalteak itzuritearren. Hor duzue antxinako artezia fede berriaz nastauta kaltegileen aurka.

—Ze kalte baina?

—Ahuleriak, gaitzak, heriotzak...Horrek dira gizakiak itzuri nahiko lituzken gaitzak. Sumerren *lemnu* “gaizto” deituriko deabruak ezagutzen ziran. Hortik datozke *malu* eta *mamala*, *meme-lo* edo *lamur/malur* izen arketipoz biurrituak.

—Nik nahiago ditut lamiaren ule luzeak eta urrezko orrazia kontatzen duteneko pasadisoak.

—Atsegina benetan. Nongo emakumeri edo gizakumeri ez zaio gustatzen ondartzan edo ibai ertzean bainua hartu eta eguzkitan atzedentzea? Norbere gustoko arazoak ere laminen pasadisoetan ezartea poetikaren arpegia du eta euskaldunok irudimen ideiak gara, Euskal Herriko ibai-errekak eta itxas hegalak eguzki eta

lainoz joriak diren bestean. Konta iezaigun, mesedez, laminen pasadiso hoietariko atseginen bat, hako “Lamina eta orraziarena”-edo.

—“Ba, Lamindanoko lamina batek urertzean uleak orrazten eta orrazten ekiten ei eutsan luzaroan. Behin urrezko orrazia aztuta itzi ei eban bera jesarten zan harri gainean. Artzain batek, handik pasakeran, orrazia hartu eta etxera eroan ei eban. Eta gauaz, lotan egoela, tas-tas lehioan jotzen ei eutson lamineak “nere urrezko orrazia itzultzen ezpadaustazu, ez da faltako zure etxean desgraziarik” inotsola. Eta horrela behin eta barriro. Konturatu zan mutila eta hartuneko tokian bertan itzi ei eban orrazia eta haraz gero, ez ei eutsan gehiago molestau gauekoak”.

—Ederto, benetan, neska. Eta honela, ba goaz zuen hasierako galderari erantzuten. Zergatik horren lamin arrakasta Euskal Herrian? Ostaz egongo da, izan ere, Europa osoan laminen aipagarri diren hainbeste tokizen dituan herririk. Izena izen tokiari lotu gelditzen da betiko eta izenak barriztu daroa laminen mitoa. Lehen laminak eta maideak eta orain, ostera, Telebista bera da Lamiturri.

—Zer du Telebistak laminekin zerikusirik?

—Asko. Telebistak ere argi-ilun eta lainoekin jolas egiten du eta gure begiak ere jolas egiten dute hainbeste ikuskizun eta begitantxinorekin lilurak noiz behinka hartzen gaituela. Baina aldea ere ba dauka, zuk dinozun bezala: batean lainoak eta argi-ilunak berezkoak direla, Telebistan, ordea, giza sormenak eta teknikak berak sortzen ditu mamuak, mustroak, etab. Hobe da bakoitzak bere gustokoak sortzea, beti Telebistakoen pentzura egon baino.

—Laminak eurak ere gizakien irudimenak sorturiko mamuak badira, zer dago artean gizakiak asmatu ez dutenik?

—Izadia bera eta haren liburuan ikusten dena, horixe da gizakiak asmatu ez duena. Begitu duzue menditik ibarraldea edo Euskal Herria aidetik ikusita? Ohartu duzue Afrikako basoek gordetzen duten edertasuna? Ikusi duzue eguzkia goizean menditik urteten edo arraltzadean itxasoan sartzen? Guzti horrek, eta ez inongo Telebistak, harrigarritzen zituan gure asabak eta hainbeste sorkari harrigarrien eraginean Jainkoaren eskua ikusten zuten.



—Orduan gaur ere zilegi al daiteke laminekin amets egitea?

—Bai, baina kontuz, halako ametsak “txakur ames” deiera izan ez dezaten. Txakurak ere amets du nagusiaren mahaiko haragi xerra, eta drogazaleak ere haidez edo amilburuan ematen dituen zaldiketak. Horrek txakur ametsak ezeze, amets galgarriak ere ba dira, harako laminak ezeze *lamastuak* ere bai. Hobe Igorreko Txilibistrok ostera ere asmatuko balu bestelako lamina hoi kon-trako erremediorik.

—Zer egin zuan, bada, Igorreko Txilibistrok?

—Ez al dakizue Txilibistrok egin? Ba, *Utukku* angeru zain-daria *tukutsuak lamashtuekin* egin zuena: mendiko zuloetara behartu. “Txilibistrok ba ekian laminak errebero zaleak zirena eta behin kaiku bete errebero eskeini ei eutson lamina bateri eta bai onartu ere laminak. Zurrutak eginala eta denporapasa, erre-kaldeko beste laminen izenak eta aipagarriak azaldu zituan arte-an laminak, eta zera esan eutson Txilibistori: “Arratiako lamina guztiak alde egin beharko leukiek hemendik, laster egin bere, hi Donien gabaz jaioneko txahal ñabar paregaz errekea areatzeko bahintza”. Txilibistrok gogoan hartu eban sekretua: “Txahal pare, ñabarra, eta Donien gauaz jaiotakoa, jo, haxe apostua!”-esan eban bere kautan. Asmatu, ibili, halako orduan jaiotako txahal ñabar pare zuzendu eta goitik beheraino aratu ei eban Arratiako erreka eta haraz gero, laminik ez ei da mugitu Gorbeiako arkaitz zuloetatik. Inoiz edo behin ifarra eta hegoa nastatzen direnean, laminen alamena entzuten ei da ibaiko uren joranez. Uretan jaoak, ura amets”.

## 6. Ainanino ala deabrusko?

“Deabru” esateko euskal hitz zaharrena *ainanino* da. Txikitan barrabaskeriaren bat egiten genuenean, *ainaninook!* agirika egiten zigun amona zaharrak eta beste behin *ainaninokook!*

—Eta ze alde dago izen batetik bestera?

—*Ainanino* zaharra goa dela *ainaninoko* baino, “ama” “amako” baino zaharra goa den bezala, edo “lamina”, “laminako” baino. *Laminakuak* ziran, adibidez, Ogoino peko laminak. Ze alde dagoen? Amagandik alabarengana dagoena. Abereengan ere berdin, *astoko* “asto kumea” da. Beraz, amona harek guri *ainaninook!* deitzean, “deabru kumeok!” esan gura zigun. Berdin, “maldizio” adierazteko hitzik zaharrena ez da “birao”, *ainena* baizik.

—Eta zelan dakizu hori, bata bestea baino zarragoa denetz?

—*Ino* zelako Jainko zeruaren lehen izena euskaldungoan ere, Urartun bezala, eta bere ospea *inoz* goraldu edo *aienez* otoizten ez zuenak, *ainenez* edo *ainenka* ukatzen edo itxurgatzen zuelako.

—Eta deabruak ere kumeak izaten al dituzte, abereak bezala edo, gizakiak lez, umeak?

—Antxinako asaben susmotan bai, jainko-jainkosengan ere aita-amen sorkuntza legea somatzen bai-zituzten. Kristautasunaz gero ere, “aingeruen seksoaz” eztabaidatzen zuten Bizan-zioko teologoek eta horrelako eztabaidei “bizanziar gaiak” esaten zitzaizen, hain zuzen, “funtzik gabekoak” zirela adierazteko.

—Eta deabruak aingeruak izan al ziran lehenago?

—Hala dager mitorik zaharrenean. Angeruak *anunna* deitzen ziran Sumerren. Euren artean *anunna.kene* bereizten zituzten “*anunna* guenak” edo “Enangeruak”, *-guen>-kine* bai-dator izendegian. Akaden *anunnaku*, deitzen ziran, hako *anuna* haien umeak bailiran. Euren zeregina jainkoen sorkuntza lana ordezkatzea zan, jainkoek atsedena har zezaten. Beraz, jainkoei *anoa* edariz eta *anho*a janariz edo *anonna* “urteko *anho*a” serbitu behar zien. Horixe bera da *Inotez Inu* eta *anunnei unaiek, inudeek, inosoek* eta

*niniek* eskatzen diena: urtean zehar *inutu* ditzaten. *Anunnak aunitz* edo *aneika* izan behar zuten, bai zeruan eta bai lurtean, gizakia bera sortu baino lehenago. Halatan *anunna* izena “angelu/aingeru” baino milaka urte zaharragoa da, *ainanino* “deabru” baino zaharragoa den lez.

—Baina zer gertatu zitzaion aingeruei, deabru bihur zitezten?

—Betiko arazoa: zaharren eta gazteen arteko burruka, Tiamat jainkosaren eta Marduk errege jainkotu gaztearen arteko erronka bezalatsu. Tiamatek Kingu gizakia jainko-gingara jasotzean, *anunnakuek* hari men egitera lerrazi zituan eta hoiek Kinguren oinak muinkatu zituzten. Hori dela-ta, Mardukek banandu egin zituen, *anunnakuak* zeruan eta lurtean eta lurteko *anunakuek* santutegia eraikitza behartu zituan. *Anunnakuek* lanabesak antolatu zituzten eta harrilugintzan ekin zioten urte guztian eta horrela, jainkoen *Esagila* eta Marduken *Exarra*, etxe harrigarria, jaso zituzten.

—Orduan ze alde dago *laminen* eta *anunnaku* edo *ainaninokoen* artean, bada, biak ere erainkintza handien egiletzak gogoratzten bai-dira gure mito edo ipuinetan?

—*Lamina* izena semiten eredukoa da, *anunna* sumeriarra, ostera; hoiien jainko sortzailea An/Anu bai-zan, haiena, berriz, Ilu/El eta jainko egile bakoitzaren sorkariak euren arketipoz analogizatu eta izendatzen ziran.

—Antza denez, orduan, Euskal kultura, zati bat sumeriar tipokoa da eta beste zati bat semitarra, ez al da?

—Eta ez aztu semitarrena baino zaharrago den egitiarra edo kamitiarra ere ba deritsona. Euskara Sorkalde Hurbileko kultura zahar guztiei idekia dago eta hebraierak ez dakizkin hainbeste segetu azal ditzake Bibliako kultura azpiegituran ere. Esaten nuenez, Kingu giza jainkotuari men egiteagatik, *anunnakuak* lanera behartuak izan ziran eta tenplo harrigarriak jaso zituzten. Haraz gero, gure oroitzan ere *ainanino* edo *ainaninokoak* ekintza arrigarrien egile bikainak izan zirelako gelditu da.

—Eta gizakiak euren asmoz eta eskuz egindako eraikintza handiak, dela *Esagila* edo dela Kastresanako zubia, zergatik egoz-

ten diete *laminei* edo *ainaninoei*?

—Euren asabek gizaki arruntak baino handiagotzat zeuzkatelako. Zenduek *anunna* edo *ainanino*, ots, angeru bihurtu ikusten zituzten beste munduan eta *ainaninoen* lanak aipatzean, asaben lanak goraiatzten zituzten funtsean. Gaur bertan ere Afrikan Marfileko jende batzuk eurek gaueko segetuan aihenez eginiko zubia espirituari egotzen die eta hori aurretikoen tradizioa eta sinis-kariak gordetzearren ei da. Zubigileak ez omen dira eurak, euren-gan gauez dabilten aurretikoen spirituak baino. Harrigarriena zera da guretzako, Babilonian K.a<sup>ko</sup> 1700 gn. urteko usteak oraintsuko Euskal Herrian *ainanino* eraikileen izen eta guzti errepikatzea eta hareago, Mardukek bereganatzen dituen Sumeriako jainko titulo zaharrak euskara mito biziak hainbatean ulertzea. Eta ez hori bakarrik: Bibliako kondairetan gizakien jainko izan nahia, ogena, ugoldea, erensuge eta Mikelena, bai eta ere jainkoekiko itun berria, etab., hein batean inguruko mito zaharragoak euskararen ahotan orain predika berantiarra gertatzea.

—Bibliak kontatzen duena ere mitoa dela esan nahi duzu?

—Zuk mitoa pasadenporako ipuintzat hartzen baduzu, ez. Baina asaben Jainko eta gizakien arteko ituntzat hartzen baduzu, herriaren eskolabiderako funtsezko eskolabide gerta ditekete. Eta enperio handiak, handiz galdu zuten ondarea, Israel bezalako herri txikiak gorde ahal izan dute Biblian eta euskara mito biziak ahozko mito eta izendegiko edukinetan. Ala, euskara mito bizia dela-ta, gauzaeztantzat jo behar al dugu? Orduan eta bitxiagotzat hartu bai, ordea. Orain “demonio, danganino, deabru, Satan” deierak gelditzen dira *anunna*, *ainanino*, *ainaninoko* baino askosaz geragoak. Izen larregi direla-ta euskal hiztegitik garbitu egin behar ete dira? Ez horixe! Izen bakoitzak berera definitzen du arazoa eta aldien aldiko jakinduriaren lekuko dira.

—Zer esan nahi dute, bada, “Satan” edo “deabru” izenek?

—*Seth*, egitiar mitoko pertsonaia da, bere *setak*, hau da, *setati* izateak porrotera eraman zuan eta deabrutarat egotzia izan zan. Eta horixe da *Satan*, denetan *Setheen*, ots, *setatiena*, txarretan *txerrena* ere deitzen zaionez, gehiengo kasoan. *Deabru* izena, berriz,

*dia-buru/burudia* ulertzen du euskarak. *Dia* “saldo, oste” esan nahi du “gudarostea gara” Ebangelioan aitortzen dutenez. Hortik latinak *oste* “etsai” adierazteko erabili zuan. Beraz, buru asko edo *burudia* duen etsaia da *diabrua*. Hagatik buru askodun sugea bezala marrazkitua izan da eta amar buruko sugetzar edo zazpi buruko erensugeak ezagunak dira gure kultura guneko mitoetan. Hala ere, nik nahiago dut bestelako *ainanino* aingeru moten izena, ustez langile eta artetile porrokatu izan zirengatik, eta atsegin zaizkit, betalde, umeok barrabaskeriaren bat egitean, hako amona zaharrak “*ainaninook* halakuok” agirika egiten zigunekoa. Ala gaurdaino iraun duen amona haren euskal oroitzua globalizazioko zakar ontzira jaurti behar ote dugu Satanen edo diabruen garaian?

## 7. Ibarrateko Baradisua

—Euskara Jainkoak gure lehen gurasoi Paradisuan erakutzi-neko hizkuntza dela entzun dut. Hori ere mitoa al da?

—Bai, baina gaizki asmatutako mitoa, gaur egunean beste asko bezala, itxurakeria galanta. Mitoen aldia joan zan, hako iragarpen eta profeziak bezala. Aldiak bete ziranetik eta hona ez dago gehiagorik profetatu beharrik: dena daukagu begien aurrean, aldien seinaleei begira egotea baino ez dugu. Baina, edozelan ere, egoki zaigu mito zaharrak aztertu eta haiekandiko lezinoa ikastea, ezjakinez-edo mito berrien eraginez, pausu okerrik eman ez dezagun.

—Nuntarrak ziran gure asabak? Haien jaioterria ezagutu nahi nuke, halakoren baten eta osterata bat egin haiengana.

—Askok egiten dute turistarena: Egiptoko piramideak eta gainerako templo zaharrak ikusi, Hapi ibaian ugari, Ibarrateko Baradisuz galdetu edo Bagdag/Atakabe “beheko ataka” uriko museuan ostu, Ali Babaren lapurzuloa bailitzan, eta etxera itzuli. Euskara mito biziaren arrastorik ere ez hanartean. Baina Neolitos aldian gure asaben sorteri bat, ametsetako *Baradisua* ibar haretik gertu zegoena, Sumer zan, *Ibarrate* ahoan edo handik Urartu guenera dagoen *partean*. *Parte berde* haretan ikasi zuten lenengoz lurra lantzen eta abereak lanerako eta elikadurako hezten, bada, artean

ehiztari eta frutakien harrapari hutsak ziran, gaurko egunean Afrikako boskimanoak bezalatsu. Neolitos Haroa Sumer aldean sortu zan lehengoz orain hamar mila urte inguru. Orain 5.500 urte, eta Kristo aurretik 3.500 urte inguru, sumeriarrek Ur uri eder bat eraiki zuten *Ibarrate* ibaiak itxasoarekin nasa egiten duen *partean*, *Persia* golko goi-barrenean. Harrilu ondo erreez *uritu* zuten *uria*, euren eukiak eta askatasuna beste herrien erasotik zaintzearen. Uriaren erdian Eanna, An jainkoaren alaba, jainkosari *Zikurata*, Eskalaramendi bezalako *etxe goratua* eraiki zioten tenplotzat, elizgizonak *An* aitari *inoak* abesteko eta elizandreek *Eannari aieneak* eresi eta opariak eskeintzeko, jainkosa arartekoak uria zaindu eta bedeinka zezan. Inguru hartantxe amestu zuten zorioneko Baradisua ere orduko poetek.

—Paradisuko hori bai dela mitoa, gero!

—Horixe! Baina nork ukatu gutariko bakoitzak Baradisuren bat amets duena? Eta mito dirauke gogoz hain jorana noizpait bete daino. Ez dituzu ikusten, oraintxe ere, komunismoaren ondarreran, ekologistek mundu garbiagoa amesten hasi direla? Zaramak erre, keak irazi, uharrak gardendu, ibaiak arrain toki bihurtu, landak araztu, eguratsa osatu, etab. errebindikatzen? Ametsak ala mitoak dira, beraz? Ba, Sumerreko “buru beltzak” ere berdin. Baratzen legortea jasan ondoren, urez joritu eta eguzkiz argituriko Dilmun Baradisua, atsegin baratza, amesten bai-zuten.

—Nortzu ziran “buru beltzak” eta non zan Paradisu?

—Sumeriarrak, euren ustez, An/Anu Jainkoaren unetik sorturiko umeen naza ziran, eta “buru beltzak” deitzen zioten euren buruei, euskaldun batzuk, osterata “buru beltzak” hilarrien eguzki antzeko kirimilo tailutuei deitzen die. Zergatik izango den? Asaben gorantzian, ausaz, asaben azken gorantzia hilerrian gelditzen delakoz eta hilerriko azken itxaropena iduzkiaren harrizko sinbolo haretan. Sumeriarrak trebeak ziran baratz lanetan, hazi aukeratua ereiten eta lurra ureztatzeko erretenak egiten eta asmamen handikoak euren mitoen iraupena indartzeko, hitza toskaz igurdineko oltxoetan idatziz eman bai-zuten. Mitootan Dilmun Baratzea, Ibarrate eta Ategarai ibaien erdiko munoan,

munoak itxasoari marra egiten ziola eta ibaiek, ostera, atal bien arteko *nasan* urak *naasitzen* zituztela, itxasoak ama eta ibaiak aita ordezkatzeko zutelarik. Ibarrate bera dator *Baratze*, *Pardez* hebraieraz, *Paradeisos* gerkeraz, toki *baratxiia* eta alor *beraza* benetan, Euskal Herrian bezala, *ibar parteko* lurra bai-da *faras* eta *ferax>feraz* bai Aramen eta bai Erroman.

—Beraz, ostera ere euskara Baradisuko mitoari lotuta ikusten da. Zertan gelditzen gara? Hori gezurra dela entzun dut.

—Baratzetuko lurrari lotua bai behenipehin, Neolitos Haroa bezala, eta gizakiek jakinduriaz adindu zireneko uneari, hatan ere, eta mito bizia den euskara ezin ziteken uneaz aztu. Sumeriarrek mitook ezeze, jakinduriazko idazkiak, Jainkoari egindako ino eta aiene kantu ederrak utzi zituzten. Inguruko herriek ele bitxiok euren liturgizunetarako kopiatzen zituztela. Baina zelan kopiatu? -dinotse sumeriarrek: “Sumeriera ez dakian idazkari batek zelan alda dezake beste hizkuntza batera”? Eta nik zera esango nuke: “Euskara sakontzen ez duen hizkuntzalari batek zelan argi dezake hizkuntzen jatorria zertan den?” Pot egingo luke, ostera, ere indoeuropeismoa bezalako teorietan. Indoeuropeismoa zer den? Ba, horixe: euskaleuropeismoa ezagutu ezik, euskara bazterreko gela ilunean gordetzen duten hizkuntzalarien teoria utsa.

—Euskara gela ilunean? Eziezaidazu esan holakorik!

—Ez deuat esan kartzelan, toki bazterrean baino, tto. Nola jakingo hizkuntzen jatorria, mitoen jaiotzan bertan lekuko izan den euskara, mito bizia, mitoaztertzeke ezgei direla? Amak daki gu nondiko garen edo gure jaiotzan amakide izan zenak, ez al da horrela? Bopp hizkuntzalariak ahalegin ona egin zuan orain gizaldi eta erdi hizkuntzak gonbaratzen, baina oraingo hizkuntzalariak, Sumeria eta Egitoko aztarrenak agertu eta gero, nolatan egon daitezke metodo zaharrari loturik, jakintsuen “zientzia” jakinduriadun gizakiaren mitoei aurkatzeko diotelarik?

—Euskara gela ilunetik ez dutela atera nahi esan nahi duzu?

—Gela ilunean dagoen artean ez dio inori kezkarik ematen, haren argiak ez du inoren begiko lorik uxatzen, gainera, gela ilunean dago-

enez gero, zerbaitegaitik izango da, bere buruaz ezer ez dakielako ziur, eta bere buruaz ezer ez dakian hizkuntza batek ze argitasun eman diezaioke inori? Baina argia ez da imilaunpean gordeta eukiteko, Europako Unibertitate aulkira jasotzeko baino, eta orduan jakingo dute Europa haurraren jaiotzan nongo amak edo amakidek izena ipini zion. Jo! Baina nori ardura dio gutxiengo hizkuntza batek, European hizkuntzarik zaharrena eta jatorrena izan-ta ere?

—Europako politikariek, Espainakoak bederen, Euskadiri dioten begirunea bera zor diotela Europako hizkuntzalariak euskarari?

—Aiene! Hori larria da! Gizakiaren hiru jakinduria haroak igaro eta gero, euskarak eta bere beste hizkuntza kideak Antxinako Sortzalde Hurbiletik hasi eta Europako lurralde guztiak euren izenez bataiatu ondoren, ba datoz, ez dakit nundiko, Kristo aurretiko milagarrenean-edo indoeuropear deitu jende berriok, gero Bopp hizkuntzalariak Indiako sanskritotik germanikora, greko eta latinetik zehar, halako gonbarazioz ari maxkal batzuren zera susmatu zuela-eta haren ikasleak irakasle, beste teoria barik, paioan gauzkate gizaldi eta erdian. Balekitek, jakin, euskaratik sumerierera edo alderatziz dagoen egitura bereko hizkuntza asmo eta lorpena eta euskarak eta haren kideak grekoari eta latinari dohan prestatuturiko hitz pilaren berri, bestela izango litzaken orduan hizkuntza teoriaren asmakaria.

—Ausaz orduan euskara, Europako hizkuntzarik zaharrena, Europako Unibertsitatara jasoko luketela uste duzu?

—Edozein aiton-amona, burua argi dueno, bere memoriak idazteko edo kontatzeko gai da eta zaharren maisutza kontuan eukitekoa. Berdin hizkuntza zahar honen jabe zarenok eraberri-tu egingo zenukete Europako Linguistika zaharkitua, berkolonizatu haien jakinduria amotza, gure asabek Neolitikoan zehar egin zuten bezala. Haiek, hasi Sortzalde Hurbiletik eta itxasoz eta ibaiez, Mediterraneoko *atalasa>thalassa* behetik zeharkatuz eta *Osin>Euxino* itxasora datozen ibaiez zehar goiak hartuz, euren orube berritatzat aukeratu, jendeztatu eta, halatan, *Orube>Europa* izendatu zuten. Euskara ez dela bere jatorriaz jabetzen? Europa da bere izenaren berri ez dakiena.

## 8. Gizakia jakitun zela jakin zuenekoa

Sugea omen zan Baradisuko pistien artean maltzurrena. Sugeak esan zion emakumeari: “Zer dela-ta esan dizue Jainkoak baratzeko frutuetatik ez jateko?” “Ezetz? Zuhaitzetako frutuetatik jaten dugu -erantzun zion emakumeak-, baina baratz erdian dagoen zuhaitzetik jatea galazo digu Jainkoak, bestela hil egingo garela”. “Bai, zera! -erantzun zion Sugeak emakumeari- Ez zarete hilgo, Jainko haina izatera heldu baino”. Hagatik esan ohi da sugeak atzipetu zuela emakumea.

—Emakumea tuntunagoa delako, gizona baino.

—Aizak, Adapa gizonezkoa huan eta ustez jakintsua, bada, jainkoek halako argitasunez dotoretu omen zuten. Jadanik hilezkorra zela eta bera ez zela hilgo uste izan zian. Lilura hutsa izan huan, bada, benazko auzian jainkoek hataz zera ebatsi zuten: “Adapak guk emaniko jakinduria gauza hoberako erabili ez duenez gero, ez da gure zerurako gei eta lurrera egotxi dezatela”. Zati bat geroago, Indiako Buda, hako Adapa, arketipoz itzulikatua bezala, jakinduriaren bidetik abiatu zan jainkoen mendirantz, baina herrien siniskeraz eta iduripenez landa ez dakigu haren geroztiko berri.

—Eta Kristo ere bai, gizona zan et zerurantz desagertu zan eta ez dakigu haren berri, gauzak horrela planteatuz gero.

—Baina Kristo ez zan giza jakinduriaz berba egitera etorri, ez eta bere kabuz, Aitaren esaneko baino. Ebanjelioa irakurtea baino ez duzu. Kristo Jainko Seme lez agertzen da, bere anai-arreba gizakien alde bizia ematen du eta hagatik, Aita Jainkoak hilen artetik biztu zuan gizaki guztion aurrelari. Hagatik kristauek “gurutzaren jakinduria” deritzaie Kristogandiko jakinduriari, lagunekatik bizia ematea baino maitasuna handiagorik ez dagoelako.

—Eta ze jakinduriak egin gaitzake, beraz, hilezkor?

—Hor dago, ba, koxka. Jatekoa al da Baradisuko frutu hori ala edateko jainko-jainkosen sagardoa? Baratzetiko janari edari guztietatik jastatu dugu, baina jakinduriaren ardaotik edanez gero,

orduan konturatzen gara Adapa jakintsuarekin batera “izan ere jainkoek jakinduria eman zioten gizakiei, baina bizitza hilezkorra eurentzat gorde zuten”.

—Adapa esan dozu? Nik Adan eta Ebarena entzun dut.

—Kontuan hartu Adaparena Adanena baino bi mila urte lehenago idatzia izan zela. Gizakiak abere urrumak eta hotsak alde batera hutsi eta jainkoekiko itunbenean arteziako hizkuntza asmatu zuan. Hanartean abereak, bere senaren morroi, marrusika jarritzen zuan, gizakia, ostera, “esan eta egin” artezira, jakintzako hitzaren jabe egin zan, Enkidu bezala.

—Nor zan Enkidu hori?

—Enkiduk hasieran abere basatien bizimodua zeraman: ez zan janzen, ez zuan lanik egiten, abereen modura jaten eta edaten zuan ibaitik. Behin Uriko neska bat ezagutu zuan, neskak Urira eraman zuan eta hango aurrerakuntza erakutsi zion eta Gilgamesen lagun egin zan. Uste dut, hein batean, gaurko eta oraintsuko baserritar seme-alaba askori beste hainbeste gertatu izan zaiela kalearekin. Behin baserritik kaleraz gero, gurasoen kultura eta siniskera alde batera utzi dutela, “horreik dena dakie. Ezinekoea da horrei ezer erakustea” gurasoek kexu izateraino. Gurasoen kexu honetan Jainkoak Adani eta Ebari, Baradisua galdu ondoren, jaurtin ziria susmo dut: “Ikusten duzue hemen gizakia geure antzera jakitun egin dela?”

—Zenbat Jangoiko ziran, ba, horrela berbetako?

—Bakar eta Hirukoitz nonbait, elkarrekin erabakitzen bai-zuten sorkuntza lanean edo gizakiaren zoriko arazoetan. Egik Jainko familia dela. An jainkoak ere Enki bidaldu zuan mundura gizakiei lanean erakustekotan, batez ere uraren indar usuak mainaz aztertu eta egokitzeke, ugoldetik eta legortetik ihes egin zezaten. Nola uriak ur ondoan eraiki, baina kalean sartzen eragotsi, soloak nola ubidez udezkatu, lurra uraren oldarrak eramateko arrisku gabe. Ordutikoa duzue ziur hako atsotitz zaharra: “ura eta sua morroi onak, baina nagusi txarrak”. Eta harrezkero *emky* izenak “jakin” esan nahi du sumerieraz.

—Jo ba! Sumeriera horrek ba du euskaren antzik.

—Edo euskarak sumeriarena. Hagatik lehen jasoak eta lehen esaneakoak balio digute gaurko gizakion jakinduria ornitzeko. Bada, gizakia gaur ere abere mailan jaio ohi da, berezko senaz abereak baino atzeratuago datorrela. Abereak jaiotzetik bai-daki bere seneko izaten. Gizakia, ostera, eskola gabe ez da gizarte heinera egiten, hagatik, kalera orduko, edo ikasketak amaitu orduko, edo atsotitz bat ulertu orduko, “dena dakiten” gazteetariko asko gero erraz jausten dira bideko lakioetan.

—Zer da atsotitza?

—“Atsoen hitza”, ots, antxinakoen jakinduria, ahozko esakera laburretan bildua. Kultura batzuk, Sumer eta Egiptokoak adibidez, idatziz eman zuten euren jakinduria, mitoen jarraipena bezala. Erauskinetan gorde ahal izan da apurren bat, oltxoetan idatzia. Idatziaren ikuturik izan ez dugunok, euskaldunok bezala, asaben esakeretan gorde ahal izan ditugu atsotizetan “kalean uso, etxean otso” adibidez, baina beste jakinduria asko hizkuntza artezi diren hizkUNETAN gordetzen dira eta geuk ikertu beharrekoak dira.

—Zer da hizkunea edo zeintzu dira hizkuntza arteziako hizkuneok?

—Hizkunea ahozko hiztegia antolatzeke behein-behineko eta perpausen aurretiko mokaua da. Hitz parekideak elkarren ondoran jartzeko artezia da. Monosilabismotik hara, euskaldunek hizkunez elkar ulertzen zuten, *Inu/ino*, *Utu/otoi*, *Ilu/iole* ohiuskoe-tan bezala, eta berdin hitz aglutinatueta, *manatu/mainatu* esate baterako, manatzen duenak, mainatu ere egin ohi duelako, edo *mentu/mendu*, mentu onak mendua bai-dakarkio eskolatzen denari. Arketipo bakoitzak bereak ditu eta *atton/atün* berdintzean, aitonak atün edo aztura handia duela esaten du. Hizkuneak “berdinketak” ere deitzen dira Sortalde Hurbileko jakinduria aztertu dutenek, *Enki/emky* adibidez “Enki/jakin” dinona edo *arkhe/argi* “errege/argi”, bada kalitateok berezko zituzten pertsonaiok. Artezi berdinez esaten dugu *kide/gida*, edo *gaizto/gaixo*, *benaz/penaz* edo *sanatu/sandu*, hizkuneon bidez, beste lokarri gabe, hizkuntza komunikagarri egiten dela. Esakerotan hitza eta edukina iturri bereko ondare egiten dira, batak bestea bereziko

lokarriz dakarrela, *itaun/itun* bezala, itauntzen duenak ituna edo aholkua jasotzen bai-du. Baina iturri bereko emoitzak aurkakora ere jo dezake: *itun/isun* dinonak legezko aholkuak esku beretik zigorra ere ekar bai-dezake, edo *gailen/galen* aurkako egin dituenak bata bestearen ondore direla salatzen du edo *zendu/zaindu* arteziak, asaben siniskera gogoraztzen: hilak santuen lerroan jartzten bai-zituzten, *behatu/beato* kidekoetan bezala.

—Momolotu utzi nauzu kideko edo denadelako hizkirimirioz.

—Filosofia merkeagoak momolotzen ditu beste asko edo uskerien literaturak. Hitz politikak bai, baina hitz hoien edukin jatorra urretik ere ezagutzen ez bai-dute. Altxorraren gainean bizi direnen pareko dira: ez dakite altxorra dutena etxearen oinarri.

—Orduan euskara mito bizia ulertzea gure asaben jakinduriara hurbiltzea da.

—Ederto esanda. Izadiko une bakoitzak jakinduriaz beterik dago eta euskararen hotsak arketipoetatik ahalik zehatzen jasotzen eta analogizatzen dute jakinduria ixuria, beraz euskara mito bizia ulertzea izadiko jakinduriara hurbiltzea da, gizarteko jakinduriara bezainbat, nahiz eta hemen, beste alor askotan bezala, zera esan behar: “dakianak daki eta ez dakianak baleki” eta euskara jasarrituagoa izango litzateke kalean eta Unibertsitatean.

—Baina zelan hurbilduko gara, inork erakutsi ezik?

—Jarraitu hizkuntzaren xedeari, eskatu arketipo bakoitzari adimen, zentzu eta esapideko adibide bakar bat eta emango dizue: *mentu*, *mihin*, *mintso*, *An/Ino* arketipoaren *imusinora mintzatu-ta*; *adimen*, *adikune*, *adibide*, *Uturen hotsera deituta*; *aieru*, *irudi*, *errana*, *Erraren eroiura iragarrita*, eta *ulermen*, *elpide*, *ele*, *Iluren laudara ulukatua* eta euren heineko “emky”, *eduko sogi*, *ereduko argi* eta *legezko lehiatsu* izango zarete izadiko jakinduriari dagozkionetan. Eskatu beste hainbeste giza arketipo-ei eta erantzungo dizue: *gardi*, *keinu*, *galde*, *Ka* arketipoaren *galderara*; *bulko*, *abots*, *berba*, *Baren abezera* eta *asmamen*, *zentzu*, *esan*, *Asaren santzora* eta euren *kideko gurbil* edo *bezala bizi* eta *jaseko jakin* izango zarete gizabideko jakindurian.

—Baten oihartzuna izanez gero, jakindurian ziur NAHIKO batera helduko nintzakela eta oporretan, berriz, BIKAIN ere lortuko.

—Ez da, ordea, nahiko abotz soilera abestea. NAHIKO bategaz ez da jakinduria mailara heltzen. Euskal koruak armonika askotara abesten du. Abotz batzuk emeak dira besteak ozenak, ba dira ume aieru eta gazte irrintzi edo helduen aholku direnak. Hoiek denak egiten dute herriko korua eta euskararen zazpi hoskerak, pentagramako notak bezala, gora eta behera abesten dute eta zeuok zarete haren abotz eta ahoak.

### 9. Neska izan nahi zuen mutila

Mutil bardingo batek aztoratu xamar zinostan behin etxean amak eta ikastolan andereñoak agintzen zutela eta elizan baino ez zuela entzuten “gure Aita zeruetan zerana...” “Eta hire aitak non agintzen dik, ba?” -erantzun nion. Aita kamionerua zuela aitortu zidan-. “Orduan hire aita errepideetan dabilzaten errege horietariko duk, e?” -esan nion eta parre egin zuan mutilak-. Ba, horixe: aita hortik zehar dabilen artean, amak agindu behar etxean. Berdin ikastolan, irakasle gehienak andereño direnean. Izango duzue arpegian bizarra duen irakasleren bat ere -gainera-tu nion mutilari, arazoa erdigunera erakartearren- edo zuen elizan ez al duk emakumeren bat irakurgaia egitera-edo aurrertzen denik?” Jakina, ba.

—Zera ere entzun dut: Jainkoa Ama ere izan daitekera eta ez Aita bakarrik.

—Nahi dukan bezala, txo. Ez al duk irakurri harako “Jainkoak gizakia bere irudiko sortu zuena: gizakume eta emakume egin zituen” liburu santukoa? Beraz, gizona-zoari bere Aita irudia eta emaztekiei Ama irudia ezarri zien. Irudia edo dohaiak edo izakera esateko. Hagatik euskara mito biziak arketipo bikoitza erabilten dik eme eta ar izakundea bereizteko: *An* “zerua” amaren heina ordezkatzeko eta *Utu* “iduzkiarena” aitaren edua. Ez al duk ikasi *no* eta *tto* izenordekoak *noka* eta *ttoka* adizkera ere ematen dutena? Ba, sumerierean bezalatsu. *An* eta *Utu* arketipo biok *Antu* izena

osetzen ditek eta izena duen guztik izana dik. Eta *Antu* huan *An* jainkoaren emazte jainkosa. Berari zegokiok, bere arketipoko amei, Jainko seme-alabak mundura ekartea. Ama bere etxean zegok zeruan bezala, aita, berriz, eguzkia antzo, hortik zehar zebilik ibilian, munduan jiraka, gauak bakarrik etxeratzen duela.

—Eta orain zergatik ez dago jainkosarik?

—Hara, neska! Jainkoa materiaren egile denarren, bera espiritu hutsa dun, beragan ez zegoen sekxu ganora fisikorik, beraz “Jainko Aita” dinonak, “Jainko Ama” ere esan dezake alde hortatik. Jainko antza duen gizakiengan, ostera, funtzezkoa dun sekxu ganora eta alde hori arketipo berezien eratan nabaritzen din euskarak. Hagatik, gure asabek, jainkoen betiko bizia lortzekotan, jainko eta jainkosekin ezkondu nahi izan zutenan.

—Aibala! Baina hori ezina da-ta!

—Gizakientzat bai, baina Jainkoarentzat ez diagon ezinezkorik. Jainkoa bera izan hunan gizakiengan gurari hori aurretiaz sortu zuena, Jainkoa bera ere gizaki izan asmotan zebilelako hasieratik. Eta gizakia jakinduriaz nahiko adindua zegola ikustean, mezularia bihaldu zunan Nazaretoko neskatxa batengana eta badakin, Jainko Espirituak antu zitunan neskatxa haren erraiak eta, horrela, Andre Mariaren erraietan ezkondu zunan Jainkoa gizakiarekin. Harrezkero Jainkoarekin ezkondu nahi duenak hor zeukan senargai Jesus, Jainkoaren Semea, hainbeste monjak-eta aitortzen duten bezala. Hori ere mitoa al dun, ala fedea? Gizakiaren gurari biziak ez zitunan amets ezina gertatu eta gure asaben hizkuntza osatzen zuten arketipoek ere ez zitunan hutserako izan, profeten susmo eta hitzak baino.

—Eta *antu* izenak zer nahi du?

—Ba horixe, txo: *antu/handi*, *antu>ancho* hizkunez. *Antu* zeri-txoan *An* jainkoaren emaztea. Ez al duk ikusi umegiteko dagoen ama *antu* egiten dela? Euskara mito bizia ikasi behar duk. Hagatik Iturengo neskatxoak Erregina oso *antuaren* edo *handiaren* inguru agertzen dituk Maiatze ospakizunean. Egipton Maat zan, Erra jainkoaren ama eta jakinduriaren jainkosa. *Maat>maite* datorke, eta

beraz, *maite* aditza beragandiko analogia dun. Sumerreko Dilmuan itxasoko uinak ordezkatzan ziten ama eta ibaiko udak aita.

—Guk “itxasoko olatu” eta “ibaiko ura” esaten dugu.

—Ederto, neska. Euskara mito biziak zazpi arketipo zetin, eukitez, baina nik unean uneko, *An* eta *Utu* arketipoez ari naun oraingoan, *uin* eta *ud* aipatzean, *eudi* ere esaten dun *euri* ondoan, eta horrek ez din esan nahi batzuren ahozkeraren besteena baino totelagoa denik, arketipo ezberdinen hautapena baino. Ikus, ezpaere, zeruko *uinek* eta itxasoko urek egiten duten egi unearen zabalera eta hartzen duten margo *dundu*, urdina eta urok dakarten arrain pila, eguzkiak, ostera, zeruan zehar dabilelarik goiko *udak* eta beheko urak ornitzen *sortzen* dituen *ostarku* eta *ostotsak*, goitiko *udak* askatuz, mendiak *edurrez* eta haren erraiak *iturburuz joritzen* dituela. Ekintzok *Utu* jainkoarenak dozan, eta hagatik, euskara mito biziak haren arketipoz deitzen ziren Uturen sorkariei.

—Ez dut uletzen uren edo uden arazo hori, ez eta uinena edo olatuena ere, sinonimia larregia deritxat euskara ikastera datozenentzat eta nerau eta nastu egiten naute.

—Hi haiz mutila, arraietan! Eta euskara mito bizia ikasi nahi dutenentzat zer? Hik ez duk ikasi biologian bizitza uretatik sortua dela? Hik ez duk ikasi ibaiko udak garbi joan behar dutela itxasoko uinetara, bion nasteak arrantzua ugaritu al dezan? Arrainak uren nasara etortzen dituk arraba uztera eta *nasa* garbi dagonean *nasi* sortzen duk arrainen *naza* berria. Bai, orain liburuetan eta telebistako azalpenetan argiro ere ikusten duzute, baina itxas marrako sumertarrek Dilmuko une-unean ikustetik hara osatzen zuten euren jakinduria. Ez al duk entzun izadia liburu idekia dela? Lehen eta orain, txo, antxinako izadi-jakinduria eta gaurko gizabide-jakinduria. Esaiek ekologista anai-arrebei ezpaere. Izadi jakinduria aztutzen den neurrian gizabidekoa berakan zijoak eta uren/uden gardentasuna zikintzen den neurrian, ostera, arrainen askazia ere galdu egiten duk.

—Izadia da, beraz, gizadiaren eskola eta abereak gizakien maisu?

—Hein batean, tto! Ez al duk inoiz entzun “abereak ere ez luke-

te holakorik egingo” bezalako esakerarik? Baina, astiro! Izadia eta gizarteak, biak dituk gizakien eskolak. Izadiak lezio orokorra ematen ziguk dohan denoi eta gizarteak bakoiztuago, nori bere mailan, gurasoak eta ikastolak eta kaleak dohan edo ordainduan. Arazoa begiak adi eta belarriak zuhur eukitea duk, jakindurian adindu eta jakintza mailak burutzeko. Abereak, basapistiak bederen, aske izaten, bizibidea bilatzen, umealdiak begiratzen, etab. erakusten zigitelak, baina hortik gizabidera aldia zegoak. Abereak ile pare batzutan, batzuk goiztar besteak beranduago, bizitza burrukarako prestatzen dituk, mutiko eta neskattoak, ostera, zenbat ohar entzun behar, zenbat zapata apurtu behar ikastolara bidean, bizitzari aurre egiten ikasteko! Eta zenbat esne zurrupatu eta zopa jastatu behar amaren eskutik hasi eta gero ere.

—Ba, antza danez, euskal abizen asko abereen izenetik datoz, hala nola Otxoa, Euntza, Artza, Usana, Ursua, eta...

—Osa Mayor! Ez diat ukatzen gurean ez dela aberekeriak esan tokiezen-abizenak aztertzean. Gure asabek lurra deskribatzeko, jainko eta giza arketipoetatik bilduriko hotsez asmatu zituzten tokizanak. Abereengandik edo landaretzatik datozela esatea ere! Jakina, Jainko arketipoek izadi guztia oratzen dutela eta eurretan aberedi eta landaretza ere, baina ereduak ez duk egunoko abere-izena, jainkozko eta giza arketipoa baizik, itxura bateko soinu antza edo-nundik sor baledi ere. Ala hik xamur jasango al henduak inork “tximu arpegia duk-edo” esaterik, eta ni neuk ere ez diat entzun gizakiren batek otso eta artza izan gura zuelakorik, baina bai inoiz mutilskoren batek neska izaterik, zeren biak, mutikoa eta neskattoa, ama eta aita bezala, Jainko irudiak izanik, eta, beraz, bata baino bestea ederrago, *An* eta *Utu* arketipoez izentatzen diren: *ama*, *no*, *amon*, *onua*, *amatu*, *umoi*, *antu*, *handi*, *ume*, *maite*, *nahi*, *nahitu*, *aina*, *antz*, *antzi*, *enoiu*, *anoi*, *inutu*, *mandatu*, *mantenu*, *emarazi*, *mende*, *mentu*, *manu*, *maniatu*, etab. Guztiok amaren mainak dira arketipo bezala, *aitaren eitekoak*, berriz, *idea*, *tto*, *txo*, *otu*, *otoi*, *aton*, *aitatu*, *aitortu*, *adore*, *atoratu*, *otatu*, *osartu*, *tutore*, *duin*, *dotore*, *zuhur*, etab. *edukoak*. Euskararen jakinduria arketipoen hotsera soinutzen denean ez du esan nahi *antzak* eta *eiteak* ez dire-



la elkarren komunikagarri zenbait analogiatan.

—Bakoitzak bere parteaz konformatu behar orduan.

—Ondo esana! Bere zoriaz eta eginkizunaz. Konformatu, apreziatu eta bakoitzak berea urgazi, beti ere aurreko ereduari halako harrotasunez begiratu eta Jainkoaren antza batabesteengan ezagutzuz, bai lagunduz, behinolako zorion Baratza gaurko munduan amestu eta landu ahal izateko. Zuen bizitza loretzen doalarik, ez delakoan ere, asaben antxinako asmoak errepikatzen bai-dira zeuengan eta euskara mito bizia bera duzue jakinduria honen lekuko.

### 10. Jainko izan nahi zuen gizakia

—Eta zilegi al zaio mutil bateri neska izan nahia?

—Eta zilegi al zaio gizaki bateri Jainko izan nahia? Norbere iza-kera hobetu nahia ez dut uste gaiztakeria den. Gizonezkoak jainkosekin eta jainkosak gizonekin eskontzea bezalako irrikak nahiko arruntak dira mitoetan. Beraz, hirugarren galdera egin beharko litzateke eskubideon eremuan: zilegi al dute jainko-jainkosek gizakiekin eskontzea? Holako itaunketaz heldu ahal izango dugu, ausaz, itun egokia. Zilegi al zaio erregeari mirabearekin ezkontzea?

—Bai, horixe! Errauskine hako printzearekin ezkontzea bezalako ipuin polita ezeze, klase burruka eztitzeko bide ona izango litzateke.

—Errauskinek andre zintzo eta apal irauten duen artean bai. Baina Errauskine goratua printze-herriko neska apalez lotsatuko balitz, eta printze-herrian printzeak berak beste edo beraren gainetik agindu gurako balu, herriak ondo ikusiko luke? Halako eztabaidetan ziharduten Sumerreko Inana jainkosa eta Dumuzi unaia. Inana jainkosa, An jainkoaren alaba izanik, halako mainaz aitaren eskubideez jabetu bai-zan, Dumuzi unaia, ostera, gizaki hutsa eta, beraz, hilkorra. Ba zintotson orduan Inanak Dumuziri: “Eskerrak neure neba Uturi haiz hi haizena, bestela kale gorrian lo egin beharko hendukek”. Dumuzik ezetz: “Ni Ba naun Uturen duin eta kito”. Eta, elkar maite zirenarren, horrelako asarreak izaten zituzten jainkosa eta gizakiaren artean.

—Eta zer esan nahi du Dumuzik edo zer gertatu zitzaion, Dumuziri?

—Agian *Utu+musu>Dumuzi* dator, beraz “Iduzki musu” esan nahi du. Ez dinotsa, bada, bera, Inanari “ni ba naun Uturen duin eta kito”? Askotan entzun dugu, bestalde, norbaitez “hori euguzki arpegia daukana” eta holakoak. *Dumuzi*, hala ere, heberkeraz *Tammuz* agertzen da eta alde honetatik ondo *damutu* eta *damuz* hiltera edo kondenatua izaten zela urtero eta behin Uztaileko agortez gero, ez zuelako arnasarik eta iburnira jatxi behar izaten zuela. Dumuzi grekoentzat Adonis zan, zori bereko giza jainkotua, hagatik Inana jainkosaren negarrak oroitzuz, negar egiten zioten erostariak San Donis edo Donienetan. Dumuziren zoria landare-tzaz erne eta lantzaretzaz igartzea bai-zan. Orain bada, zuzen ete zebilen “Utu musu” Dumuzi Uturekiko usteetan? Zera! *Utu* iluntzean *itto* egiten da *itxosoan* edo *otsi* mendi *ostean*, baina goizoro hor *itoitzen* eta *xut otara jotzen* da, *ostera* ere, eta *Utu udaberrian*, bizia *soldutzen* hasten denean, Dumuzi bera ere Iburniko ilunpetik *soltü* eta *osatu* egiten du. Arrazoia, beraz, Inanarena: “Hi, ezer izatekotan, eskerrak neure neba Uturi”. Bestela ondo: Dumuzi bizi epera egina zegoenez gero, zoriontsu ziran udaraldian Inana eta biak. Besterik izango zan Dumuzi, lar harrotu eta An jainko aitaren mailara igotearren, arramantza jo izan balu.

—Matxinada esan nahi duzu? Pentzau ere egitea, ena!

—*Kingu*, giza jainkotuak, pentzatu eta egin egin zuan, ordea. Batzuk ezkontzaz uztiatu nahi izaten dute bere bizitzako kapritxo guztiak betetzeko, eta maiz puztuaren puztuz estanda egiten gero. Kinguk *gueneko* ahulkia nahi izan zuan beretzat, bera *guena>kina* iztekotan, ots, “punterengo”. Toponimia guztia dator eratorria frogatzen: *Goiena>Guena>Kin* bezala, hala, adibidez, *Markoena>Markina*, *Ibarguen>Barkin*. *Kingu* errege ere izan ziteken eta *king* esaten jarraitzen dute ingelesek gaurdaino.

—Euskara ingelesetik datorrela esan nahi duzu?

—Bai, zera! Hizkuntzen jatorria ez dator Ifarretik Hegora, Sortaldetik Sartaldera baino. *Kingu* erregearen mitoa babiloniarra da eta babiloniarrek Sumer eta Akadiako oroitzak jaso eta

egokitu zituzten Marduk euren erregearen izendapen ospakizun bezala. Harako hartan Tiamat, jainkosa itxasoa, aserre zebilen, jainko gazteek Ap.su senarra erail ziotelako, *Mummu*, haren aholkularia, *momoak* hartu zueneko baten. Orduan Tiamatek *Kingu* gizakia beretzat eskondu, tituluak haren samatik eskegi eta esku zabala eman zion Hubur iburni eta itxas aldeko amatar erreinuan eta, hareago, berarekin ezkonduz, Anu jainkoaren *gingara* goratu, eta haren heina *gainartzeko* gudalburu izendatu zuanean. Zeruak ikaratu egin ziran eta Ea aholkulariak, Marduk, jainkoetan jakintsuena, aurreratu zuan Tiamaten aurka.

— Jainkoek jainkoen aurka? Ea nola izan diteken hori!

—Ea dinostak? Hori duk, izan ere, babiloniar jainko gazteen arramantza jo zuen jainkoren izena. Harrezkero eusakarak ohiu bezala darabil galdetzekoan eta agintean kina handiagorako -ea jartzen diote atzizki “atozea” forman bezala. Bestalde lurreko familietan ikusten zituzten gertakari asko egozten zien jainkoei ere eta familia berean semea aitaren aurka eta alaba amaren aurka edo seme-alabak elkarrekin burrukan ikusten dira maiz, erentzia dela-ta? Baina jainkoen burruka argitzeko euskararen oroitzari galdetzea baino ez dugu, hako gertakarien lekuko izan zelako bera. Nonbait euskaldun batzuk ere, ez dinot, Utu edo Erra jainko goitarren eredutik pasa eginik, baina bai euren neurriko *egia* asmatzekotan, *Eki* edo *Egu* giza arketipoko Eguzki-jainko hurbila aukeratu zutela eta, *Kingu gingara* bezala, agian *Ekain/Eguen* halako *gaineriaz*, *guenera gaindituz*, beste jainkoei *gaina hartzeko* irrikarik izan zutela, uda urtemugako ilea eta asteko egun bat ere berari eskeini bai-zioten.

—Urtzi ere ba izan omen zan, ba, euskaldunen jainko.

—Bai, hala zeritson, *Horus*, Erraren lobaso jainkoari. *Oro ero-soak* izan ziran egitiarren kulturaren lobaso honen *haroak*. *Horusen Hautzaro*, *Hertaro* eta *Erraldoitzaroak*. Ezagunak ditugu *Erio* eta *Eroi* haren mitoak, *batak*, *eroriaziz*, *ortzi* eta *besteak errukiz erosi* egiten bai-gaituelako. Hagatik grekoek *Eros* dute gogoko, erabat *erosla* eta *eroa* denarren. Handik ditugu gure *Iruzki* eta *Erkingu* haren ondorengoak ere.

—Eta Ekain edo Kingu jainko horretaz zer izan zan?

—Ekain ondorengo Ekaingo denez, Ekaingo>Kingu datorke. *Ekaina*, behin *gaina* joz gero, gainbehera doan bezala, Kingu heriotzera epaitua izan zela. Orduan Tiamat itxastarraren soin erraldoiaz sasta-sasta xerra handi bi egin zituan, arpoin-lariek baleaz antzo, bata zerura eta bestea itxasora egotzirik eta Kingu jainkotxoari burua moztu zion eta, Earen aholkuz, haren odolaz buztuingia oretu zuan bere eskuez eta bustingi haretatik gixa berriko gizakia sortu zuan.

—Baina bustingi hori ez zan ba Bibliakoa?

—Giza soinen sorkuntzan eta heltzegilearen irudia Biblian baino mila urtez aurretik erabilia izan zan Sumerren eta Egipton. Babiloniako mitoak Kingu giza jainkoaren odola gehitzen diola sorkuntza berrian, bada “batek hil behar zuan, besteek salbatzeko” dino *Enuma elish* poemak. *Marduk* erregeak jainko zaharren *An+Ra-Utu* izenarekin *mardotu* zuan bere izena eta haren beste titulo asko beregandu zituan. Titulook sumerierazkoak direnez gero, babilonieraz aldatzen ditu idazleak, hala *Irkingu* “Kingu eroan zuena”, *Gibil* “Tiamat harrapatzeko *gibilia* asmatu zuena”, *Asaru* “Azaroaren herria sortu zuena”, *Gixnumunab* “gizakia bere *muneko* egin zuena”, *Lugalanna* “erregeena”, *Pagalguenna* “jaun *guena*”, *Baratzakuxu*, etab.

—Baratzakuxu? Hori “txorimaloa eta bera da-ta!

—Horixe, *baratza* zaintzen duen *kusua*, oficio bera zuean nonbait Marduk erregeak herrian. Kristo aurretiko bi milagarrean babiloniarrek ia ez zituzten ulertzen hitzok, azaldu ezik, eta euskara mito biziak kolpean ulertu ditu, ez hitzaren berdintsuagatik bakarrik, bai eta gonbaratzeko eta josteko darabilan gramatikagatik ere. *Gixnumunab* dela? *Giza+Anu+mun+be*> “giza Anu *munpeko*=Anuren *muinpeko* giza”. Hala aitortzen du *Gilgames* poemak ere, gizakia Anuren uneko edo muineko dela. Marduk errege jainkotua ere Kingu jainkoren odolaz baliatu zan, gizaki berriaren sorkuntzan.

—Eta Kristoren odola ere Jainko odola al da?

—Mitoak horixe dauka: asabek aspaliko ametsez irrikatzen zutena bera aldi berriko oroitzak eta fedeak geuganaino erakarten duela, askok sinisten bai-dute Jainko Semearen odolaz erosiak eta gizaki berri eginak izan direna eta, hareago, “nere odola edaten duenak ez du heriotzarik jasango” berak esana itxaro dutelako.

—Baina, nola diteke hori?

—Bere garaiko judeguk ere galdera bera egiten zuten, ez zioten sinistu Kristori, eta ez da harritzeko gaur judegu ez diren askok ere beste hainbeste egitea. Hori fedezko misterioa da, eta Kristoren Espiritua nora, sinisteduna hara. Espiritu berak jardun izan zuan aurretiaz mitoetan-eta dabilen herrien jakinduria eta gizakien jainko izan nahia orekatzen. Baina Kristo ez zan jarki zeruaren aurka, Kingu jainkoaren giza, giza arketipo bera aurrizki duenarren. Kristo bere Aitaren esaneko etorri zan eta gizakien eroskunde eta zeru-lurren bakerako zirenak bete egin zituan, bada, idatzita dagoenez, bataren harrokeria bestearen apaltasunak garbitu behar zuan.

—Eta mitoa ere sinistekoa al da orduan?

—Mitoa ez da sinisteko, baina ez eta ere arrazionalista pasatuak bezala gorrotatzeko ere. Mitoa asaben sinisgaia da eta aldi bateko geriza desagertu egiten da, gerizadun pertsonaia aurrean dugularik. Baina Jainkoa bat eta berbera da mitoen garaikoa eta Kristoren garaikoa. Jainkoak beti ere entzuten duela otoi-tza, baina erantzunetan noizbait erantzun betea eman zuela bere Seme Erosleagan. Haraz gero ezin daiteke inor mitoaren gerizan izkuta, jakinduriari ezin diolako inork argirik uka. Euskarak, hain poliki eman ere egiten bai-du Inko eta Kingu jainkoen artekoa: *-ko* gizatasuna *Ino* zeruari aurre hartzea edo gailendu nahia ogentzat eta galpentzat ematen bai-da. Hona, bada, euskal jakinduriak mokau finean emanda: “*gailena/galen*” hizkunea.

—Eta zer esan nahi du horrek?

—*Gailendu, galant, gailen*, gainartu, gainditu, “ganar” dino alde batetik eta giza arketipo bereaz *galdu, galen, galarren, galpen*, bestetik. Gailentzen dena galdua izango dela, edo bestelaz esanda,

“harrotzen dena apaldua izango da, eta apaltzen dena, goratua”. Antxinekoan jakinduria hau Ebanjelioak ere errepikatu egiten du Kristoren ahotik. Gizakiaren harrokeriak, Kingurenak bezala, galpena ekarri bai-zigun, eta Kristo giza Jainkoaren menpetasunak, osterara, salbamena ekarten die, hagan sinisten dutenei.

### 11. Galarren galgarria

Inoiz edo behin asarreraino gogaitu ahal izan dituzue zuen gurasoak. Nork ez du egin inoiz halako barrabazkeriarik! Gero aitaren asarrea ikaragarria izaten zan, edo amaren zigorra mingarria. Ala ez ete gaitue benetan maite gurasoek edo, aldiz, ez ete ditugu egiaz maite aita eta ama? Zergatik, beraz, aserreok?

—Iskamila ateratzen dugulako.

—Eta aita nekatuaren lokuluxka galazo, ez ala? Eta amets gaiztoak iratzartu bailuen, aita jagi eta haren betagaina bere agirika edo, agian, koskorrekoren bat ere. Holakoak gertatzen dira, bada, gizakiek asmatu-mitoeetan eta jainkoak ere ez ziran libratu halako aserretik. Esate baterako, Eufrates eta Tigris arteko ibarratean. Ur urikoen ustetan, Ubar-Tutukoaren iskamila eta arramantza izan omen zan uriola galgarriaren errudun, Ubar-Tutukoek, osterara, Nippurrekoen arrabotsa izan zela zinoen. Eta jainkoek batzarrea deitu zuten orduan eta zigorrik handiena agindu. Antu edo Nintu ama alperrik tartekatu zan bera eta Anu jainko aitaren artean. Alperrik amaren negarrak. Hala ere, Enkik txistadea egin zion ahopetik Ubar-Tutuko Ziusudra erregeari. Azkenean Enlil bekain handiko ordezkariaren erabagiak aurrera urten zuan. Urta Enlilen zaldizaina, Ugui jaun iturzaina eta Iguiku, haren semea behingoan prestatu ziran Enlilen agindura. Anartean Ziusudrak, Enkiren esanera, uretako untzia gertatu zuan isilian. Anuren zerua ilundu zeneko, Nergal Iburniko erregeak zeruko ugateak ideki zituan eta ugoaldea turrustan hasi zan gotik behetik dena ondatu beharrez eta zazpi egunez eta zazpi gauez ater gabe. Orduan Utu eguzkia azaldu zan Erkinguan eta bere ostargiko zubitik urak iragoten hasi zan. Ziusudrak untziko lehio handia ideki zion Uturi. Utuk lehiotik sartu zituan bere dirdirak eta Ziusudrak

ahozpez gur egirik, idia eskeini zion opariz iduzkiari. Horrela Utu iduzkiak Ziusudra ugoldeetik salbatu zuan.

—Ugoldeetik salbatu zenari ez zeritson, bada, Noe?

—Ez, baina Ziusudrarena milaka urte lehenago izan zan eta ni haretaz esaten dena eta orduko izenekin dihardut, euskarak izen zaharrak hobeto ulertzen dituelako, geroago Biblian kontatzen direnak baino.

—Ze izen eta ze Biblia, baina?

—Adibidez: *Utu, Ubar-Tutu, Urta, Ugui, Iguiku, Nergal*, etab., herrien eta pertsonaien izenok. *Utuk Ziusudra doitu* egin zuelako, bere alde Anu eta Enlilen aurrean *otoi* eginez, eta jainko gurasoen erabaki *soria* aldatuz, *dohatsu* egin zuan *Ziusudra*. *Utu iduzkia* izan zan, ugoldeko *udak ostariku zubiaz zurrutadan itoituz* eta *edanez, turrustak* ibitu, *edoiak edozki* eta *Ziusudraren naza soroziz*, gizadia *otatu* eta *osatu* eta herio epaitik *soltü* eta *edosi* zuena.

—Egia da ostarikuak erreka urak edaten dituenak?

—Zeuk ere entzun al duzu holakorik? Txikitan entzuten dena sarritan egiazat hartzen da. Ni neu ere beti *txunditu* naue *ostarkuaren* margoak eta maiz ea zazpi diren kontatzen hasi: “bat, bi, hiru, lau, ost, sei, zazpi” eta begitandu ere “ausaz margo bakoitzak bere arketipoa du zeruan eta lurrean”, zerua lurrarekin lotzean, jainkozko eta giza arketipoak hizkuntza berri bateko hiztarmenean batu zirenekoa adierazi nahi bailuen.

—Eta Tio Sudrak, edo dena delako horrek zergaitik oparitu zion idia Utu eguzkiari?

—Jo! Eta asmatu egin duzu *Uturen otoiak dotore* egin zuen pertsonaia, ene! Izan ere, *Tio* edo *Txo* titulo horrekin, *Ziusudra Tio-Sudra, Tutera* baizen *otatu-iria*, edo iri *otatua* bai-da. Hako *Tio-Dotorea*>*Ziusudra* datorke, *Utu* bera dela *tutore*. Uren zurrunbilotik untzian *otatu* “gora jaso”, latinak ere hortik *tutare* “jagon, zaindu, gorde” dinola. Hori da *Utuk* egunero egiten duen ekintza, otara jo, gotik otuztan denen zuzi sogiera izan nahi bailuen.

—Bueno, halan izango da, baina idi oparirena ez diguzu esan.

—Ba, erantzun errazagoa dut hori, bestea baino. Mitologiak berak dino. Utuk maskota bi zeuzkan aberedian, bata sumerieraz *uzu* zeritxona, euskaraz *uxu*, aidekoa, *usua* benetan eta bestea *idia*, sumerieraz *uddu.a*, larrekoa, *adoretsua* bata, inon bada, eta kumatan *Utu bezain jori, sormen* handikoa bestea.

—Niri matxista iruditzen zait *tio, txo* eta *idi* eta guzti hori.

—*Uso* edo *uxu* ere bai? Ba dago Egiptoko Maat izeneko jainkosa, babiloniarrek *Tiamat* deitzen ziotena. Beraz *tía* ere titulo ezagutua zan. Euskarak *tio>tto>txo* egiten duen bezala, *tia>txeia* ere entzun da, nahiz euskara, sumeriera bezala, ar/emeen izenak hitz berezitan nabari zalea izan. Baina arira etorriaz, ugoldeko ondandian Antu jainkosa eta Inana alaba altsuak Uturen ekintza txalotzen dute eta Enlilen aholkua gaitzezten, halako itxukeriaz euren seme-alabak ur lokaztuetan ehortzi zituztelako. Enlil axolagabeak, jainkosen aserrea entzun behar izan zuan, hala ere. Harrezkero jainkosa geihenak aurrizki edo atzizki Utu arketipoaz deitzen dira, Antu, Anat, Nut, Maat, Hathor, Tiamat, Astarte, etab. egiptierak *-t* eme seinutzat hartzeraino, Utu bai-da lurreko ateak idekitzen dituen eta bizitaren ate izatea dagokie amei. Bestalde, ugolde erasotik salbatu zirenak Ziusudra eta bere emaztea izan ziran, kontakizun parekidetan esaten denez.

—Eta Enlilen zaldizainak, eta urzain haiek ze zigor izan zuten?

—A! *Urta* eta *Ugui* jaunek eta *Iguiku* honen semeak eta *Nergal* debruak? Nipurren *Nin.Urta* “Urta jauna” deitzen zuten eta ehiztarien zaindari izan zen Asirian eta ehizarako *orda* joko zuan ziur, baina *urda* euskaraz arrain borrokarietako bat da eta halakoa ontzirateko adorea behar izaten omen dute arrantzaleek. *Ugui* eta *Iguiku* morroiak ugarkak ateratzera bidalduko zituan, urrengo ugoldean udei bidea eman eta lar harrotu ez zitezten. *Ugui*, bestalde, “*iguin*” izen gorrotagarriz gelditu zan, bere seme *Iguiku* bezala. Hor dakusue *Peru* eta *Periko* bezalako atzizki beraz lotzen direla aita-semeak, sumerieraz eta euskaraz. *Nergal* jainkoa, Enlilen semea, berriz, aita emana zion Iburniko erreinua jaurritzera itzuli zan, ugoldeak biztanlegoz eman zion halako eupadaz. Hagatik *En.eri.gal* “*Haen iriko galai*”, ots, “iri handienaren printze” dei-

tzen zuten Sumerren eta Akaden, ulertuen arabera.

—Ba erdi euskara dirudi izenak horrek.

—Bai gero? Gogoratzea baino ez dago Nergal deabruskoen erregeak zeruko ugateak ideki zituena, ugoldeko ekaitza sortu eta ia gizarte osoa iruntzi zuenean. Nergalen ekintza gaiztoa ezin izan dute ahaztu gure arrantzaleen euskarak. Itxasoko ekaitz handiari *galarrena* deitzen bai-dioe eta handik gaztelaniak *galerna*. *Galarrenak*, izan ere, hainbat untzi eta euskaldun arrantzale asko irentzi izan ditu Kantauri itxasoan. *Galarrena?* Hori bai dela hako *Nergalena*, Nergal infernuko galaiak sortuenerako uriola. Arketipoak iraultzen direla bakarrik, Nergalek ugolde biurritu eta zirimoletan lehenago Kantauriko untziak bezala.

## 12. Mari Yonagorriren koba

—Zergaitik ez diguzu Ambotoko Mariren ipuina kontatzen?

—*Ipoïn* ala *oponio* den jakin behar. Guk *ipuindu* “kontatu” dinoguna grekoek *pinusso*<sup>(9)</sup> “jakin, eritzi” adierazteko erabiltzen dute, esateko eta asmatzeko aditzak aspil beretik jaten bai-dute eta gaur *ipoïn* dena gure asabentzat *opinio* gertatzen zan. Eta Anbotoko *Marirena* ipuina baino gehiago da. Mari izena arketipo bikoitza da eta, beraz, jainkoen bigarren belaunaldiko nortasuna dauka. Ba zan neosumeriar garaian *Mari* izeneko uria Ibarra-te>Eufrates ibai erdigunean eskumako *marran*. Hortik datorke *Marra+iri*>*Mari* uriaren izena, edo *marra* soiletik, *Marrako*, *Markue*, etab. bezala. Sumertarren ostean urritek eta akadiarrek jaurritu zuten. Mari ekonomiaz eta kulturaz gailendu zan eta, haraz gero, *Mari*, *Mara*, *Mer* izena, uriko urgazle jainkosaren izena ezeze, Egiptoko faraoien eta emakume izentzat edatu zan. Bada, bakoitza jaio den tokiaren izena norbere izen edo norbere familiako abizentzat hartzea gaurdaino iraun-duen ohitura da.

—Eta Andre Mari izena ere hortik al dator?

—Hala zeritson *Mari* edo *Maria* Egipton jaiotako Moisesen arrebari ere. Zelan ukatu beraz, Jesusen Ama Maria ere erro beretiko izenaz deitzen denik?

—Nik *Maria* izenak *mar* “itxasoa” esan nai duela entzun dut.

—Itxasoa lurraren *marra* da herri askorentzat, nahiz edozein mendi edo ibai-marra, Mari urian bezala, *marrakoak* direlako. Horrela *Marraquech*, *Sumer*, *Dinamarka*, etab. baina ba dira *marratzat* ibaia dutenak: horra *Mari*, *Gamarra* edo *Mardo*. Geografian *marra* garrantzitsuena itxasoa denarren, *Maria*, izena “itxaso” edukinari soilik lotzea haren ospea murriztea da eta *marra/mare*, elkarrenak direnarren, euskera ta erromanikoa ez bereiztea. Izan ere, *Maria* Jainkoaren Ama aitortzen dugunetik, zeru eta lurraren arteko *marra* da benetan, eta hala egiztatzen du euskara mito biziak. Mitoak, antzinako igarkizunak bai-dira, ots, geroko gertakarien susmoak, lehen ere aipatu dugunez.

—Eta Amboto Marik bai al du Andra Mariarekin zerikusirik?

—Mitoa bizi izan duen herriarentzat asko gainera. Ez duzue ikusten Euskalerriko mendi eta munoak Andre Mariaren ermitez bete direla? Bai eta Aizkorriko Mariren koba izenekoan bertan ere. Mari zenaren Jainko-bitartekotasuna Andre Mariak goiztar hartzen du Euskal Herrian, Andre titulo eta guzti. Izen-abizen berberak eta eginkizun berbera, santutegi berberak, baina sarritan menditik gizartera, uriko ataureraino jatxiak, gizakien eta Jainkoaren arartekotza errazago egin zezan. Mari, mendi marrako koban aparte susmatzen zuten gure asabek, Andre Mariak, ostera, bere seme-alabegandik gertu bizi nahi du eta baserri eta urietan ezarri du egoitza. Bien arteko aldea ere funtsezkoa da sinistenedungan: Mari, Jainko ararteko jeinu-jeinkosa, irrikaz amestua izan zan, eta Andre Maria Jainkoaren Ama izateak egiten du ararteko ahaltsu. Jung sikologistak giza irrikatan errotua dakus Andre Mariaren goralpena, hako jainkosen munduko ordezkoa bailitzan.

—Zer esan gura du jeinu hitzak eta Andre tituloak?

—Inu/*Jeinu* dator, Jainko arketipoak As giza arketipoa hartzen duenean, Inko/*Jeinko* bezala. *Andre* ere jainkosa izena da eta Ainamendi aldean izan zuan *Anderexo* izeneko santutegirik. *Anderetu*>*Anderexo* dator eta, beraz deiera hau, *anderetu*>*andretu* berri ziren nesken ohikuna edo erritoaren zaindari izan zen aldi batean. *Andre* eta *Andraena*>*Andrane* tituloa, gehiengo

kasoan, Jainkoaren Amari ematen zaio. *Andre* izenak hiru arketipo ditu, beraz *Mari* izena baino geroztikoagoa da. *An+Tu* sumerriarrak eta *Erra* egiptiarra eta horrela sumeriarren jainkosa zenak kultura esparrua zabaltzen zuan. Sumerretik Egiptora bi mila kilometroren aldea baino ez dago eta elkarren jainko arketipoak ezagunak zituzten. *Ra* arketipoak ere “iruzkia” esan nahi du egiptieraz eta *Erra* ahozkatzen zan Babilonian ere, *Errensugea* ahozkatzen dugunok bezala. *Andre*, beraz, “zeru+iruzki” da, edo “eguzkidun zeru” da, Apokalipsiko ikuskizunean eguzkiz jantzi-rik agertzen den emakumea bezala.

—Zer da *iruzkia*?

—Bueno, *eguzkia*. Euskera mito biziak bere zazpi euskalkietan mito bizi iraunazteko arduraz-edo eguzkiri “iduzki, iruzki” ere deitu izan diola eta eskerrak hitzen aberaztasunari antxinateko mitoeekin katea egiten duela. *Utu* ondorengo *Iduzki* dator, *idi>idis-ko* bezala eta *Ra* jainkoaren ondorengo iloba *Orus>Iruzki*, bezala.

—Nik “Ambotoko Señorie” eta “Ambotoko Dama” entzun dut beti.

—Eta ez dun entzun inoiz *Mari Jonagorri*?

—Ez, *Marije Gonagorri* baino.

—Orduan jakinago dun *Marije Gonagorrirena*. Esan eigin-ea.

—Umeren batek hagina galtzen zuenean esaten zan, jausitako hagina teilatura jaurtiaz batera, kantuz errepikatzen zan: “*Marije teilatuko/Gonagorria*, eutsi hagin zaharra ta ekazu barria”.

—Horra, bada, entzun duzuenez, mitoazterketa honetaz zue-tariko batzuk ere txikitari entzuniko otoitza gogoratu dugu eta antxinako siniskizuna gaurdaino bizi da ohitura zaharraren airean: hagin zaharra teilatura jaurti eta barria eskatu Mariri. Gogoan duzue zuen esnetako haginak jausi zirenekoa? Bada, bularra emotea eta hagin barria eskatzea egokiago emoten zuten amaren ereduko jainkosa baten ardurako, lehen *Mari Jonagorri* eta orain *Andre Mariari* egin otoitzetan gerta ohi denez.

—Eta zer esan gura dau *Mari Jonagorrik*, ba?

—*Jonagorri* Aniemendiko koban bizi ei zan, Leskunen kontatzen

duten bezala. Koba hori mendiko eleiza bezala zan eta halako tokiei-*Ekur* deitzen zioten Sumerren eta Euskalerrian *Ekurmendi*, *Egurmendi*, *Goramendi* bezalako tokizenetan agertzen da. Konposagaien itzuliaz, *Mendiguro* eta *Mendigorri* edo *Gorbeia/Begoria*, *Egorta/Ategorri*, *Egortza/Azkorri* edo *Aitzkorri*, etab. ere egiten dute. Santutegiok *guru*en edo *anakoreta* deitzen zaintzapean egoten ziran Jainkoekiko bitartekari bai-ziren. *Guruek eguraseko ekurrean* edo *gorkuan* bizi ohi ziran, Jainkoa *gurtu* ta hari *agur* egiten eta, *guraso* bezala, eskaleen *gurariei* erantzuten eta *eguraldia* iragarten. Beste zeregina, mendiko abereen *akordua* izatea zan, ots, *gorde*, *kuriatu* edo *azkortzea* eta *kortako abelgorriak* bezala, *guritzea*. Ikustea baino ez dago antxinako *Ekur* “santutegiaz” euskarak daukan *akordua* eta haren analogiaz sortu duen hitz pila. “*Akordau* zaitetz, *Maria Birgina bihotzbera*” dino otoitzetariko batek. Hala *Akordako Ama*, *Koruko Ama* edo *Guardiako Andre Mari*, *Gorritiko Ama*, *Sokorriko Ama*, etab. *Nora kurritzen* zuten, bada, antxinako erromesek milaka urte latinak *korritu* aditzetik *currere* egokitu baino lehen? *Ekur* mendiko tenploko jainkoekin *egurastera*. Han egoken *Mari Dona+Kuria>Jonagorri* datorrena edo “*Kobako Dama, Anboto Damaren*” kidea. *Damkina* zeritson *Marduken amari*, ots, *Dama Guena*, *Guena>Kin* bai dator, eta *Dama/Maat* itzulia da eta hala deitzen diote frantxesek “*Nôtre Dame*” *Andre Mariari*. Euskaldunok *Dona/Done* titulua ere egosten diogu “*Andre Dona Maria*”, bada, euskara zaharrak *Done/Deun* darabil *guru* “santu” adierazteko, *guru>guren*, gehiengo kasoan, *Eguen Guren*, *Agustin Gurena* bezala.

—Hala eta guzti, aldea dago zuk dinozun *Ekur* horretatik teilatura. Beraz, zelan *Kobako Dama* edo *Ekurreko Jonagorri* edo teilatuko *Gonagorri* edo *zerikusi* dute elkarrekin?

—Argi zegoen, azaleko analogia batez *Jonagorri>Gonagorri* bihurtu dela. “*Teilatu*” hitzean, ostera, funtzezko analogia ikusten dinat: *Telitu* “ahaltsu” deitzen zioten akadiarrek *Ishtar* jainkosari, askosaz gerogo *teleutaia* grekoek “*gurena*” adierazteko eta erromatarrek ere *Tellus* izeneko jainkosa ezagutzen zuten. *Atari>terra* datorren bezala, *athal>tellu* dator, jainkosak bai-ziren giza-ki eta jainkoen arteko harremanetan *athal* edo *atariko* egiten

zutenak. Ez dion inoiz Andre Mariri arrenetan “Zeruko Atea” deitu? Beraz, hako “Marije Teilatuko” otoitzean, edozein otoitz egituran bezala, lehendabizi eregia egiten dun erregu aurretik, ots, jainko edo jainkosaren goralpena lehenengo eta gero eskaria. Eta honela zitekenan harako otoitza: “Marije Atelatuko Jonagorria, eutsi hagin zaharra ta ekazu barria”. Gero ere Andre Mariaren tituloak “Andre Mari Koruko, Andre Mari Antiguako, Andre Mari Begoinako”, etab. aipatu izan dira, NONGO kasoan barik, abizen berezi bezala egokituak.

—Nik hasierakoa nahi dut: Ambotoko Mariren ipuina.

—Anbotoko Mari” edo “Mari *Urraka*” deitua ere bada. *Urraka* edo *Arroka*, hantxe arrokan bizi zelako. *Arroka/Ekur* arketipo itzulituko hitz bera da, *Urkiola/Ekurrola* den bezala. Bueno, ba: “behin Urkiolako artzain batek Ambotoko Damaren kobara igon ei zuan, bildotxa besoetan hartu eta mesedea eskatzera. Asuntzatik zehar atxetan gora han Marik eguzkitara duen neguko egoitzara jo omen zuan. Artzainak makila atarian itxi eta errespeto guztiaz sartu zan koban. Antxe zegoen Ambotoko Dama, ule zuri luzeaz aritto baten narru zuriaren gainean etzana. Artzainak bildotx oparia bere oinetan ipini eta esan zion: “Dama agurgarri eta ahaltsua, nire ardiek urtean bildotz bikoitza ekarten badauste, urtero ekarriko deusot berori opariz bildotxa”. “Zenbat ardi daukazak, bada -galdetu zion Ambotoko Marik”. “Ehun ta hamabi, antzuak kontau barik -artzainak”. “Eta zenbat bildotx? -Anbotoko Marik artzainari”. “Beste ehun da hamabi -artzainak”. “Ederto, -erantzun eutson Amboto Marik- hartuizak ehun da hamabiak eurretzat eta beste ardien eta sobraten jakan beste ume bikoitzaren bata neurretzat”.

Artzainak sartu zan ganoraz, atze-atzeka urten zuan Damaren kobatik. Orduan konturatu zan zer esan nahi zuan hako “ezaz eta baiiaz bizi naz” Ambotoko Damaren arteziak”. Ardi koporuan artzainak bat baino gehiago ixildu zituan eta Mari Anbotok harek ixilduak merkatu zizkion. Amboto Dama ondo bizi omen zan, edateko sagardoa eta jateko frutakiak eta bildotxak ez omen ziztaizkion eguno falta izan, eskerrak bere menekikoen harremani.

### 13. Amaren gona zabala

Antxiako jakindurian ama jainkoengandik hurbil agertzen zan gizakien sorkuntzan. Izan ere, jainkosak ziran seme alaben egileak. Hagatik Nintu amak, An jainkoaren emazteak, Antu ere deituak, negar egin zuan An eta Enlilen artean gizakien ondamendia erabaki zuten hako Ugolde galgarrian. Haren alaba Inannak ere aiene samina ozenkatu zuan, ugoldeak bere herria lokatzetan estaldu zuela ikustean. Beste pasadiso baten esaten denez, Nintu, amatasun jainkosak, agirika egin zien jainkoei, Ugoldeaz gizadiaren ondamena erabagi zutelako. Enlilen aholku gaiztoa salatu zuan beste behin Inanna jainkosak.

—Zergaitik Ugoldea eta amen negarrerako eztabaida?

—Amek hurragotik bizi dutelako amatasuna eta euren umeen zoriagatik asarretzen dira. Gure artean ere amak sarritan seme-alaben arartekoa egiten du aitaren aurrean, euren etorkisuna edo ezkontza arazoa dela-ta. Ugoldeko auzian bezala. Ugoldea zergaitik dinozu? Zeruan ere jainko gazteek iskamila larregia ateratzen omen zuten jainko zaharren patxadarako eta halakoren baten gogait egin omen zuten. Jainkoek zigor latzegia erabagi zuten, jainkosek umeen alde urten behar: horrela uler dezakegu piska bat zeruko eztabaida ere, bada gizakia jainkoen uneko aitortzen den heinean, jainkoak ere gizaki ulermenaren heineko dira. An jainkoak ere gogait egin zuan, Gilgames erregearen jokera zakarra ikusi eta Aruru jainkosari kontuak eskatu zizkionean: “Heu haiz, *Aruru*, Gilgames sortu henduna -esan zion-. Orain errai bero horren garra berdintzeko gei den parekoa sortu behar dun. Egin dezatela euren artean burruka, Uruk uriko jendeek bakea izan dezaten”. *Aruruk* orduan, bustin moltsoa hartu, txu egin eta beste *haur* bat egin zuan”.

—Orduan zeruan ere jainkoek agindu eta jainkosek men egin e? Ez al da horrela?

—Ez beti. Inanina, An jainkoaren alabak, Eridu uriko zaindარი zen Enki nebaren laguntzaz, aitaren *me* “menak edo aduak”

eskuratu eta aitaren pareko eskua lortu zuan Ur uriaren onerako. Hagatik Inannak berak agintzen dio Dumuzi senarrari: “Manatu egin diat. Ez diat utsi hiriko manua amaren eskuetan, ez zioat Enki nebari laga. Heu haz hiria gobernatu behar dukana. Ez diok emazteari gainartuko”. Bikote honen artean emaztea zan nagusi, “no zen to”, Axularrek esango luken bezala, Inanna jainko alaba zelako eta aitaren eskubideen jabe, Dumuzi senarra, ordea, baserritar unaia.

—Bai, baina salbuespen bat izango zan, Elisabet erreginea Edinburgoko Duke bere senarraren aurrean bezalatsu.

—Edozelan ere, gizarteko exenpluak baliagarriak dira jainko mitotetako gorabeherak azaltzeko, gizakiak gizarteko arazoak egotzen bai-dizkie hein batean jainkoei ere. Egipton nabariagoa zan ama agintea eta ez hain ezaguna den Kleopatraren historiagatik. Maat jainkosa bera zan Erra jainkoaren ama eta semeak izadieren ordena bere amaren mainari gomendatu zion.

—Zergatik utzi zuan amaren eskuetan izadiko ordena?

—Ausaz *Erra* bera *errak* edo *irak* hartzen zuelako eguerdiko beroaren *erresuminean* eta amagan halako baretasun irauna zekusalako eta nahaigo izan zuan *haurren arazoa* amaren jakinduriak ebastea lurrean eta zeruan. Maat amari zegokion, beraz, zenduen bihotzak ere pisuan aztertzea, lan honetan geroago Osiris jainkoak, Erraren semeak, laguntzen zionarren.

—Zer esan nahi du bihotzak pisuan aztertze horrek?

—Bihotza zan giza balore eta akatsen kutxa bezala. Hagatik esan ohi da “bihotzaren giltza, mihia”. Nahiko zan bihotza aztertzea, gizaki bakoitzaren meritoak eta akatsak zenbatzeko. Balantzaren plater batean ongiak eta bestean gaizkiak ipini eta aldeak ematen zuena, huraxe zan *Maaten* zuzenbide *matematikoa*.

—Nola izan daiteke matematika utsa eta otza ama baten epaia?

—Matematika balitzak *Maaten* epaia, Maat ez zunan izango jainkosa zuzena, doia, egia, egokia, mana, jakinduria, legea, eskubidea eta bera, baina balitekek *Maaten* balatzak *matematikaren* idea, izena eta zehaztasuna analogizatzea. Faraoiak berak ere *Maaten* agindua bete behar zian. Munduko ordena zerukoa-

ren pareko izan zedin, *Maaten mahaiko emaien* apaizak honela esaten zion erregeri: “Maat delako zara zu eta zu zarelako da Maat”. “Maatekin konponketa onean egoteak, harrizko hobiak baino hobeki ziurtatzen du etorkizuna” erakusten zuan, bestalde, Egiptoko jakinduriak. *Maat ama*, euskaraz *Maite* dator, *maite* izan eta *maitatzea* bezala, Maatek *emeki emarazten* eta *maintzen* zuan.

—Eta hori ere euskara mito biziaren froga al da?

—Hitzak, euskararenak bederen, erritoaren arteziaz eta analogiaren artez konponduak direlako. Analogiak arketipoen iturrietatik edaten, haien arabera konpontzen eta hitzaren arketipoetan bateratsu zetozen Sumer eta Egipto. Egipto Goiko Tebas urian Amon-Ra eta Mut zeritsaion jainko bikoteari. Biak elkarren ondoan jesarrita, zein uste duzue dagola eskumaldean? *Mut* emaztea. Biak dute, nausitasuren ezaugarritz *moto* galanta buruan. Ba al du *Mut* jainkosaren *motoak* euskal emazteek izaten zuten *moto* handiarekin zerikusirik? Emaztekien nausitasuna adierazten zuan. *Maat+Ra>Matre* dator edo arketipo bereko *Andere>Andre*. Jainkosa izen eta goitzen honek berdin balio du etxeko andre apalaren duintasuna, erregearen amaren gurentasuna edo Ama Birjina, Jainko Amaren aintza adierazteko.

—Orduan egia al da aldi bateko Euskal Herrian ama-agintea izan zena?

—Ez dakit zertan oinarrizten diran holako zerbait aipatzen duten autoreek. Behar bada, etxekoandrea bera izaten delako etxeko eukien gordailu, baina izadi jakinduriaren garaiko asaben ohitura ikusi eta, batez ere, euskara mito biziaren testigutza entzun eta gero, baietz esango nuke. Ezeri sinestekotan, hizkuntzari, gurean euskarari, sinistu behar zaiolako.

—Zertan da euskararen testigutza, orduan?

—*Andreak mainatu* egiten duela, *gizonak*, ostera, *agindu*, beste era batera esanda, *andrearen mainakera* jainko arketipoez esaten delako eta *gizonaren agintea* eta *kixa*, berriz, *giza* arketipoz aurritzitzen. Era batera edo besterako esakeren artean milaka



urteren aldea dago. *Mainatu* eta *agindu* jaurritzeko estilo bi dira, *manera* eta *kixa*: bata *emaztearena*, bestea *gizaki arruntarena*. *Mainatzeak* arte gehiago dauka, *agindua*, ostera, *gizarteko* legeen araberan egiten da. Batak hako sumertarren *me* edo jainko eskubideko *manatua* dauka eta besteak *gizarteko* agindua. Hagatik, *amek manatzen* dute etxean eta gizonek plazan agintzen.

—Baina hori gauza joana da, orain gauzak bestelakotu egin dira.

—Bai, noski, hirigunean gauzak razionalizatu egin ziran hein batean, onerako edo txarrerako, Marduk errege burueritsiak Tiamat jainkosari egin zion burruka, nolabait Tiamat amaren manatua desordenu galgarritzat eman zuenean bezala. Harrezkero, Marduk jainkotuaren emazte Zarpanituk ez zuan zeresanik edo zereginik izan Babiloniako gizartean, ez eta Marduk handiaren koroazioko poeman ere. Oso bestelako dager Mari jainkosa eta Maju haren senarraren eginkizuna euskal mitoan. Mari da dena: ardura, agindua, marra, xedea, legea, egia, zuzenbidea, eskarien entzula, epailari eta mesedegile, Maju, ostera, beranduko irudime-nak ezarritako ipingi mantarra baino ez da.

—Ze epai emoten eban, bada, Mari jainkosak?

—Gizaki bakoitzaren egia bera hartzen zuen epaibidetzat. Norbaitek “bai” esan eta ukatzen zuena kendu egiten zion eta “ez” esan eta baieztatzen zuena uts eman, ostera. Hagatik Mari bere mendekoen ezaz eta baiaz bizi omen zan. Adibidez, zuk paraiso fiskalean mila euro euki eta fiskoari bosteun deklaratu-ero, beste bosteunak Mariren eskuetan gelditzen zirela.

—Hori, hori! Mariren epaiak etorri beharko luke ostera ere pobreen eta aberatzen arteko eztabaida konpontzekotan.

—Hammurabi legegilearen kultura sartu zan orduan eta giza bihotzetan idatzirik zegoen amatiar maite legearen orde, gizatiar zigor legea idatzi zuen harrian, erabakiaren sendoa ager zedin. Historian haro berria hasi zan, historigile batzuk kulturak aurrera-kada egin zuela esan dute, neure ustez, “onean ezpada txarrean” ebasten dutenen zuzenbideak, ostera, ba du atzerapiderik, amaren maina falta duelako. Baina ez unkitu, Euskal herrian oraindino

*andre-gizonak* esaten da eta ez *gizon-andreak*, ama euskararen jakinduriak “nori berea” ematen erakusten duelako.

—Baina “jaun-andreak” esaten da.

—Bai ta semitismo hutsez “gizonaren seme” ere euskaratzen da Biblical “gizaseme” esan beharrez. *Jaun-andreak* ere ez da euskararen alorretikoa, erderatik ikasi-berria duen moda baizik. Gainera, esamodu hori politika edo azaleko kultura bilkUNETAN esan ohi da, inoiz ere ez elizan. Eta hariari jarraiki, kristau agindua ere maite-legea da eta baikor ematen dena: “Lehenengoa, maite zure Jainkoa gogoz eta danen gainetik eta bigarrena, maite zure lagun urkoa zeure burua bezala”, horretan bai-datza lege osoa. Barkamen legea, antzekoa, norbere eratzukizuna eskatzen duena: “barkatu gure sorrak, geuk gure sordunei barkatzen diegun ezkerro”.

—Eta zergatik eman izan zan hasieran ama agintea?

—Amatasuna jainko-erraien jarraipentzat ematen zelako izadi mailako lehen jakinduria haretan. Amatasuna jainkoen izadiko miraritzat ematen zan. Amak jainkoen indarrez ornitu bakarrik sor eta erdi zezaken umea, eta, hala ere, maiz bere bizia arriskatzen zuela. Honela dino Sumeriako jakinduriak: “emaztea hartzea gizonen zera da, baina seme-alabak izatea Jainkoagandik dator”. Bestalde, ama-seme-alaben artean dagoen lokarria sako-nagoa da, sikologiak dinonez, aita-seme-alaben artean sortzen dena baino. Hori da ama-agintearen une eta jakinduria zaharra. Hagaitik euskararen oroitzak jainko arketipoez deitzen dio *amari*, *emazteari* eta *emakumeari*, *andreari* eta *neskei*, An jainkoaren *ume Inannaren me* “men edo aduen” partekide bailiran.

—Ama agintea etorri beharko luke ostera ere gizartera.

—Ari da pausoak ematen dagoeneko, eta zerbait lortu ere egin-go da, izadiko jakinduriaren arabera izatekotan, baina giza harrokeriak begiratzen al dio izadiko jakinduriari? Giza eratarako lege ezkorrekin herria arreatu ezin denean, gudukan adibidez, zergatik ez ama-aginteko jainkosa erako lege baikorrekin saiatu, ots, giza aginteaz ezin dena, amaren mainaz lortu gizarteko konponbidea eta bakea? Amaren maina hurrago bai-dago Jainko legetik.

#### 14. Markitosen marka

Gizakia, ume deino, amaren ardurapean dago eta amak amainatzen eta mantentzen du, eta, hareago, amak manatzen dio. Hortik dator gaztelaniazko “mandar”. Amak hesiak jartzen dizkio umeari, erori ez dadin, hesitik hara arriskua bai-dago, errekarra, patinera, lezera jausi daiteke. Amatar agindua zan orduan eta Maat jainkosak Egipton bezala, Mari jainkosak Euskal Herrian ongiaren eta gaizkiaren arteko marra jarri zien bere seme-alabei: “hona arte erdu zaitezkete, handik hara kaltegarri duzue” esatera bailetarren eta halakoak ziran bizi portaerarako ezarri zizkien aginduak: “ez ostu, ez gezurrik esan, ez inor hil, ez harrotu, bata bestea errespetatu, emandako hitza bete eta elkarri lagundu”.

—Baina horrek ez al dira Jaungoikoaren Legeko aginduak?

—Antzekoak behenipehin; eta herri guztien jakindurian eta giza bihotzetik sortu zirenak. Haurtzaroko eskola amarena da, hagatik Maat eta Mari jakinduria jainkosak ziran herrien haurtzaroan. Amaren aginduak maitezko erantzukizuna eskatzen zuan, zigorra baino hareago. Bakoitzak bere neurriko bilatzen zuan, jakinduriazko esakunetan agertzen den bezala: “gezurtia bere ahotik galtzen”, “ez egik gatxik eta ez euk bildurrik”, “hil eikek ta hil aie, ta hire erailea hil daie”, “harroa aizeak daraman orbela”, “lapur festa, laburra”, “errespetu gabeko amodiorik ez”, “non kaltea, han damua”, etab. Esakun hoiek ere herri jakinduriak landutako Mariren marrak dira. Maatek matematikaz aztertzen zituan bakoitzaren bihotzak onean-gaitzean eta hitzaren arteziaz lortzen zuan errudunaren aitopena: “ez dut obenik egin, ez dut bidegabekeriarik egin, ez dut alarguna nahigabetu, ez dut biraorik esan”, etab. Marik, *mandatuz* bezala, aurretiaz ematen du manatua eta *manamendua*. Hortik jaso du erderak ere *mandamiento*. Hagatik esan ohi da “jakinduriak amak bezala urteiten dizu bidera”. Maatek maitez manatzen zuan eta *Marik marraz amarratzen*. Artean ez da zigorrik aipatzen.

—Inpernura-edo ez zutela inor jaurtitzen, esan nahi duzu?

—“Gaiztaginak beragan du zigorra” oharraz zan nahiko jakinduria zaharrear, eta gaiztoez zera esaten zan: *amak egin eta milikatu gabea haiz*. Baina ama-legea desagertu ezpazan, atzendu egin zan, uritarren giza jakinduriako ereduak aldatu ziranean, gaiztake-ria bakoitzari zigorra ezarri zitzaionean “begia begi-truk, bizia, bizi-truk” eratara eta halatan aurretiazko inpernua jaso zuten.

—Amaren legea baserrikoa dela, uritar legearen ondoan?

—Baserria beti ere ohitura zaharren habia izan da eta euskararen gordeleku oraintzuraino. Baserrian lanak agintzen zuan eta urian diruak, kanpotarrak inoren uriez jabetu ziran, hala amorrak Sumerreko uriez eta amen amarrua eta amorea orduan amorraren amorru biurtu zan, indarkeriak beti ohi duen bezala.

—Amorru hitz hori amorrarengatik datorrela uste duzu?

—*Amurru* zan gero ere euren aberria, Canaán buruan. Mortutik harako semitarrak ziran eta sumertarrek eregi uriez eta landutako soloez indarrez jabetu ziran. Bestalde *amore/amorru* gertatzea pausoa besterik ez omen da. Amore ematen ez dakiana amorratua da eta amorratuenan zan Mariren amarrak apurtu edo haren *marrak* zapatu eta pasatzea. Ha izan zan *marka!* “Desmarkea” esango luke, *-ka* atzizkiaren balore ezkorra ezagutzen ez duenak. Izan ere, *marra/marka* elkarren aurkakoak dira eta marra pasatzen zuena *markatua* gelditzen zan eta nolabait *markistua*. Hori gerta zitzaion *Markitos* Zalduondokoari ere.

—Nor zan Zalduondoko Markitos?

—*Markitos?* Harek egin zigun *marka!* Orain edozergatik esaten da kiroletan batez ere, “horrek besteen *markak* hautsi ditu eta halakoari “plusmarquista” deitzen diote. Halakoetan, besteen *markak* gaingitu dituen txalotua eta saritua izaten da, baina gaiztabidean Mariren *marrak* zapaltzen zituen *markatua* eta zigortua.

—Eta ze marka egin zuan, bada, Markitosek?

—Auzira eraman eta auziburuak gezurtizat, sinisgaldu, lapurtzako salatu eta, hareago, naasle, bortzatzaile eta umegaltzaile izatea egotzi zion Zalduondoko plazan. Gero herio epaia eman zioten, gainerako gaiztoek ere Markitosen burutik eskarmendua har

zezaten. Ausaz, behin gerta ziteken, edo ez zan benetan inoiz ere gertatu, baina kopla zahar batek dinonez “Albizko mutilak/ zer leuken merezi?/ Harrian zipla bi ta/sasian eskegi”.

—Eta eskegi egin zuten Markitos?

—Baina, ez sasitik, partika luze batetik baino. Bere okerrengatik epaia ozenkatu bere guraso zaharren aurrean, hatan ere, eta sua eman zioten. Orduan txilio eta hagin karraskadak.

—Eta gurasoek ze erru zeukaten, ba?

—Eskarmentua herri guztiarentzat zan eta, beste inorentzat baino saminagoa, Markitosen gurasoentzat, hain zuzen. Bada Markitos herriko seme zan eta ez guraso ezezagunen atze bat. Markitosengan zelanbait jakinduria zaharreko zigorra herrikotu egiten da eta mitoa historia egiten, bada “zigor bako legea, mihi bako arrana” dino herriaren jakinduria zaharrak.

## 15. Zikurateko eskailerak

Nafarroako politikari batek bestetan baino okerrago ebatzi zuan behin, *Euskal Herria* abertzaleek asmatu izena zela esan zuanean eta, beraz izen hutsa zela-eta, eukitez ez zuela edukinik. Herri jakinduriak, ostera, “izena duen guztik ba du izana” dino. Eta herri jakinduriari sinisten ez badio, entzun daizala mendien izenak, *Eskal Herria* Araba, Bizkaia eta Nafarro bi aldetako eta Zuberoako mendien izena bai-da: *Eskaleriamendi*, *Eskalierramendi*, *Mont-Eskaliers*, etab.

—*Eskara* edo *euskaratik* ez dator, bada, “Euskal Herria” izena?

—Hala dirudi, baina tokizena denetik, *Eskaramendi*/*Eskalamendi*/*Esakanamendi* ditugu *gara/gala/gana* goia adierazten eta, kasu honetan *es/etxe* edukinaren posizioa. Eta bizi garen *etxe* hau Ibarren goian edo Ibarreko Peninsularen goi aldean dago. Bestalde, Ainamendik bitan banantzen duen Iberia Handia, Frantziakoak eta Peninsulakoak, bien arteko santutegi handiaren *eskaileratzat* ere har zezaken, mendiek atzerriko agintearentzat eragozpen direnarren, bere bi magaletan bizi den herriarentzat eten ezineko lokarria bai-dira.

—Baina *Euskal Herria* “eskalatik” datorrelako susmo horrek ez du bururik ez oinik.

—Bururik ezean, ez luke oin beharrik ere izango eta oinik ez baidu, hare gutxiago eskala edo eskailera beharrik. Baina hemen Eskal Herria burudun eta ibiltaria dago artean, Ainamendi, berezko jainko santutegi handia zehar harat honat ibilia eta errespeto handiz igaro izan dute alde bietan bizi izan diren eta bizi garen euskaldunok, *Eskal Herria* deritzaion herriko seme-alabok. Ba dakigu Iberiarrek eta Frantziarrek ez dakitela euren izenaren berri eta euretariko batzuk belarriak estalduko lituzkena, euskarak haren herrien berririk ba dakiela esango bagenie.

—Nondik etor daiteke, beraz, *euskara* eta *Euskal Herri* izena, edozein maisuri gu bagarela eta geure jatorriaren berri ba daki-gula ozen adierazteko?

—Hori da galdera! “Alperrikoa baida, ibaian bustialdiak hartzea, urak nondik datozen jakin ezik”, jakinduria zaharrak dinonez edo oraingoak ere, “urak edan aurretik aztertu” esaten baidigu. Gure ibaiak Abbay edo Ibarre>Eufates baizen luzeak ez badira ere, goitik dituzte iturburuak, harakoak Goragora etiopiar edo Urartu Armeniako mendietan bezala, Euskal Herriko ibai behinenak Ainamendin dituzte iturriak. Behe Nafarroako Ainamendin, Arbaile eta Irati basoen artean, *Eskalierra* izeneko mendia dago goraino belardiz jantzia. Bere tontor pean zortzi m. diametroko Har-Sudurra koronarria aurkitzen da. Izan ere, bera bada harrizko *ttutture*, ots, *Utu-torre* belardiaren erdian, *Harri-Sudurra Ekur* santutegian *ekurrena* edo *gorena* eta *gurena* denetik, *korona* eratorri da, beraz, *koronarri* “cronlecha”. Ikuspegi itzela dago bertatik alde guztietara. *Koronarri* izan eta *Har-Sudurra* deitzetik argi dago tokia mendi santutegia izan zena, eta beste hainbeste ebatz genezake *Eskalierra* deritzaionetik.

—Zerurako eskailera-edo izan ete ziran, bada, txutxurre edo koronarriak?

—Koronarriak mendi *ttutturetan* egiten ziran. Eguzki toki ziran eta munduko erdigunea ematen zuten, gizakien zoria bere magiazko aroan atoratzen zutelakotan. *Ekur* mendi santutegiak

Sumerretik honagino ezagutuak izan dira. Hara, *ekur* santutegira *kurritzen* zuan herriak jainkoei *gurka*, eskerrak eman eta eskarien trukean eskeintzaren bat egitera. Sumereko buru beltzen herria, ostera, Neolitos Haroan, ibarrean behera asaben mendietatik urrundu zenean, bere jainkoak atzean utzi zituan eta Ibaraldeko urietan baratze ederrak sortu zituztenean, uria zaintzeko jainkoen falta sentitu zuten. Zer egin menditar jainko lagunak lautadara erakartzeko? *Ekur* antzeko mendia egingo zuten urian bertan, buztin-lurrak pilatuaren buruz. Eskuz egineko mendiar *Zikuratu* deitu zioten, alde batetik mendia eta bestetik etxea zelako, hau da, “etxe goratu”. Erainkintza laukitua zan maldaka, zabaletik estura, goraka jasotzen zena. Lau alderdietatik eskilara edo eskalierra zuzenak zituzten, eta albotik zeharka zioan beste bat. Mailadiak arrilu erreaz eginak ziran eta goian Saharu zeritson jainkoen templo zapai biribilduna zegoen. Sumerreko uri bakoitzak bere jainko edo jainkosa zaindariari *zikurata* jaso ohi zion eta ohitura hau ibarralde guztira zabaldu zan.

—Baina zer esan nahi du *Zikurat* hitzak?

—*Zikuratu* ere esaten da akadieraz eta “eraikintza goratu” bezala ulertzen dute ulertuek. Euskarak ere, eratorrien legera: *Agoretxe/Zigorra*, *Gorraiza/Izagorria*, egiten du eta *Zikuratu* erainkintza “exe>etxe goratu” ulertzen. Bide beretik gauza argitzenago dator *Esagila*, erainkintza beraren izena babilonieraz, “etxe gaila/gara” adierazten. “Gurka eta eskabidez igon nuen Esagilara” aitortzen du Sippar uriko nekalduak. Euskal Herrian ba dago *Eskailemendi*, *Eskalmendi* eta *Eskalas-mendi*, *Eskiulamendi* eta *Eskailemendi* izeneko tokizerik. *Eskala* izenak santutegiko *eskilarak*, gogarazten dizkigu, Urregaraiko ermitara bide egiten dutenak, adibidez, edo berezko mailak. Erromesak *eskalak* edo mesede *eskaleak* dira, *Esagilara eskatzera*, *eskerrak* ematera eta *eskaintzak* egitera tontorrera *eskantitzen* zuten, edo jainkoekiko harremana *eskalas* zeritzan jataldi handiarekin ospatzera.

—Ba, Urkiolako San Antoniotan ere denda guztiak halako jataldi baterako prest dagozela esan leike. San Antoniok ere erromesen jataldian parte hartzen al du?

—San Anton eta San Antonio biekin, agian. Urkiolako lagunartea eta hango mokau eta jataldiak San Antonioren gogoko izango dira ziur. Esagilara eskerrak ematera igon zuanak ere, zera dino: “eskaintzak eta dohaiak eta bezuza pila ekarri ditut, idi gizenak haragitu eta adari ederrak larrutu; era askotako zurrutadak egin nituan, estiz gozatuko garagardoaz eta ardao onaz”.

—Behi, txahal eta ardi erakusketa ere egoten da Urkiolako San Antoniotan, hala ere, txahal edo bildotx larrutzerik eta haragi dendarik ez da agertzen, baina gaztaeak, gozokiak, estiak, ardao eta sagardoak, etab. ugari eta denak euskal labeldunak.

—Larrutzerik ezpada, haragi erretegirik ikusten da pagoen azpian, ez ostera, bitimen odol ixurketarik. Holako ohiturak juduen eta islamiarren errito zaharretan gelditzen dira oraindino. Kristauren errittoa, ostera, Meza Santua da. Kristoren gurutzeko heriotzak aldatu egin zuan errito zaharra gurean eta berezi egiten dugu Jainkoari atsegin zaion oparia eta gure urdailari dagokion janaria.

—Bueno, baina *Zikurat* ostaz gelditzen dela, zelan emon genezake *Zikurat* edo *Zikuratu* “etxe goratu” dena?

—Oso-osoan ez dira gelditzen, gure mendietako koronarri asko bezala, Urkiola mendi txutxurrekoa, adibidez. Jakina, beherago, santutegia eraikitzean, goikoak begirunea galdu zuan. Mesopotamiako zikuratez Herodotok egin deskribapenetik antzematen dute ikasiek non zegoen eta nolakoa zen. Izenen kontua eta euren sinismena, ordea, sumeriarrek eta euren kulturaren ondorengoek itzi dituzten jakinduriatzko idaztietatik dakigu. Gainerakoa euskaraz baliatuz atera behar dugu. Ba dakigu *Ekur* “mendi tenploa” zena. Mendi temploa urian barruan *etxe kotu* zenean, *Ekur*>*Eskurra*, *Ekurtza*>*Eskurza*, eta *Ekora*>*Eskuria* eta *Segura* osotu zan, eta orobat *ekuri*>*seguru*/*sicuru*>*segur*/*zigur* datoz hizkera arruntean. Edukinez aldatu gabarik *As/exe* arketipoak bereizten ditu: berezko menditarra zena uritar eta *eskulaneko* egiten denean; hako berezko duintasuna zuena, erritoz lorturiko *santutasun zehatzagoz* ordezkatu zenean. Kultura mailan *gorkutik hesizko etxeetara* eta handik tajuzko *etxera* doan ordua seinalatzen du *euskarak*.

—Eta *As* edo *Exe* arketipoak zer gehitzen dio izen zaharrari?

—Uri barruan, *etxe* bezala eraiki tenplo berriarekiko jainko harremonak *santutasun zehatza seinalatzen* duen erritoaz berrizten dira: *gar* zena *eskar* da, *kari* zena *eskari* bihurtzen da, *kara* zena *eskara*, *gale* zena *eskale*, *kura*>*gura* zegonak *ezkurra eskuratzen* du eta *anho*a irrikatzen zuenak *xana*>*jana*, *aki*(*tu*) zegoena *jaiki* egiten da, *gain* zegoenak *eskain* edo *eskaini* egiten du eta *gainditu* zuena *eskanditu*, *uko* edo *baztertu* zegonak *esku hartzen* du, *gano* zegonak *eskanua* jasotzen eta *enda* zirenak *jende* egiten dira: jainkoekiko harremanekin batera, gizartekoak ere aldatzen bai-zioazen, eta euskarak hiztegia egokitzen eta horrela, Mardukek jainkoei egin *Exarra* etxean erregearekin batera *herria* ere *exeri* eta *okia jaiki* ahal ziteken *jainkoen* aurrean.

—Nik euskara *esku-era*-tik datorrela entzun dut.

—Bai, batzarrean eskuartzen duenak hitz egiten du, baina hemen ez edozein hizkeran edo *karan*, *etxe*ko *karan*>*eskar*an baino. *Kara* «era, hots, antz» esan nahi du eta *euskara/iskara* formak ere. *Etxe*>es da gu *jende berezi* aitortzen gaituen seinua. *Etxe* horrek tokian *ekal*>*egal* berezia du, *duena*>*dun* da, *dela mendi-egal* edo *goiko itxas-egal*, *Kaledonia* (Eskoziakoa) bezala. *Duena*>*dona* dager tokizenetan, *Galdona/Donagaldia* izenetan bezala. *Dona* italieraz *etxe* da eta tokizenetan hori adierazten dator. Hala ere, *jende seinua etxe* dugunez, *eskaldun* gara, *kaledoniar* haiek laniez, *jende seinua ostetik dutela, kaledones* bezala. *Eskaldun* jendea gara, beraz, eta *euskal jende jentil* garenez, geure *etxe*ari dagokion *eskara* egiten dugu.

## 16. Basajaunaren orroek

Ekolojistak sortu baino lehenago, ba ziran basozainak eta agintaritzak guarda ofizio hau izendatu aurretik, ba zan Basajauna. Basajauna ez zuen izendatu inongo gizakik edo gizartek, Basajauna ez baizan gizaki arrunta, jainkoek bere sorkuntza harrigarria, basoen aintza aizkoren erasotik zaintzeko izendatu zuten erdi jainko, erdi gizaki jeinua baino. Basoa hitzalgarrria zan orduan, Irati haren ondoan arrasto txiki bat baino ez da.

—Eta Basajaun bakarra zan denerako, ala baso bakoitzak bere Basajauna al zuen?

—Baso bakoitzak ez bada ere, asaben ustez, herrialde bakoitzak, ausaz mendi bakoitzak, bere Basajauna izan bide zuen. Hagatik Basanderea ere aipatzen da Euskal Herrian eta basajaunen enda. Herri gehienak galdu egin dutela Basajaunaren oroitzua, baina euskara mito biziak beti aipatu digu “Basajauna” eta Iratiko basoan, bederen, entzuten omen ziran haren orroek lehenago baten.

—Zergatik Iratin bakarrik eta lehenago bai ta orain ez?

—Ausaz lehenago, almadieroen sasoian, aizkolarien eraso handiak izan zirelako Iratiko basoetan eta, euskal jakinduriaren ustetan, Basajaunari min ematen zion jainkoen aintza zerurantz jasotzen zuten tantai haiek lurrera arras erastea. Orduan, haizete eta ekaiztean, haren aserre orroek ikaragarriak omen ziran eta, berriz, aizkolarien bildurgarri. Gorbeia aldean, Subilaroko enbor adakia ebaitzerakoan, aizkolariak baimena eskatzen omen zion pagoari, eta inoiz barkamena, Basajauna-edo aserretu ez zedin.

—Eta zer ziran almadieroak.

—Almadieroak? Herri basoaren kontura negozioa egiten zuten aizkolariak. Ziur errege edo handikiren baten agindura egingo zuten baso inaustea. Zuhaitzak eratzi eta gero arrastan erre kara jatxi eta ibaiz behera, Ebroz zehar, atzerrira saltzeko, maiz Euskal Herriko basoaren zauriak kontuan hartu barik.

—Eta orain ez al dago almadierorik Iratin?

—Almadieroak ez baina motoserradunak bai. Haien aizkorak ekologistak ziran oraingo motoserren ondoan. Hoiek bost minutotan erasten dute ehun urtetan hazi den tantaia, eta basoari mila urtetako aintza murrizten behingoan. Txarrena, ez dela jada Basajaunaren aserre orroerik entzuten, jainkoen sorkari den izadiari errespetoa galdu zaiolako eta negozio zikinari begiratzen diotelako dirudunek. Hoietarikoak erail bide zuten Basajaun.

—Baina Basajauna erail egin zutela dino mitoak?

—Biziaren *Jauna* erail zutenek, hareago erail zezaketen Basajauna. *Yaum* izena 2.000 K.a. jainko titulo bezala agertzen da Akadiako idazkizunetan. Euskara mito biziari galdetuz, *Ax+Anu>Xaun>Jaun* dator “etxe jainko”, *Ax+Utu>Shedu* “aingeru zaindari” eta *As+Ilu>Zelu* “tuku eta zeli” datorren bezala. Lurreko *jaunek* eta *etxejaunak* eta *zizeluak* ere hagandiko analogiaz jazotzen bai-du titulo hori edo *etxe-zeluko* exertokiak halako duintasun. *Jaunbasak* ere titulo bera zuan, baina *Ba* gizatasunez *beheratua*. Erail *Humbaba* Eufrates ibarraldeko basozaina erail zuten Gilgamesek-eta, baina hori Eufrates aldeko basoetan eta askosaz lehenago izan zan.

—Zelan dakigu Euskalerriko Basajauna baino antxinago izan zen, *aizkora* izanik basoaren arerioa eta *aizkora* izena, berriz, Neolitos aurretikoa izan?

—*Aizkora* trokotza ala *aizkora* fina gero? Sumerian beste inon baino lehenago sortu zan hirigintza eta hatarako tantaia eta aizkora finak behar ziran, laborantzarako golde mutur bereziak bezala. Halako *aizkorak* ahalmen bereziak zeuzkan, jainkoen *ekur/arroka* zatia zelako. Hagatik *Ixkur* zeritson Sumerian Hodei jainkoaren oinastarriari, eta gure artzainek ere borda aurrean *aizkora* hori ezarten zioten ahoz gora oinastarriari, haren indarra, eroriala bertan apalazteko. Beraz, *aizkorak* artezi bereziak zeuzkan bera *Ekur/arroka* tenploko *ate>atx>aitz* zati bai-zen. Aipatu Gilgamesek ere halako *aizkora* jaso zuan Humbabaren aurka.

—Eta Neolitos Aurreko aizkorarena zertan gelditzen da orduan?

—Arteko *aizkorak* izen finkorik ere ez zuen, arteko gizakiak, *Ekur* tenplo *gurena* barik, koba ilunean ospatzen zuelako erritua

eta hitzaren artezia, berriz, Neolitosko erriotan sortzen, gizakiagan sinboloak eta mitoak nahiko argitu zirenean. Gilgamesi ere berea kostatu zitzaion Humababa azpiratzea. Jainko lagun batek esan omen zion Gilgamesi: “Eraso egiok, basoan sartu aurretik, han izkutatu eta bere zazpi atorrak janzteko betarik izan ez dezan”.

—Zazpi ator? Zertarako behar zituan zazpi hator Basajaunak?

—Sumeriar jainko-jainkosen eta erregeen atorra, irudietan agertzen denez, zazpi barailaduna zan, flamenkoa dantzatzen duten andreana bezalakoa. Horrelakoa ziteken hako zazpi jostunek josiriko amonaren gona gorria ere. Zergatik zazpi eta ez bat gutxiago edo gehiago? Zazpikuna zelako arteziadun zenbakia zeruan eta lurrean: zazpi margo ostarkuan, zazpi egun kreazioan, zazpi egun astebarruan, zazpi argizari tenploan, zazpi jakintsu Sumerren, zazpi ordezkari zeru ta lurren auzian, zazpi sakramendu eleizan, zazpi nota musikan, zazpi arketipo hizkuntzan, etab., *zazpi* osotasuna zan.

—Hagatik dira, agian, Euskal Herrian ere zazpi eskualde?

—Hala dino ezaguna zaizuen Aitoren zazpi semeen ipuinak eta “zazpiak bat” ikurrak ere. Zazpi zenbakiak orokortasuna adierazten du, Humabaren zazpi gonak bezala. Gilgames Humbabaren arpegiko jainko lamaren bildur zan eta Enkidu zeraman lagun harako ekintzan. Batak bestea adoretzen zuten bidean: “Hainbeste bide egin eta nola itzuliko gara eretzak moztu gabe? Gu burrukan hasi orduko, joango zaio arpegiko lama”. “Basoko marrara heldu eta eretzen tantaia begira mutu zeuden biek Humbaba sartzeko zen bidean. Humbabak haren hurtasuna usmatuz, orro egin zuan, Gilgamesek aizkorea hartu, basozaina samatik oratu eta hiru-garren golpera Humbaba zerraldo erori zan. Orduan legua bitako inguruan basoek eta hango eretzek urruma handia egin zuten, basozaina jausi zelako”. Bai, Humbaba zeritson Sumeriako Basajaunari. Alderen bat ba dagoela izenean? Baina biak zuten egikizun berdina, biak abotz ozena eta begirakun bildurgarria, biak ziran bizar eta ile luzeko, biek ere oin bata enbor antzera taxutua zeukaten eta oin bata zapala, tantaian gotortasuna adierazten-edo.

—Eta zergatik erail zuten Humbaba Basajauna, eta hako Eufrates aldean hil zutena, zelan agertu zan Iratiko basoan?

—Mitoaren ospea, kultura bezala, handik ona datorrelako seinalea da: aizkorak, lanabesak, haziak eta erritozko hizkuntza. Aizkorak Basajaunari ezeze, basoko eretzei eraso zien. Hatarako erail zuten Humbaba, basoko eretzak eratzi eta Eufrates ibaian behara Uruk urira eramatekotan, Iratiko almadieroek bezala. Hagatik benetako mitoak, giza auziak bezala, ez dute azkenik izaten; errepikatu egiten dira arazoak dirauño. Bestalde, Sumerreko kondairak dinenez, Humbabaren heriotz ostean, haren zazpi espirituak bizi dira eta arerioen aurkako burruka mantentzen dute. Niniveko historioak ere zera ziurtatzen du: Humbabak, hil aurrean, jainkoen zigorra iragarri zuela hiltzaileen aurka.

—Eta egiztatu al zan iragarritako zigorra?

—Horixe, egiztatu zela. Enkidu laguna, berehala gaisotu eta hil egin zan. Gilgames bera ere sarrakioak hartu eta hilezkortasunaren bila alderrai ibili zan harrezkero eguzkia sortzen den mendietaraino, hako ugoldean salbatu zen Ziusudra edo Utanipistin-en bila. Bidean Urxanabi, haren untzizaina idoro omen zuan eta harek Utanipistiren aurrera eraman. “Zerez kezkatzen zara, Gilgames? -esan omen zion Utanipistinek- Bizitza eta heriotza erabagitzen duten Jainkoek bizitzako egunak iragartzen dizkigute, ez ordea, heriotzakoa”. Batzuren ustez, Gilgames ez zen itzuli Uruk herrira ostera haretatik, bada itzulerarik ez duten uretan barrena sartu zan.

—Orduan Iratiko Basajauna Humbaba haren espirituetariko bat izan ziteken.

—Eta Basandere, haren emaztea, non uzten duzu? Baina benetan, Sumerretik Ninivera eta Eufrates ibaitik Iratira, ekologiararen sentikera beretsua gorde izan da mila gizalditan giza bihotzean. Orain teologoek ere ekologia gizakiak Jainko egilearekin izan behar duen ardura bezala aipatzen dute, lehengo mitoen errana gaurko predika gertatzen dela. Hor ikusten da, gaurko gizakiok ere, Humbaba edo Basajaunaren espirituetariko bat behenipehin bizi dugula geure baitan. Izan ere, halako setakeriaz Jainkoak ezarrirako ordezkari basozainak hil zuten gero, gizakiak berak arduratu behar bai-du orain izadi-etxea ganoraz zaintzen eta ekologista izaten, hil edo biziko arazoan. Baina giza jakinduriak izango al du jaun-

tasunik nahiko? Ekologisten asmoa eta oihuak dira dagoneko Basajaunaren orro bakarra, nahiz eta askoren estulak ere ekologiararen peitua adierazten duten. Nongo teologok bihur dezake erre-tzailea, adibidez, edo baso-erretzailea ekologizale?

## 17. Erensuge gosetia

—Nork daki Erensuge gosetiarena?

—Nik Aralarko Erensugearena dakit. Ba, behin, Teodosio Goni, Goiniko Jaunaren semea, ilunabarrez gudatik etxera itzuliberri zela, otoz otoan sartu zan bere gelan eta emaztea beste norbaitekin lo zegoelako susmotan, amorruarren ezpataz josi zituen biak itxumustuan eta bere gurasoak izan ziran erail zituenak. Ogenaren handiagatik, bi oinak kateatuta, Aralar mendira penitentzia egitera behartu zuten Erromako aginduz. Hantxe egon beharko zuan arik eta igaduraren igaduraz katea eten zedino. Hainbat urtetan kateak arrastaka erabilteaz aspertu zenean, lezetik Erensugeak urten eta etzipe-nera iduliazoz, irentzi nahi izan zuen, baina Teodosioren otoitzera, Mikel Enangerua, gurutzeta buruan zeramala, bidaldu zion Jainkoak eta ondamentitik askatu zuan eta une berean oinak katigatzen zizkion burdina eten egin zan eta libre gelditu.

—Harrigarria, Nekane, Errensugeaz edo Irainsubiaz kontatu duzuna benetan eta harrigarriago Mikel Enangeruaren eskuartzeaz, Sakanako herrietan esaten denez. Nik Teodosioren ustezko kate haiek ikutu ere egin ditut, bai eta Erensugearen lezera harria jaurti ere, baina orain ez dager katerik santutegian. Zergatik? Konturatu egingo ziran mitoen benetako lokarria ez dela burdinazko katea, euskara mito bizia baino eta ausaz museura-edo aldatuko zuten. Beste batzuk euskara bera eraman nahi dute museura eta, kateak ezarriz, morroilo bazterrean.

—Aralarko Erensugearena dena gezurra izan zela esan nahi duzu horrekin?

—Ez holakorik! Goiniko Teodosioren erratua, penitentzia eta etsipena askoren eskarmendu garratza izan ohi da gaurdaino munduan, baina Aralarreko Erensugearena eta Mikel Enangerurena

berezia eta bitxia da benetan, zeuk esan duzunez, San Migel gurutzera buruan duela agertzen baida eta horrek Erenseguearen mitoa kristautasunean txertatzen du, ain bikain txertatu ere. Teodosiori ez zitzarion San Migel agertu zaldi gainean eta aztamakiliz Erenseguearekin borrokan, San Jorge neska errugabea Erensugeren atzaparretatik askatzera bezala. Kristo bera izan bai-zan, gurutzan bizia emanik, gaitzaren Erenseguearekin benetak burruka eginik, betiko azpiratu zuena. Aralarren, hagatik, kristau Espiritua dager, etsipenaren edo ukapenaren aurkako borrokan. Erensugeak Teodosio etsipenezko lezera eraman nahi izan zuan eta Mikel Enangeruak Teodosioren otoitza aurkeztu zuan Jainkoaren aurrean. Dena den, mitook, Apokalipsiko Erensugeak bezala, egitiar mito zaharreko Erensugeaz serbitzatzen dira, gaitzaren eta onaren arteko burruka adierazteko, baina mitoa mito, San Migel Enangeruaganako eraspina ez da gutxitu Burundan eta Sakanan, ezeze, Euskal Herri osoan. Mitoa hauxe aipatzen da iragarpenak egiteko Apokalipsian eta teologia berria adierazteko Aralarren. Zer da zuentzat Erensugea edo zer esan nahi du Errensugeak?

—Ba, zaust irensten zuela, San Jorgeren dragoiak hako neskatxa bezala. Hori da dragoi guztiek egiten dutena izugarritzko ahoa bai-dute hatarako. Bua!

—Jo, ba! Dragoiak “tragar” eta Irainsugeak irentzi edo iruntzi, esan gura duzu? Gauza onerako argiegi ipinten duzu arazoa. Zeuk asmatua, ala norbaitegandik entzun duzu? Tebeoetan ikusi duzula, gainera. Bai, axaleko antzik edo analogiarik badago, baina azalekoa beti ere sakonekoaren aurka dagoke. Euskara mito bizia azterbide dugunok hobe dugu, hala ere, berari galdezteza. Erensugea edo Errensugea esatean, noren sugea dela ziurtatzen du euskarak?

—Suge errena dela-edo. Oin bata elbarrituko zion San Jorgek eta, horrealaren erren geldituko zan. Auskalo!

—Zaldun edo santu medarra San Jorge edo denadelakoa, dragoiaren bihotza sastakatu beharrez, oin bata zauritu bazion! Nork jakin? Galde hobeki euskara mito biziari. *Erra* jainkoaren

mitoa entzun duzue, bai eta euskara mito biziak hagan arketipo bat idoro zuela. Egitiarrek *Ra* edo *Rê* deitzen zioten, baina euskarak bokala aurretik joz ahozkatzen: *Ra>Arra*, *Re>Erre* erataraz.

—Konta eiguzu orduan *Rê* edo *Erre* jainkoaren mitoa.

—Eta Erren sugearena. *Erra* jainkoa Maat edo Nut *ortziaren haurra* zan. Maat amak egunero bidaltzen zuan *Erra iruskia* zerutik lurrera, egunari *argi* egin zezaion eta *arratzean* lurreko *arta* eta *arruetatik* zehar ilunaldia jasanik, *orzantzean Erkingu* berean *ertetzen* zan amaren *erraietik*. *Errak erakusten* ditu *orduak* eta *eretiak*, berak *erregetzen halako arraduraz herria ordenu* baten. *Erra erraldoiak, ordea, erreinuko ordena* horren *aurkako areario erraldoi* bat zuan iburniko *arruetan*: Apophis izeneko sugetzerra, Apobasa edo Basa-apoa eta bera. Hori da *Errensugea*. Hagatik, apo *arrunta* ere iguingarri izan dute euskaldunek, apo *arrunta* baratzean-eta ongari delarik ere. Gainera, inori “apotzar” deitzea *irain* handizat eukia izan da gure artean eta nolabait *Irainsubiarena* gogoraztea. Guk ere, mutiko ginanean, apo garbituari edo larrasuge galduari txua jaurtitzen genion albotik igarotzean, iguina eta *erra* adieraztearren.

—Baina zer dela-ta horren gorrotoa eta legeak babesten eta ekologistek ere defendatzen duten pisti baten kontra?

—Ez uste ekologistek ere pristi denak defendatzen dituzten. Ba dago hortik “Apo Tigre” deritzaion apotzarretariko bat apo arruntak, Apophisek giza gaiztoen arimak bezala, zaust irensten dituen. Harena bai dela izugarritzko ahoa! Norbaitek kanpotik ekarri eta aintziran jaregin zuan apotzarra eta, dokumentalean agertzen zenez, aintzirako apoño guztiak iruntzi beharrez ekin zien haren etoi kastakoek. Ekologista lagunok, ostera, aintzirako ordena eta apoñoen naza apotzarren erasotik salbatu nahirik, ordea eman zioten erruki barik apotsarraren kastari. Sardaiatz eraso ezinak, tiroz garbitzen zituzten. Berdin larrasugearen oskada heriogarria da eta halako pristiak garbitu edo kali egin behar ziran. Hoietariko bat zapaltzea ez zen *hiltea*. *Hil* jainkozko arketipoz esana bai-da, beraz, jainkoen borondatea adierazten du, norbait gaisoz-edo hiltzen denean esatekoa. *Galdu, garbitu, akabatu* edo *kali* esaten da bestelako-



etan, giza ganorazko pristien aurkako ekintza denean. Jakina, halako gorrotoa ez dela ulertzen, Egiptoko mitoen aritik Apophis eta Erraren arteko gorrotoaren berri jakin izan ez bagenu.

—Eta Paradisuko hako engainua izan zela-ta, emakumeak sugeari dion gorrotoa ere hortik ete dator?

—Emakumeak eta haren ondorengoak dioten gorrotoa. Hasiera liburua idatzi zutenek ba zekiten Apophis sugetzarraren berri, eurentariko asko Egipton bizi ere egin bai-ziran eta hango kulturaz kutsatu, baina hori milaka urte geroago gertatu zan, eta geroago oraindino Aralarreko Errensugearena. Hor ikusten dira antxinako jakinduriaren ereduak, funtsaz klasikoenak baino sakonakoak direna eta klasikoen oroitan deslai edo ilun dagoena bera ere argi-ago agertzen dela euskara mito bizian. Aralarreko Erensugea apendu zuenak ba zekian zerez mendekatu haren harrokeria, hanartean Baradisuko sugearen engainua mendekatua izan bai-zan, emakumearen Seme gurutzeratu eta berbiztuaren ekintzaz eta horrela hebraierak berak baino hobeki josi ahal izan zituan antxina eta oraina Aralarreko Erensugearen euskal mito zahar eta teologia berriak.

—Eta ze kalte egin zion, bada, Basasapo edo Apobasak Errari?

—Ederto ikasi duzu egitiarren *Apophis* nola esan euskara mito bizian. Apobasak gorroto zuan *Erraren ardatza* eta *ordena: ortzia* beti *ortzian* eta *Erra* bere *arkan* beti *gora* eta *bera*, eta bere *haurrak* haren *errainuen* eta *argien irrikan eroso*, Apobasa, *ordea*, Iburni *arratseko errak erreta*. Ezin ikusi *Erraren erreinuko arau artetsua*, hagatik *irak* hartuta, *Erra rau irentziz*, aren *erreinua oro eratzi irrika* zuan. Eta halatan, *Erraren arka erasotzeko*, *Erra haurra* Maat amarengandik *urteiten* edo hagan *ortzitzen* zeneko *orzanz* eta *arrats eretiak* uztiatzen zituan. Egitiarrak bildur ere ba ziran, laino beltzekaitik-edo eguna atzeratu eta *Errak arpegia* hizkutatzen zuen bakoitzean, ea Apobasak *Erra iruskia arrobatuz*, eta *harraptuz*, berea egin ote zuen. Baina *Erra iruzkia argia* zenez, *ureus* zeritson sugeari zeraman beti bekokian *arerio* basaren *erreparlari* eta horrela *arriskueta aurrera urteten* zuan beti eta, harrezkero, bera bezalakoez esan ohi du euskara mito biziak *eroi*, *erraldoi*, *argi*, *aratz*, *artetzu* eta *Erosle*.

## 18. Piramide bakartia

Abbay ibaia Etiopiako Gorgora mendietan jaio eta abian asten dela, arane haretako Tana lakuan zeru ostin eta anila isladatzen du eta hagatik Nil eta Nilo Azul ere deitzen diote atzerriko geografok, bertakoen *gu´ez* hizkuntzan, ostera, *Abbay* da. Abbay ibaiak salto handia egiten du Tisisat turrustan eta harratean beherako astinaldian apar zuria urtikatzen ditu anilak eta ostinak, bera dela arruko orru eta kantu erabat. Beheko lautadara heltzen deneko, ostera, pausoa baretuz nasaitzen da eta Kartun edo Kardona kalera heltzen deneko, uleak orrasten ditu eta begiak hasieran bezain urdin erakusten. Abiada barean doala, ezkerreko aldemenetik beste ur adazka bat lotzen zaio, ehunetik hogeiginoko urak gehitzen dizkiona: “Nilo Zuria” da geografoentzat, *H’a pi* egitiarrentzat. Nubiako naban bera pozezko saltoa dagi eskumako ibar atetik Atbara ibai adazka hartzen duenean, gero salto gehiago, zirkun-zarkun handian mortuari bere oditik edatera ematen diolarik, Nabda naba ateko jendea edarazten eta Sienen egiten du azken saltoa. Huraxe bai-da Asuango turrusta handia. Asuan izena entzungo zenduen, ez ala?

—Bai, baina Asuango urtegia Niloren lehen urjauzian dago, nik dakidanez eta ez azkenengoan.

—Behetik gora doan egitiar edo geografoarentzat bai, lehen saltoa, baina goitik behera datorren Abbay ibaiarentzat azken saltoa. Gauza berdina da, ikuspuntua da bakarrik aldatzen dena. Euskarak ere berea du *Siene* izen zaharretik *Ataina* zaharragoa susmatzean, gero *Siene>Assuan* gelditu bada ere. Herrien ahoskerak aldatzen dira, baina arketipo berberak irauten gehienetan geofisika berean.

—Zer esan nahi du *Assuan* izenak, ba?

—*Assuan* deritzaion aldetik, ate+une>*Ataun* da guretzat eta hortik gurean *Asune* tokizena ere, baina *Siene ate+ena* “aterik beheinena” geheingotik datorke. *Atbara*, berriz, Atibar gurea bera “ibar ate”. Ateok Abbay eta beste ibaien bideak dira, bere urak han-

dik igarotzen direlako. Eta, hala ere ez didazute dagoneko galdetu *Abbay* izenak zer esan nahi duen, ala ez duzue antzematen?

—*Ibai* izango da, bada, beti ipinen dituzu elkarren ondoan.

—Tokizenetan hala da *Abbay>Ibai* dator, *Abadie>Ibaide*, *Abarza>Ibarza* datorren bezala. Zer esanik ere ez dago *Abbayko* ibaia, “rio Ibaia”, “Arango arana” eta “Ebroko ibarra” edo “Eufra-teko ibarratea” bezela dela euskara mito biziaren oroitza galdu duenen traduzio edo traizioentzat, erderek gaurdaino ezjakinez edo jakinen gainean saldu bai-dute euskara. Eta, zailagoa dena oraindino, euskarak Siene izenetik *Ataina* forma zaharragoa susmo duela, *Tafne* izenetik “ate behena”, edukina idorotzen du, guk ibaiari bezala, euskara mito biziak izenen arrastoari iturbururaino jarraitzeko dion arteziaz. *Abbay* bideko urak ibi direno, ibaiaren alde batetik bestera ibili ahal izango dugu, baina etorriko da udaz-kena eta urak bostpazazpi metrogino igongo dute. Urak Etiopiako lur gorriaz ubertuko dira orduan eta dena ibaituko, urak “behe” (*h'py* egitieraz) *ibitu* arte. *Zoriona* izango da bertakoentzat, erre-kak eratuz, urak urarkatuz, legorra ugaltatu eta uren oldetik soloa zaintzen badakie. Ibaiak zeharkatzen du Egipto *Atainatik* *Tafnera* (hain atetik behen atara), *Tebas* eta *Tell Amarnatik* zehar, *Goierrri* eta *Beterrri* bi herriez “etxe” den *ekua* batua *Ikupta* edo Egipto egitera datorrena. Harrezkero “etxe” *baita*, *bet*, *bit* ere ba da Euskal Herrian eta Sortalde haretan. Bere urietan ere euren eskuz idekitako *Ibai* besangak ziran kale. Egiptok ez zeukan bide hoberik enperioa alderik alde zeharkatzeko. Hagatik *ibai>via* dator eta *ibai+ate>bide*. Asabek izaditik ikasten zuten jakinduria eta hizkuntza bera ere lurrarekiko bizikizunera begira dago, ez bakarrik *Erra/Horus* jainkoaren ortzira, lurrean bertan eta gizaki beraren barnean aurkitzen dituela hizkuntza analogizatze giza arketipoak.

—Bai, hori halan izango da, baina nik *Via Apia* eta *Granvia* bezalako izenak dakizkit eta bata latinetik eta bestea erromanikotik datoz eta batean ez bestean ez dago ibairik.

—Ohar ona dozu hori, arrayoetan: ea, zelan hasi zeiteken gauza bat bustian gero legorrean amaitzeko. Ba dago Gipuzkun ere *Itxaso* edo *Itsaso* izeneko herri bat mendian eta *itxaso* marra-

tik urrun, hagatik bertako batzuk “*Itxaso Legor*” deitzen diote, hako “bustitik” bereizteko, edo batek jakin, adarra jotzeagatik den. *Abbay>Apia* edo *Ibai>Via*, ostera, Erromako kaltzadak baino lehenagoko izena da, *Ibita>Bide* izena eta Egiptoko Enperioa bezala. Erromak, uriburua zeharkatzeko, Egiptoko enperioak bezalako “via” bide zabalak behar zituela-ta, Tiber ibaia kaxkarra eta azala izanik, Emperio guzti zeharkatzeko, legorretik egin behar izan zituan zabalagoak eta zuzenagoak bere gudarien gurdientzat. Bestalde, *via* edo *bide*, idea bezala, ez da berez bustia, *ibai* formatik analogizatua izanarren, ez eta *fede/fide* edukina ere *ubidea*, *gizabidea* baino, *bidelariak*, *abiatzen* denetik, helburua bai-du asmo eta harekin bat egiten du; hagatik *fede* hitz antzeratu edo analogizatuak helbururako *bidea* adierazten bai-du.

—Hori ulertzeko saila da, baina.

—*Bide* edukina aurretiaz jakin barik, ez dago *gizabidea* ulertze-korik, ez eta *eskubiderik* edo *ikasbiderik*, ez eta *fede* barik ezertaz edo inortaz *fidatzerik*, *fidatuz* gero, *fedea* egiten zaizu *bide* eta alde-rantziz. Zuk, egitiar bezala, *ibai-atea* ikusi eta orduan *fite* antzematen duzu *bidea*, zuk bizitzako *bidea* ganoraz ibiltzen duzu eta zure bizi-ganora duzu *fedea*, *bideak* helburura *fite faten* laguntzen dizulako eta *fedea* *fidaarazten*. Analogiaren artezia duzu: bustian hasi eta legorrean amaitu ezeze, ikuskizunean hasi eta ikusezin den idea goitarrera heldu. Hagatik da analogia hizkuntzaren garapena eta artea. Sailagoa izango litzaken *fedea* zer den adieraztea edo haren idea ulertzea, gure asaben *Abbay ibaiaren* bizikizuna asabengandiko lagungarri izan ez bagendu.

—Baina ze *fede*, egitiarrak paganoak izanik, Jainko orde z abere-ak-eta adoratzten zituzten-eta?

—Ene ba! Abere adoratzaileak, ume pobreen orde z, txakurtxo eta katutxo kutunez etxea eta besartea betetzen dutenek, horrek dituzu abereen adoratzaileak. Egia da, bestalde, *Erra* iruzkiaren mendea adierazteko *arrano* hego zabalaren irudia erabilten zutena edo *Ptah* hirugarren mailako jainko sortzailearen maskota *Apis* idia zela, baina horrek ez du esan nahi *arranoa* edo idia adoratzten zutenik. “Pagano” izena, berriz, *baserritar* esan nahi

zuen kristauen gizarte berrian, uritik ate bizi ziren baserritarrak “*pagani*” oraindino Kristoren fedean dotrinatu gabeak zirelako. Orain, ostera, kalean bertan dituzue “*pagano*” eta sinisgaldugari, baina egitiarrak inon izan diren jende erlijiosoena ziran, beraz, *fededun* ziran eta Ebangelioa ere gozoro onartu zuten, haren berri ona izan zuteneko. Ospetsuak izan ziran, hain zuzen, Tebasko padarrak ohiko templo ezetsien mortuan Ebangelioaren gogoetari emanak bizi izan bai-ziren.

—Bueno, zuk *fedea* dinozu, baina non gelditzen da orduan *sinismena*?

—Alafede! Akadiarrek *Sin* edo *Shin* deitzen zioten Nana An jainkoaren alabari, eta analogiaz *shinistu* emakumeari. *Itxina* mendian, *Txindokin* edo *Arretxinagan* aurkitzen dira bere santutegi susmoak. *Shin* “iretargia” da eta *estu* jainkoekiko ganora edo “lotura” dino. Hortik *zin* egin eta *sindo/zintzo* hizkune eta eratorria. *Fedea*, ostera, norbere baitako giza jarrera da, bizitza bideko jarrera, *bide>fide* datorren bezala, “*fedea* dauto”, “*fedea* agintzen dizut” esakeretan agintzen den lez. Eta horrela, euskaldun “*paganoa*” ere *fededun* izan ziteken. Besterik da, sinisgaldua horren *fededun* edo *zintzo* izan daitekenetz. Auskalo. Bakoitzak aztertu beharko barrena. Nik Abbay ibaiari jarraitu nahi nion azkeneraino, bidean erratu barik, on bai-dugu hasieratik azkeneraino bere ibilbidea egin eta hagandiko bizi lezioa hartzea. Abbay ibaiak ba daki *Tafne* azken atea duena eta haraz gero, itxasoan amiltzen dena. Ez du izango beste pausabiderik, ez aukerarik eta astiro eta apal eman nahi ditu azkeneko pausoak, itxasoan desagertzeko presarik ez bailuen. Igaroan ezker aldean, ibarreko mendi bezala, burua jasotzen duen Piramide bakartia ikusten du, harrizko eskilara malkartsuez zerura gonbidatzen duena. Sakara da, nonbait Saharako mendi santutegiaren oroitza handitiko etorkinek Erra jainko eguzkiari jaso. Harexen puntan ikusten du Abbay ibaiak egunero Erraren orzondoko eta arratseko begia, ertze batetik bestera ertetzen, arintzen eta orzitzen. Erraren azken errainuak hain joranez Piramidearen txontxorrean kokatzen dakus eta, une batez, Fenix Txoria ere hegoak astinduz, kexu pioa jotzen. Zein den bere zoria?

Ibaiarena esan nahi dut, nahiz Ibaiak baitarik ez duen, ez ibilian, ez urak okazkatzean ezer barrundatzen. Abbay ibaian bizi den egitiarra da bere baitan ibaiaren behe-ganora odolean jantzirik, apaltasunez ibaiaren zoria gainditu nahiaz, geroarekin bakeak egin nahi dituen, egun inongo poetak barrendu ez dezan hako “gure biziak itxasora doan ibaiak dira, han da Balbea” etsipenezko kanturik.

### 19. Fenix txoriaren hegada.

—Zein da bere kaiola sostengatzen duen txoria? Neuk ere ez nenkian, baina euskal esakunak aztertzean, hauxe irakurri dut: “bere kaiola sostengatzen duen txori bakarra arima da”. Zein da, orduan, arimaren kaiola? Gorputza, noski. Eta jakina, bizirik den artean sostengatzen duena, baina, gorputza hiltean, arimak zer?

—Noiztik da, ordea, arima txori?

—Hori jakinduriazko esakeretan ohar egin ziguten asaben gardiari galdetu behar. Dakigunez, egitiarrek txori itxuran antzeten zuten egitiarrek *Ba* deitzen zuten arima. Eta *Ba>ave* dator eta *Ka+ba>kabia* “gorputsa” da. Forma berez, ez edukinez, euskarak *abi/api* deitzen dio txoriaren etxeari. Hareago, egitiarrek *ibis* deitzen zioten ibai ertzean alikatu eta bizi ohi den txoriari eta bizi sinbolotzat zeukaten bera. Hagatik, *ibis/bizi* da arketipoak aldatuz. *Kabia* lurkoia da (lur *geb* da egitieraz, *kabia>gabia* dator) *Ba*, ostera, bizia bezala, lurpetik edo barrenetik doan *ibaia* da eta *barne bizia* ordezkaten du. *Ka*, hiltean, *Ba* gabe *bagia* gelditzen da: *bake>bage* edo *bako>vacuu* “hutsik” latinez, *bizigarri* zuen *Ba* “alderrai” *vago* eta *aske* “as gabe/arnasarik gabe” usten zuela, euskarak egituraren oroitzen duen bezala. *Ba* gorpua-gandik *ebaki* eta *fan* egiten da, saretik ihesi doan txoria bezain *aske*, noranahi jo dezakela, baina bere *abia/kabiarako apeu* biaz *pioa* dagoela. Hagatik *Ba* txoria hegan irudikatzen zuten egitiarrek euren jeroglifikoetan, baina ez gero txoriburu.

—Ene, ba! “Txoriburu” bere exerlekua gordetzen ez dutenei edo klasean ohargabetzen direnei deitzen die gure andereñoak.

—“Ene ba” dinozu? *Ba* “txoriburua”, ez dela esan dizudala-ta?

Handiagoak entzungo dituzu, ots, egitiar jakinduria, norbere baitan barrundatzen ari dela, “ene *ba!*”, “ene *bak* nahi balu” bakar-hizketan, edo, neure amak ohi zun bezala, “ene *bada* eta Enie!” inkaz. Jabetzen zaree? *Bat* Eni Inkoari inkaz deitzen, hizkuntza-ren ohituraz. *Ba* ezer gutxi da *berez* eta, hagatik, euskarak jainko arketipoz atzizkitzen du, *bat*, *banek* edo *norbait* izenorde eta zenbakietan lehenena egiten duela eta *ba* formaz baldintzatzen du bere *beza* eta *epea* edo *bai* erataraz ziurtatzean esankizuna.

—Bueno, baina horrek esakerak dira. Nik dinodana: *Ave Fenix* “txoriburua” ezpada, zeren buruko da, orduan?

—Euskal esakerak, jakina. Esakera bizi hoietan dago, egon ere euskara mito bizia, eta argiago azaltzen da baserriko esakeretan eta amonen eta aitonon ahotan, kaleko euskaran baino. Eta *Ave Fenix* txoriaz zera esango dizut: txoriburua barik, gizaburudun zela eta hala dager orain ere jeroglifikoetan. Beraz, ez dagoela ohargabetu, bera akort dela eta ez duela aztu ohiko egoitza eta sarritan agertzen da *Ba* bere gorpuzkiaren momia bisitatzen eta haren irudia, piramidean, mastaban edo bestetariko hobian zerraldo dagoen *Ka* bere hegoez laztantzen eta berbizteko *epea* bete dadila eskatzen.

—Eta ezin du beste ezertan edo norbaitengan pausatu, haragia hartu eta bizia eskuratu, Indiako budistak-eta esaten duten bezala?

—Bai, zera! Txoriburua balitz, bai, nahiko zuen zuhaitzen bat-edo non kokatu eta *abia/kabia* egiteko. Txoriburuena egiten dute, adibidez, euskara utzi eta beste hizkuntza bateri lotzen direnak. Baina gizaburudun *Ba*>*Ave* hori bere *Ka* gorpuzkia betiko *apeuz* jasarritzen du, ezin errepikagarri zen nortasuna egin bai-zuten bien artean Antxinako Sortalde Hurbileko jakinduriak, Egiptokoak berere, aitortzen duenez. Euren ametsa, burua enborrari bezala, nor bakoitzari betiko finkatzea zan. Nork egiten dio buruari harrika, drogaren pozoia-edo hartzen duenen antzera? Etxetik ihestea barik, etxera itzultzea zuten amets, euskara utzi zutenak euskarara bezala, eta hatarako jainko-jainkosen errukia lortzea uste zuten, Balbeari ihes egin ahal izateko, *Ave Fenix* horrek “ber-

piztea” iragartzen bai-zuen grekoen artean ere.

—Eta zer da *Balbea*?

—Beheko jainko Baalen zoria *Balbea* zan, ots, *Erio*>*Berio*>*Herio* eta heriotza. Baal, bigarren mailako jainkoa zan, Dumuzi bezala, giza-jainkotua, alegia, Baal udako agortean, landaretzarekin batera, hil egiten zan, eta orduan Balbeak zegoen, gero udaberrian, belarra ernetzen hasten zenean, berbiztekoz. Balbeak *apendu* du *Ba penatua* eta hagatik *apen/pena* dator hizkunez.

—Eta Balbeari ihes egiteko *Ave Fenix* hori gizaburudun txori egin zan?

—Zera: Giza burudun txori horren iruditan giza konplexuaren zatiki den *Ba* zegoela *penetan* eta non kokatu ez zuen txori erratua bezala zebilela baterik bestera, *ben-benaz* bere hutsegiteegatik *pena* bete zedino. Hortik du izena ere *Fenix*, *Bennu* egitieraz. Lehen Ka-gan zegoena, orain Erioren *apenak beenatu* eta *penatu* bai-dago. Grekoek zerbaiten zurrumurrua entzun zuten eta, ume bihurriak bezala, txori haren harrautsak ostutzekotan, haren kabia idoro nahian adarrik adar ibili ziran, ele-mele asko ere asmatu zuten, mitoaren funtsa idorotzeko, baina ez zuten izan guk dugun bezalako gida ziurrik, ez eta erromatarrek “*dii penates*” edo “*asaba benatuak*” nor ziren jakiteko. Eta mitoak, ipuintzen deneko, eta, batez ere arketipoen jokua uzten dueneko, erabat galtzen du indarra, txoriak, lumatzen deneko, hegatzeko trebezia bezala.

—Zer da *ipuindu*?

—“Baina nik txoria nuen maite” abesten denean nungo txoriaz ari da abeslaria? Euskal Herriaz, ez al da? Mitoaren funtsa idoro beharrean, hitz politetan galtzea, txori lumekin gelditzea bezala da. Eta honetan egitiarrak baino txoriburuagoak izan ziran eladetarrak: funtzezko mitoen aztarrena galdu eta euren kabuz eleberriak egin bai-zituzten eta maiz jostagarri, erromatarrek, berriz, euren enperioa handitu eta batean lotzeko uztiatzen zuten herri zaharren jakinduria. Halakoek ez dute *Ave Fenix* mitoaren hautsetatik berbizten ikusiko.

—Orduan *Ave Fenix* bere hautsetatik berbiztuko al da?

—Ene ba! Nik poetikoki ninoan. Hala ere, *Ba* honen itxaropena egiptiarrek Maat jainkosaren zuzentasun eta errukian uzten zuten. Bera zan *Erra* iruzkiaren ama, beraz, Maat “zeru-ateak” egunero altsoan hartzen eta egunero erditzen bai-zuan *Erra* “eguzki” semea. Munduak horrela jarraitzen zueno, gauaren ostean eguna izango zela uste zuten, *apenaren* ostean, barkamena eta heriotzaren ostean, bizitza berria bezala. Egiptiarrek Sakara Piramidea jaso zioten *Erra* iruzkiari etxetzat, Eskaramendu, mendi sagaratua bailitzan, eskailera eta guztiko tontorra, *Erra* jainkoaren *aurrera*, *arren*, *erregua erratera* igotera gonbiatzen zuena. Hantxe kokatzen ei zan *espa* handiz une batzuetan *Bennu* txoria ere.

—*Ave Fenix* esan nahi duzu?

—Jakina. “Anima en *pena*” dino gaztelaniak, baina askozaz geroago eta euskararen gida galdu zutenen hizkuntzan. Piramidea Erraren temploa eta erabat Faraoi erregearen hobia zan. *Farau* izena *Ba+Erra* giza eta jainko arketipotik dator “Erra seme” adierazten, haren ordezkari bai-zuan lurtean. *Erra* bezala, *arkan* erabilten zuten Nilo eta itxasoko uretan, *Erra* bezala, *orix* buztartuen abiadan *organ iragoten* zituan *ordekak*, *aranak*, *eremuak* eta *arruak*, eta *eriotuz* gero, Faraoiaren *erastunak*, *arranoaren* hegotan *airean arintzen* ziren *Erraren erreinura*. Egiptoko *erregea arrandiz* bizi eta *ortzitzen* zuten *harrizko* Piramidean eta *harrian* taxutzen zuten *errege* eta *erreginearen* irudia, *Ba* hegalariek etortean, bakoitzak bere ohiko Ka egoitza, *kabia*, behingoan ezagutu ahal zezan. Egiptiarrek *Ra* deitzen zioten *iruski* jainkoari, baina euskarak, sumerierak bezala, arketipo konsonantea bokalen bat aurretik duela ahozkatze ohitura du.

—Eta Euskal Herrian zergatik ez zan egin piramiderik, Egipton bezala, *Erra* jainkoaren berri-edo izatekotan?

—Euskal Herria piramidez beterik dago: mendi bakoitza jainkoen piramide edo santutegi da, baina batzuk, berere, hiru zokodun eta punta zorrotz agertzen dira apropoz jainkoek eginak bailiran, hagatik Ainamendiri era *Pirene* deitu zioten.

—Baina mendien jaiotza hori Geologiak lurreko berezko indarrez sortuak bezala azaltzen ditu.

—Jakina, baina Geologiak ez ditu azalduko hainbeste mendiri nor ipini zien *Arramendi*, *Erremendi*, *Aramendi*, *Armendi*, *Ramonte*, *Eskaramendi* edo *Sacromonte*, etab., izen. Bestealde, gurean ez da Egipton bezalako harlandurik edo hatarako beharko litzaken enperiorik ezagutu. Kultur zehaztasunok ez dute itzaltzen izadi eta gizakiarekiko zuten burutapen kutsua.

—Baina momiarik, ez harrizko irudirik ezean, jende arrunten *Ba benatua* nola moldatzen zen ohiko gorpuzkina ezagutzeko?

—*Harrian* ezin zutenak *arbel errean irudikatzen* zuten *heriotuen arpegia*, eta azken aldi marrazkiz ere eman zuten zenduen *oroitza*, bada herri xeak ere Faraoiaren zoria nahi zuan beretzat beste munduan. Orain ere hobi askotan agertzen da zenduen irudi edo argazkiren bat, baina jendeak ez daki noiztiko eta zertarako ohitura den. Euskaldunek *Erra* edo *Utu* iduzkiaren seinua aukeratzen zuten hobiburuko harrietan.

—Haur zendu edo jaiogabeak ba ote dute holako txori hegadunik?

—Arimarik ete daukaten galdetzen didazu? Izenen gorabehera da. “Gorputz eta arima” horixe da funtsean Ka eta Ba arketipoen edukina. Eta hori grekoen *psykhe* edo *pneuma* baino gehiago da, bai eta *gano* edo *gogo* baino, “ez dut gogorik” esaten dugunean. Baina danok daukagu baitan “ene Ba!” Bestalde, ez al dituzu ikusi eskeletan haur zenduen irudiak giza hegadun agertzen direla? Bai, aingerualakoak edo errugabeak direla aitortzen. Errudun edo errugabe nor zen Maat jainkosaren pisuak bilintzi-balantza frogatzen zuan. Berak pisatzen zituan gizakien bihotzak, bakoitzaren egite onak ala gaiztoak irabaziko. Eta *orduan*, *erra*, *erru*, *ordain*, *ordena*, *ertu*, *herio*, ala *era* ta *eroso* edo frantxesen *heur* eta *hereux* izakera, etab. hitz *eredu* beretiko kimuak *ernetzen* dira.

—Eta zer esan nahi du *Eriok*?

—*Erio* edo *Herio* *Erra* jainkoaren *ira* eta *erraren* ondorioa da. Behin, *Errari*, bere zahartzaroan, *haurrak arramantza* edo *erronka* jo zioten. Harrezkero, *heriotzaz ordaintzen* dute *haurrak errua*. Hala ere *Erraren erraiak*, *errukitu* egin ziran eta *arras errauztetik erosi* egin zituan *haurrak*, Heliopolisko mitoak dinoenez. Hathor,

*Erraren* alaba, aitaren *erabakia* betetzekotan, *erioz erasotzeko* zela, *erresumina* baretu zekion, *Erra* aitak *arinoa* edarazi zion. Haraz gero, *Ba Beenak errukia erregutzen* dio *eroiuz Erra* jainkoari, *pena barka* dezaion eta, haren Piramide *erpinean aresti* baten kokatuz, bizi berrirako *airean harrapatu* dezala, *arren, oroitarazten* dio.

—Piramidearen eta Erra jainkoaren arteko zera gauza polita bai, baino arraro xamarra da niretzat.

—*Arraroagoa* da neretzat *Erraren* teologia hori, *erratu* gabe, antxinako *erranen errepika*-edo bailitzan, izen eta aditz, hain *argiro* euskara mito biziak errepikatzea. *Erra* erabat *eroia* eta *eroa*, *Horus* eta *Eros* grekoa, haren ondorengoak, baizen *erosle* eta *eroriazle*, *erratsu* eta *eratsu* diren bestean. *Piramidea*, berriz, *Ibarmendi* da, Egipto Beheko ibarrean ez zegoelako bera baino beste mendirik. *Men+ate* da *mendi*, ots, “boterearen atea” eta beharraren atea erabat. Mendian bizi den jainko ahaltsugana joan beharra zegoen, piramidea bai-zan Egipton Behean beste mundu goitarrera idekita zegoen ate bakarra.

## 20. Aitoren seme-alabak

Euskarak “Errensugea” dinonean ez dino “sugea errena-edo” denik, ezpaere norbaiten sugea dela eta nor hori den Erra ezagutzen dugunean, ulertzen dugu euskerakada “Erraren sugea” bailitzan, jakinik *NOIN/NOREN* kasoaren forma, *-en/-aren* dela, bata bestea bainoa zaharragoa. Era berean, euskarak “set egin” dinonean ez dino “uts egin”, Seteri jasotakoa azpimarratu baino. Beraz, Set horri jasotakoak ikertu behar ditugu euskararen jakintzaz jabetu ahal izateko. Orobat euskerak “aitoren seme” dinonean, “seme aitorra” edo “alaba aitorra” esateko forma zaharra nondik datorren, esaten digu. “Aitor” hori bilatu beharra dugu.

—Aitor? Euskaldunen antxinako aitalena, Agustin Chaok asmatua, hain zuzen, *Aitoren kondairan* edesten duenez.

—Zuk zer dakizu kondaira horretaz?

—Askorik ez. Bakarrik Aitoren zazpi seme-alabena. Ba, behin Aitorek bere zazpi seme-alabei deitu eta zazpi makiladun txorta

erakutsi eta zera esan omen zien: “Saririk ederrena txorta hau hausteko denari”. Hasi ziran, txikienetik hasita, seme-alaba denak txorta hautsi nahirik eta ezin izan zuten. Azkenik seme nagusienak txorteari oratu, lerrenak egin eta ezin izan zuan harek ere eta zazpi seme-alabek batera esan zioten Aitor aitari: “Ez dago hori apurtzekorik”. —“Etzet? -erantzun zien Aitorrek-Ekarri txorta hori”. Aitorek egur txorta askatu eta banan-banan eskubiekin belaunaren kontra hartu eta krak apurtu zituan dena, bata bestearen ondoren. “Horrela bai, horrela edonork, aita” -erantzun zioten seme-alabek. —“Horixe entzun nahi nuan, seme-alaba maiteok, zeuon ahotik: Edozein alboko herrik azpiratu zindeikezela, banantzen bazarete, baina inortxok ere ez zaitue suntzituko denok txorta estuan elkartzen bazerate”.

—Lezino polita, txo. Holako eta beste pasadisoak Agustin Chahorenak izan dizitezke, baina Chahok berak ez zuan asmatu *Aitoren seme* tituloa. Hori euskal esakera da eta gizaldi bi aurretik Oihe-nartek ere aitortu zuena eta *Ait'jori<aita jori* nolabait azaldu zitezkelakoaz. Esakeretan dago hizkuntzen artezia ezeze, jakinduria eta irudizko zentzuaren aurretik dago irudia eta hitz bakoitzaren aurretik, haren arketipoa. Ondoren dena da analogia. Chahok ez zuan asmatu *aitortu* aditza ere, Aitoren seme-alabek *aitortzen* zutena. Chaok ez zuen asmatu *aitor/haidor* hizkunea, hitzaren ingurua bata bestearekin osatzen duena, “mazala/jentila” ere ba dela adierazteko. Chaok ez zuan asmatu *tortu>sortu* eratorria, Aitorengandik sortuak-edo garela esateko. Era berean, *orzi*, *orzargi*, *arzantz* edo *ortzi* esaten dugunean, “zeru”, “zeruko argi” edo “hodei, trui moi” baino lehenago, haren eragile *Urzi* jainkoa eta *Orzirale* hari eskeini eguna aipatzen dugu. Hila “lurperatu” barik, *orzi>orzitu*, ots, “*Orziri* gomendatzen” ziotela aipatzen zuten. Zertako *Orziri*? Hain zuzen ere, *Orzi* bera zelako arratzero *orzi* eta *orzanzean* bizirik urtetzen zena. Horixe bera opa zioten zenduari *Orziren* aitorpenean eta artezian, *Orzi Hatoren* semea zelako.

—Orzi Aitoren semea izan zela? Ez dugu esan, bada, Aitor euskaldunen aitalena izan zela eta Urzi, berriz, jainkoa? Zenbat jaungoiko zeuzkaten, bada, antxinako euskaldunek?

—Aipatu dugunez, euskarak izen monosilabodun lau jainko ditu arketipotzat eta gainerakoak euren bigarren edo hirugarren belaunaldikoak dira. Hagatik izen arketipo bikoitz edo hirukoitz agertzen dira euren artean eginiko eskontzagatik, gutariko bakoitzak geure abizenak kontatzen ditugun bezala, aitarena, amarena, etab. Horrela *Hator* Erra egipziar jainkoaren alaba *dotorea* zan eta *Horus/Uruzi>Urzi* haren semearena, hala agertzen bai-da *Orusemendi* eta *Orzumendi*, hari eskeinitako santutegi izenetan.

—Eta zerikusi dute elkarrekin euskaldunen Aitor aitalenak eta Erra jainkoaren alaba Hator jainkosa egiziarrek?

—Arketipoek analogizatuarena, hain zuzen: *Horus*, euskaldunen *Urzi*, jainkoak Hator amagandik lortu zuan bere duintasuna eta Erraren iloba Erraren kasta *arrakastatsua* izatea, ilobak hartzen bai-du aitona ospea eta herriaren jaiarak *Hatoren seme* onaren arrakasta aitortzen zuan zeru-lurretan haren garapena lortu ahal izateko eta ez Hator jainkosaren seme gaiztoarena.

—Zenbat seme izan zituan, bada, Hator jainkosak?

—Anbotok Marik bezainbat, bi eta, harenak lez, bata *ore*, *Horus>Urzi*, bestea, seta, *Seth*, argia eta iluna bezela bai-ziran. Horusen begi biak iruzkia eta irargia ziran. *Horus* semeak azore txoriaren hegadaz *ortzira urten* eta *urt* egiten zuan, *iruzkiak orzondoan* lez. *Horus>Urzi* “urdi, urtena” da edukinez. *Seth* anaiak bekaitza zion *Horus Urtenari* eta behin, *seta* gaiztoak eramanda, begi bata atera zion *Horusi*, eta *Toth* jainkoak konpondu zion. *Hatoren* seme *Horus* gorai patua izan zan bere bizitzako une guztietan: “*Horus Haurra*”, “*Horus Ertaina*” eta “*Horus Erraldoia*” ezagunak zirela Egipton eta bere enperioan eta “*Urzi Gurena*” bezala Euskal Herrian. *Seth* haren anaiak, oster, *set* egin zuan, jainko seme bati zegozkion erabakietan eta, *Satan* bezala, deabruen erreinura barreiatua izan zan. *Seth* ilun seme zan, hagatik euskarak *setilun* deiten dio aiurri mukerdunari.

—Orduan zergatik aipatzen dira Aitoren seme edo alaba jatorra bezala, Hator ama jainkosaren semeak, bata ona eta bestea gaiztoak izan baziran?

—Hor eskolabidea dago: halako jatorriari, halako erantzuna

eman behar diola seme-alaba bakoitzak eta, berez, jatorri honeko haurrak izanarren, seta onak edo seta txarrak bakoitza onera edo txarrera intzigi lezakela, *Horus* eta *Seth* bezala. Aitoren seme edo alaba gorai patzeak hori dino: “kontu Aitoren seme-alabak zaretena, Aitoren seme-alabei ez dagokie gezurrik esatea, etab.”

—Eta zer ikusi dute elkarrekin Mari eta Hator jainkosek?

—Arketipoei dagokienez zahartzaro berdinekoak dira biak eta ama-agintearen garaikoak. Mari gehiago dela jakinduria jainkosa, bere lege edo zuzenbideko marrakin bakoitza gidatu eta markatua berez zigortzen zuena, esan bezala, *Hator*, ordea, maite jainkosa da alde batetik eta halatan, lira bezalako adardun, adar artean eguzkia duela, *atoratu* egiten ditu guztiak bere etxera, eta *azoratu*, berriz, bere maitaleak edo pozez *txoratu*, baina ordainzale den aldetik, *Shekemet* da, leoi burua jantzi eta *adore* bereziz min ekiten dio burrukan, aita Erraren ordenaren alde. *Hator* jainkosak *sheken* arranberaz *azoratzen* du eta orduan emakume *xekena* “maitagarria” da, eta bestelaz, *zekena* “gogorra” benetan.

—Zergaitik antzeko hitz bi, kontrako edukinak adierazteko?

—Hizkune gehienak euskaraz ildo bereko antzekotasunean oinarritzen dira, baina *xeken/zeken* elkarren kontrakoak direla, Hator jainkosaren elkarren aurkako arpegi bien antzeratik dator. Ohar *sheken* egiptieraz “arranbera” dela eta arraskoa eta arranbera emakumeen soinuak dira erromerian, biak ere iruzkiaren borobila antzezten dutelako eta, aipatu dugunez, Hator jainkosak adar artean eguzkia zeraman. *Orde/ordi* hizkunea ere ez genduke ulertuko Hator jainkosaren jokera ezagutu ezik. Erra aitak haur arramantzariak errokatzeko ordena eman zion alabari. Hator alaba, *Sheke-met* antza hartu eta erratuei *ordea* ematera joiala, Errak, hurrez erukitu, eta alabari ardaoa edarazi zion. *Ordi* geldi zan eta ez zuan bete aitaren ordena. Ipuina dela edo mitoa? Eta Erra jainkoaren errukia ere bai? Baina asaben hizkuntza handik analogizatzen da. Hator izenak, bestalde, “*Horusen etxea*” esan nahi du, ama sortzetik delako haurren etxea eta, beraz, etxeko andrea. Bestalde “*Amaren seme*” esaten da, ez “*aitaren seme*” gizaki jaiotakoari buruz. Euskaldungoan, gainera, “*amaren*

etxea” eta “ama euskara” aipatzen da eta “aitaren etxea” esakera semitismoaren kutzaduraz oraintzu sartu den esakera da.

—Eta ama-agintea noiztikoa izan zan Euskal Herrian?

—Ama-agintea umetzarako agintea da eta herrien kulturak ere umetzaroa izan zuan K.a. bi milagarrenera arte, Sumerreko uriak sortu eta familia esparrutik baino harago zioen, gizarte erakundea sortu zenean. Baserrietan, hala ere, eta semitar kutsutik urrundu lekuetan gehiago iraun zuan umetzaroko amaren legeak. Mari zan Euskal Herrian lege hoién irazle, Egipton Maat zen bezala, eta hagatik esaten dugu “euskara ama”, berak ematen bai-digu euskaldunoi bizi-ikasbidea. Beste herri batzuk, semitarrak bederen, “patriarka” zeritzen aitalenen agintekoak ziran. Hoién antzera eta funtzezko erratuz, asmatua izan da *Aitor*, euskaldunen aitalena ere, eta haren seme-alabatzen euki euskaldun aitorrak.

—Orduan *Aitor* aitalena barik, *Hator* amalena izan al zan euskal jatorriaren eta euskaldunen yaiotasunaren sorburu?

—Bai, *Hatorren atorreko*, amagandik *sortuak* hagandik baidugu *aitor* edo *jator* izatea eta hori Erra jainko-alaba *Hator* jainkosagandik harakoa dela *aitortzea* da, jainkosa honen Orzi eta Set bi semeen okordua ere euskararen esakeretan gordetzen direlako.

—Eta “*hator*, mutil etxera” euskal abestian ba ete dago *Hator* jainkosaren akordurik-edo, bere seme urduriari etxera deitzen zioneko santzurik?

—Ausarta da zure oharra, neska. Esan dugunez, *Hator* da “Horusen etxea”, Horus “urrundua” esan nahi du, etxetik *urten* eta *urt* egina edo *urdua* da edukinez. *Hator* amak *atoratu* egin nahi du bere seme *azoratua*, hau da, *astore* bihurtua, hortik zehar *astoratua/azoratua* dabilena, *azoratu>zoratu*. “*Hator*, mutil” agintezko forma ezeze, ama agintezkoa da, *tor/torri* erro-ra lotzen den aditza, arketipoz berdina eta, ausaz, *erdu* arketipo ber-bereen itzulitako forma baino zaharragoa, aginteko formak bai-dira, oihuzkoekin batera, hizkuntzaren esakune zaharrenak edozein hizkuntzatan.

## 21. Olentzaroren oldea

*Olentzaro* mundutik aparte bizi zan mendian ikazgintzan. Ez zeukan erlojurik, baina egunero eguzkiari begiratzen zion eta urtean zehar eguzkiak, igarri ere egin barik, erkingua *Olamenditik* Belamendirantz aldatzen zuela konturatu zan. *Olamenditik* urteten zuenean, Ekainetik hurbilago, berotu egiten zuan, baina *Lotazilean*, Belamenditik, Egorantz baztertuxe, agertzen zan eta ostaz berotzen zuan lurra. Jendeak orduan subila ixiotzen zuan berotzeko eta sutonoan kokilduta itxaroten zuan ordu hobeen *heldutasuna*. Ikatzak prezio hobea egiten zuan orduan. *Olentzaro* behin ikatza saltzera barik, “Jesus jaio dela” oihukatzen azaldu zan kalean. “Jesus jaio dela” eta non utzi duk, bada ikatza?” -erantzun zioten Artekalen”. Harrezkero, kalean ikasginaren mezua kantuz ospatzen da. Nork daki abesten?

—Neuk. “*Olentzaro* joan zaigu/ mendira lanera/ intentzioarekin/ ikatz egitera./ Aditu duanian/ Jesus jaioa dela/ lasterka etorri da,/ berri ematera”. Baina, nola edo nogandik aditu zuan *Olentzerok* Jesus jaio zena, mendian bakarrik bizi bai-zan?

—Ala! Nevadako artzainaren entzungailu ospetsurik ere ez zeukala esan zezaken. Auskalo, bada, aingeruren batengandik-edo, hoiék ere goietan ibiltzen bai-ditun. Edo gaueko izarretan adituko zunan, bada menditik kaletik baino hobeki ikusten ditun izarrak. Halatan, bada, *Olentzarok* musua suaz gorritu eta ikatzaz arpegibeztu ikustean, kaletarrak, “horra, horra” mozkortzat hartzen zuan eta mezulariaren lepotik barre egin. Baina, egitan, *Olentzarok* mendian ez zeukan ardorik eta, ura baino besterik ezean, edan ohiturarik ere ez zuenez, kaletarrak baxo erdira gonbidatu orduko, mareatu xamar gelditzen zan eta mezua lardaskatzen. Mezua ulertzen ez zutenak parre egiten zioten mezulariari. Mitoekin berdin gerta ohi da: grekoek bezala, azalera jotzen dutenak mezua jakinduria galdu egiten dute, eta halatan mozkor baten piuraz gelditzen dira eta *Olentzaroren* mozkorra txalotzen dute, Jesus jaioberriaren Eguzki Berria ospatu beharrez eta “horra *Olentzaro*, Kristoren mozkorraz” aldarrikatzen.



—Baina Olentzaro mitoa bada, ez zan existitu.

—Eta Olentzeroren mitoa asmatu eta neguoro jaia ospatzen duen herria existitzen al da? Askok nahi lukete ukatu horixe ere. Lehengo izena ukatu eta gero izana. Oso listoak dira. Olentzaro neguteko ospakizuna mitoen garaikoa izateak ez du esan nahi haren inguru nabari diren pertsonaiak eta mezua ere ez zela existitu, askorentzat zurrutera murriztu geldituarren. Ez zan existitu gu bezalako gizaki arrunt bezala, baina Olentzaroren pertsonai menditarrak ikazgintzan ezeze, herriko plazan eskolatu zuen herria, bertsolariak bertsoan eta profetak profetagintzan ohi bezala. Ala bertsolaria sagardo-edalea al da, bertzo ederren lagungarri zurrutak egiten dituelako?

—Olentzaro profeta bat izan al zan?

—Mezularia izan huan, batez ere. Profeta harego huan Ataunen Balankalekuko Agure Itxua, behin izar berezia begiztazetik Kixmi edo Kristo iragarri zuen harakoa.

—Bai eta zergatik bota zuan burua lezera, edo lezera bota zezatela eskatu?

—Mito asmaleak horrela adierazi nahi zuen asaben antxinako erlijioa antxinatearekin amaitzen zela eta bizi berriak bizi zaharra aihenatzea eskatzen zuelakoa. Ez dugu, ausaz, irudi hau behar beste sakondu. Itxutu askoren tentazioa izan ohi da, bestalde, burua agnostizismoaren leza ilunera jaurtitzea: ezentzuna eta ezikusia egitea. Ausaz ikusle zirela, ez zuten argi handirik ikusi eta ikuskizuna edo fedea galtzean, etorkizun obaria baino nahiago izan zuten eskuarteko huskeria. Olentzaro ez zan izan horretariko: burua lezera bota baino nahiago izan zuan aldi berriko izarragan sinistu eta “Jesus jaioa” iragarri eta alaiki ospatzea.

—Euskara mito biziak dana badaki, zer esan gura dau *Olentzarok*?

—*Olentzaro* herriko salbatzailearen azken *elekaria* duzue. Bera baino askosaz zaharragoak izan ziran *Ononzaro* “Anuren aroa” *inoen* garaia eta *Suilaro* “Utu-il aroa” *oihutzen* zuena, *Oronzaro* “Horusen aroa” *eresten* zuena. Eta hoiendoren dator *Olentzaro* gaurdaino “*Iluren aroa*” *elekatzen* edo *Ilu* jainkoari *oles* egiten

diona. Lau jaungoiko sortzaileen aldia eta ospakizuna adierazten dute, lau jainkozko arketipoen erataria esana. Laurak datoz herrien aldi berriak hasierako jainko itunbenez lotzera, bata *inoz*, bestea *oihuz*, harakoa *eresiz* eta azkena *olesaz* eta *oleriz* aldien prozesioan jotera. *Olentzero* izan zela euskara mito biziko zuzia azken hartu zuena eta hagatik haren mezua azken aldiko gertakariez hurbilagotik lotzen entzun duguna.

—Olentzerok *oles* esan nahi du, ala?

—Olentzaro *Ilu* legezko *Iluno* jainkoa da eta *iluna* da bere erlozuak markatzen duen *aldia* ere: *Anen* ordua, *antxina*, *Utarena*, *atxina*, *oxtian*, *Errarena*, *arin*, *orain* eta *Ilurena*, *lein*, *olim* latinez. Eta *une*, *tenore*, *aro*, *aldiok* berdin markatzen dute joana eta oraina, jainkozko arketipoen euskara mito biziak uneoro kontatzen digunez. Olentzaro mezulari dela? Hizkuntza hareago. Olentzaro profeta? Euskara ere, argi askodun profetia eta jakinduria da.

—Ole! Baina Olentzarok garbi zer esan nahi du?

—*Iluren aroa*. *Ilu* semitarren jainkoa zan eta *El*, *Alá* ere ahozkatzen dute. Hebertarrentzat *Elhoim* da *alaen* jainkoa, ots, “jainkoen jainkoa” eta euskararentzat *laugarren* jainkozko arketipoa. Sumeriarrek arrenkuraz begiratzen zioten jainko honi eta inoiz gaitzen sorle deabrutzat ere jotzen zuten. Nonbait bere aglutinazioko *Enlil* jainkoa zuten gogoan. Euskarak ere bere *al*, *ahala* *elekatzen* du *alde* batetik eta bere *ahul*, *hil lehia*, bestetik.

—Ez, nik Olentzarok beste arketipoek bezala, “zeru” edo “eguzki” esan nahi ote zuen jakin nahi nuen.

—Ez bata, ez bestea. *An* da “zeru” eta *Utu* eta *Erra* “eguzki” sumertarren eta egiptiarren jainko nausien sinboloak. Semitarrek ez dute jainko-sinbolo zehatzik onartzen, hagatik beti ere irudien aurkako jendea da, judeguen eta islamiarren erleginoan gaurdaino ikusten den bezala. Hori dela-eta ez zuten onartu Jainkoa giza soinean ager zeitekenik. “Eurenean jaio zan eta etxekeok ez zuten ezagutu”. Baina euskara mito bizian ba dago *Ilu* jainkoaren sinbororik. “Zeru” edo “eguzki” bikainenak ez ba dira ere, hor ditugu bere *lekuko*: *ilun*, *ilargi*, *laino*, *litx*, *leinuru*,

*latx, laku, lur, landa, larre, laratz, etab. Ilu* arketipoaren *lekukotasuna elekatzen* eta, batez ere, haren *âl, ahal alaiagarri* edo *aul, ahul, îl, hil ilumetan, batean iole, ela! oles* egiten zaiola eta bestetan *el, hel! alakatzen*.

—Ole, Olentzaro!, orduan.

—Edo eta *ale!, elas!, alajainko!* etab. Jainko arketipo guztiei egiten die euskarak *lauda* eta halako otoiz labur oihuzkorik. *An* jainkoari, *ene, eni, ino, año, Uturi, otoi, otian, eit, txut, uxala, Erra* ereduari *ara, arren, rau, arre, arraio*, etab. Euskara beti ere kutxa idekia izan da, hizkuntza askoren ama bailitzan: denari begira, kultura askotatik jaso du berak halako mitologikaz, hau da, sinboloen logikaz, osatu duen hiztegi altxorra. Izen larregi, norbaitek esan duenez, edo eta euskalki larregi. Baina euskalkiak euskarak berak dituen arketipoak beste baino ez dira, zazpi eskualde, hain zuzen: Nafarro, Xubero, Araba, Laburdi, Gipuzku, Bizkai eta Eskalerri, zapi eta bat: zazpi arketipo batean, izen bakoitza jainko edo giza arketipo bakoitzari dagozkiola.

—Gure eskualdeak sei direla entzun dut nik.

—Horixe. Sei eta seirak osatzen duten herria, zazpi, ez hala? Jainko sinboloa ere hiru izenek osatzen dute eta *Ilu laugarrenak ahalmen* berdinean *lotzen* ditu. Orobat gizatasun ordezkariak ere, *Ka* eta *Ba* dira, baina bata eta bestea erritozko *santutasun asak Etxe* eta *eskanu* berean *eskuartzera exeriazten* ditu.

—Ez dot ulertan ezebe! Ez, zenbat diren, ez zertarako.

—Ez hadi larritu, ez harritu, nahiz harrigarria den; hurrengoan ere izango joagu zertaz jardun eta zer azaldu. Baina laburki esanda, lau eta hiru zazpi ordezkari dituk: lau jainkozko eta hiru gizatasunezko. Zer ordezkatzan duten? Jainkoen eta gizakien arteko ordezkarien elkarrizketa argia. Zertarako? Denak, jainko eta gizaki, elkarrena ulertuaz, itunben ulergarriagora heldu ahal zitezten.

—Eta heldu ziran?

—Helduko ez ziran, ba! Batzarrean bakoitzak bere postua hartzen duenean, jainkoek han eta gizakiak hemen, adostasuna sortzen da. Baina gizakiek jainkotxo izan nahi dutenean, ez dago

itunbenerako biderik. *Diabru* “burudia” den erensugea, gerkeraz *diabolu* deitua, jainko eta gizakien arteko ituna apurtzen *diaballeim* “diabrutarat jaurtitzen” ahalegintzen da, eta hizkuntzako arketipoen *sinboloak*, ostera, jainko eta gizakien arteko ituna osatzen eta zaintzen dute.

## 22. Balbea eta Azaga

Gizakiak bizitzan osasunaren arerio asko dituen gero, arazoak izaten ditu hoiaren aurkako burrukan. Nortzu diren ezagutzea artezia zan, bada, edotariko gaitzok jainko edo jeinuren baten begizkoan izaten zuan iturburua. Hagatik gaitzak eta gaizkileak izen berbera daukate. Gizakia arerio edo etsaiokin bakeak egiten saiatzen zan, gaitzetik jaregin ahal izateko.

—Zer da begizkoa, begiradaz urtikatzen den indarren bat, ala ikusiezina edo bekaitza?

—*Udi* “xulo” euskaraz eta *udi+ate > udjat* “begi” egiptieraz. “Bizia kendu asmoa du bere begian” dager euren esakeretan. Geuk ere begia alimuaren lehotzat daukagu, “betargi” edo “betilun” esaten dugu eta norbait maite denean “begi-begiko du”. Kainek “bekaitzez” begiratzen zion, ordea, Abel anaieari eta haren “bekaina” ilundu egin zan. *Udjat* hitza eta euskaratik latineran doan *udigo > odiu* “gorroto” *Utu* iduzkiaren begitik analogizatzen dira, eta jainko arketipoak burutzen duen *udigo* bera da giza arketipoz esaten den *begigo*. Iduzkiari “Jainko begi” ere deitzen zaio eta hagatik eskatzen zaio Jainkoari: “begi onez, begitar-te gozoz, begiratu gaitzatu, Jauna”. Begizkoaren artezian sinisten zan, besteen asmakeriak norbere mesede eta kalteen sorburu emoten zirela, eta jeinu gaiztoen eginkizuna, berriz, norbere gaitzakerien zigortzat ematen ziren bezala.

—Zeintzu ziran jeinu gaiztoak?

—Gaizkina zigortzeko jainkoen ordezkariak ziran jeinuok eta Ba giza arketipoak nabaritzen ditu, adibidez, *Anu > ainube* “gerizatsu, laino”, *uztari gorrina* erakarten dion gaitza, *Utu > sube* “suge” uretakoa edo narrastari oskazalea edo *subegorrien* oskada, herio-

tza ekar lezakena, Erra>*errabe* “emazteen bularreko gaitza edo *arrabia* “amorrua, gaitza” *orak*-eta kutsa zezaketena, *erraba*, *arrubi*, *arrabio* “mozorro, apotzar” pareko ere agertzen zena, *Ilu*>*lupe*, *lupu*, *lipu* “zuldar, pozoi, mamarro, jainko-txakur, jainko-katu” izenez deitua. Jainko arketipoei Ba arketipoa aurritzki ezarriez gero, An>*bena*>*pena* dator eta zenduen auzi ondarea adierazten du, Utu>*patu* “jokera, *adur*”, *bezuak* lez, norbait bidegaldu daramakena. *Patuak* jotako gaisoari *pazuzu* zeritson akadieraz eta *pachucho* gaztelaniaz, *patu* formatik dator latinezko *passu* “nekaldua” ere. Bestetariko kaltegile batzuren izenak pistien eta toki arriskutsuen izenetan dagertz, *patari* “pisti galgarri”, *pájaro* eta *bicho* gaztelaniaz, *potzo* “zakur handi” eta *potxo/potxu* “zulo” edo *pozoi* galgarri. Erra>*behar*, *berro*>*perro* “mozorro, sasi, arrabio, txakur”, arketipo bereko Erio>*pairu*, *pairo* “neke, geldiune” dator, *Ilu*>*bellua*>*bull* “*abele*, pisti”, nahiz *patari* izan, nahiz “*abella*>*abeja*” xomorroetarikoa eta *bela/belagile* “sorgin” esan nahi duena. Hoiek dira behin behineko jeinu gaiztoak, euskara mito biziaren egiturek azaltzen dizkiguten bezala.

—Baina xomorroa xomorroa da eta nola izan daiteke jeinu bildurgarri edo jainkoek bidalitako zigortzaile izugarri?

—Jeinu guztiak ez dira bildurgarri, baina maiz ustez txikiena izan daiteke bildurgarriena, txindurri, erle, armiarmak, adibidez. Hoiek egin kaltea jainkoek eman zigortzat hartzea gaurdainoko sentikera da. Edotariko ezbarrean, norbere burua zehatu beharrean, Jainkoa jartzen bai-dugu errudun. Azter beza, ezpaere, bakoitzak bere burua. Ume logika da: Jainkoa guztiegile denez gero, xomorroen egile ere ba da, beraz, erle batek niri mistoa sartzea Jainkoaren errua da. Tira, xomorron kaltea ez da beti heriogarria izaten, baina hor dira *Alu*, *Balbe* eta *Asakku*>*Azag* gure bizia apurka *ahuldu* edo kolpean *sakitze*ko prestu egoten zirenak/direnak.

—Nortzu dira, ba, jendemodu hori, *Alu*, *Balbe* eta *Asakku*?

—*Alu*, *Ilu* jainkoaren sendikoa. Sumeriarrek begitan hartzen zuten semitar jainko hau eta *a.la/alu* eta *ilu* bera gaizkintzat zeuzkaten. Sippar eta hurriten aldeko (K.a. 1.200) nekatuak elekatzen digu deabru honen eraso: “*alu* deabruak, jantziak ohi

bezala, jantzi nau eta, sareak lez, oratu du nire ametsa (...) *elbarriak hulatu* dik gorputz guztia (...) *ahuldura* jausi da nire belau-netara (...) *oldarrez sakaildu* nau”. Euskarak ere gogoan ditu jainkozko deabru honen ekintzak: *a.la* denez, *ahala*, *ala*, *alatu*, *alamen*, *alakatu* zer den daki eta erabat haren *ahala* ezagutzen du. *Alu* denez, *ahul* eta *auldura* eta *aulezia* ezagutzen ditu eta, *Ilu* denetik, *hil*, *ildura* gogoratzen du. *Alu* deabruzko jainkoak edo jainkozko deabruak bularra ere *hulatz*en du, *alboko* mina haren *ahulezietarikoa* dela. Eta gaur ere, inor iraindu gura denean “*alu hori*” esaten zaio, alegitan hako deabruaren pareko egiten dela.

—Orduan gaiso mota bakoitzak gaitza sortzen duen haren izena hartzen du, ez ala?

—Bai, halaxe da, semeari aitaren izena edo abizena eta alabari amarena, jartzen zaion bezala. Beste hainbeste esan dezakegu Balbeaz edo Erioaz. *Eriok eritu* eta *eriotu* egiten du, eta haren ondorengo jeinu gizatu *Beriok perire*, *ferire*>*herir* dakar latinez eta gaztelaniaz. Balbeak *baldatu* egiten du gure bizitza eta azken baten *balditu* egiten gaitu. *Balbe* edo Erio korainaz armatu agertzen zan Erdi Haroko marrazkietan, baina *baldardun* ere ager zeiteken. *Iluren* sendikoa da, *Alu* eta *Balu/Baal* bezala eta hoi en menpeko. Balu edo Baal jainkoa, Dumuzi bezala, aldika hil eta berbiztu egiten zan landaretzaren arian, baina *Balbeak*, ustez, ez du itzulirik, ez eta *Asakku* edo *Azag* deabruen erasoak ere.

—Nortzu dira, orduan, *Asakku* edo *Azag* deabruok?

—*Asakku* jeinu barrandaria zan eta otoz-otoan buruan *sakitzen* zuela, burukomina sortzen. Hoi en pareko ziran *asakku/a saco* “indarrez eraso”, eta *asakatu* egikera-esakerak. Osasun eske dagoen nekatuaren antza ematen du Sumerreko jakinduriak “*azag* gaitzak, hegoak zabalduz, inguru barrandatzen zion itzal bihurtzeraino”. *Azag atzeko atakan* dago eta *atakatu*>*asakatu* egiten du eta haren *azagaiak* ukitzen duenaren *azkena*<*azaga*+*ena* da orduan. Baina ba dira jainkoek bidalitako jeinu onak ere.

—Jainko-oiloak bezalakoak?

—Jainko-oiloak eta hako jainko-katuak ez dute alde handirik,

hegoez edo marraoetz aparte, baina marigonagorri xomorro ongilea bezala, eguraldi onaren iragarle dira. Ezaguna zan Sumerren *utuku>udug* “angeru jagole *tukutsua*”. “Aldeko *udug* aurretik dioatzu, aldeko *lamma* ostetik” dino sumeriar otoitz iragarpenak. Bata gidari eta bestea argitasun dira, beraz. *Utukku* formatik datorke *kutun* “amuleto” umezaindaria ere. *Lama* “bero, distira, argi” ere oroitzen du euskarak eta *udug* eta *kuxu* “angeru zaindariatakoa” euskarak baratza *kusitzen* duen *kuxu* “txorimalotzat” oroitzen duena.

—Baina zer txorimalo eta ze jeinu, txorimaloa ez da ez xomorro, ez inor, trapuski hutsa baino-eta.

—Trapuskia da umeak jolasteko artzakoa ere, hala ere “artzako” deritso. Txorimaloa “txori jagole” ere esaten da, nor zeregina du, “jagon” egiten bai-du eta *kuxu* edo *kuixu* denetik, berriz, *ikusi* eta *koixu* ere egin dezaken norbait *izugarri* da. Norbait *setatsu* edo *xedetsu* da eta nondik, arraio, sortu da halako deiera. Zer da *seta* eta *xede*, izen hoiek ere euskarak gogoan izan ditzan? Euskara mito biziari itaundu behar diogu. *Seth* eta Horus anaieak, bata Goi-Egiptoko eta bestea Behe-Egiptoko jainko zaindari ziran. *Seth*ek Osiris aita itto omen zuan Nilo ibaian, Horuseganako bekaitzez. Bien arteko burrukan Horusek azpiratu omen zuan *Seth* azken baten. Haraz gero, Osiris ugaltasunaren jainko bihurtu zan eta *Seth*, ostera, agortearen deabru. Mito-gertakari honek arrakasta handia izan zuan Egitoko enperioan. Euskaldunek mito haretaz zeharo aztuarren, euskarak gaurdaino ondo bereizten ditu “*seta* oneko eta *seta* txarreko” anaiak eta *setati*, *setoso* izakera-esakerak. Beste hainbeste gertatzen da *xede*, *xedetsu* hitzekin. Nork *xeda* dezake, angeru zaindaria baino hobeki? Horra akadierako *shedu* “angeru on”, sumerieraz *udug* zeritsana, eta, beraz, nork *udukü* edo *iduki* dezake ezer onik, berak baino?

—Eta heritasun guztiak bere deabru sortzailea bazuten, beste heritasun askoren izenak nondik datoz?

—Heritasun asko geroago gizabidez aztertu eta medikutzaz zehaztuak izan ziran eta izenez izentatu, baina oraintxe ere *gallu* zeritzon deabruak *gailuak* sortuz erasoten die eskuetan eskulan latza darabilten askori, neri, berriz, oinetan. *Lilurak lotu* dagozanak ere ba dute nori errua egotzi, ots, *lilu* deabruari, edo “*iluso*”

direnek *ihutu* jeinuari, *maskin* “negarti” direnek, *maskini*, *errabiatuak*, *rabisu* gaizkinari eta *maleria* dutenek, *lemnü* “gaiztoari”: horra, beraz, *maleria* “eri txarra” esan nahi du eta ez “aire txarra”, euskara mito bizia ezagutzen ez dutenek dinoen bezala.

—Zelan izan daiteke euskara memoriaz horren zabala eta horren laburra eraginaz hizkuntzen alorrean?

—Ez, noski, euskararen erruz, hizkuntzalarien erruz baino, euskara hizkuntza ezezagunen gela ilunean baztertuta daukatelako. Baina euskara euren itxukeria salatzen dihardu jadanik eta berari maisuek zuzenbidea noiz egingo dioten begira gagoz.

—Zu, ni ados nago euskararen garrantziaz, baina niri “euskara bizia” gustatzen zait eta ez sobera errepikatzen duzun “euskara mito bizia”, bada horrela euskara ipuintzat hartzen delakoa ematen du.

—Mitoa ipuintzat hartzea aurreritxia da eta ezjakina. Bestalde, hemen danok jaio gara amagandik eta bere amaz lotsa denik, antza, ez da inor. Euskara ere ez da lotsatzen mito amaren altzoan jaio izanaz. Mitoa sinbolo materialetan oinarritzen da eta giza hizkuntzan sinbolo eta arketipo hoien bitartekotasuna gutxiestea angerukerian erortzea da eta hori gizakiak izan dezaken gaisorik txarrena da. Zuk “euskara bizia” duzu gogoko, baina hizkuntzalariak hizkuntza ezezagunen bazterrean daukaten euskara ere “euskara bizia” da. Ausaz eurak ere lotsa ete dira “euskara mito bizia” aitortzen? Horren baldarto sortuak eta jaio direlakotan ete dagoz? Orain, bada, amaren bitartekotasuna ezagutzeak eta onartzeak osatzen du angerukeriatik gizakia.

### 23 Tregoarriko sekretua

Zegaman ba dago *Tartaloetxe* deritson erainkintza erraldoi bat. Holako erainkintzei *Tregoarri* edo Trikuarri ere esaten zaie Ataunen, Jentilarri, Aralarren, etab. Lehengo artzainak handik igarokeran aitiaren egiten omen zuten. Halako erainkintzak barnean sekreturen bat izkutatzen zutela esaten zan. Ehizari batzuk urrezko ardi narruaren bila ibili ziran, bazterrak arakutzen. Antxinako gauzen ikerleek, paleontologoek, aztertu eta giza hezurkiak, harrizko eta brontzezko gezi ganak, urrezko erastunen bat eta buztingi ontziak aurkitu zituzten. Handik antzeman zuten, hilobiak zirela eta euretariako batzuk K. a. bi mila urte inguruak, eta zera ebatzi zuten: Euskal Herriko erainkintza hoiak Asia Hurbiletik Atlantikora eman den megalitismoaren adigarri direla eta, beraz, kultura beraren ondare. Eraikintzok zutiko harritzarrak dituzte inguru eta txapela bezalako harri zapala teilatutzat.

—Eta osteria ere, zergatik hainbeste izen ezberdin euskaraz esateko?

—Batek deskribatu egiten du, besteak mitoren batekin lotzen eta guk izenotatik antzeman behar dugu sekretuaren muina. Eskualde bateko jendeak honela deitzen zion, beste eskualdekoak harela, maiz batak mendian beste aldekoen deiera jagin gabe. Izenak eta artzain zaharraren aitiren ohikunak zerbait esaten digute. Aitiaren bera egiten bai-zuten hilerrietik igarokeran gure aurretikoek ere. Goazen-ea sekreto horren bila!

—Zer da eta zergatik egiten zuten aitiaren?

—Aitiaren! Eskumaz gurutzea egiten da bekokitik bularrera eta sorbalda batetik bestera, kristauen eratara. Kasu honetan hilei bakea eta zoriona opatzeko zan, ezelako magia barik. Hako artzainak tregoa ere hilobitzat hartzen zuten, nahiz tregoa Kristo aurretiko hilobiak izan. Izenei dagokienez, berriz, baten batek pentsa zezaken Tartalo erraldoiak eginak izan zirela, bada ez zuan inondik uste gu bezalako gizaki arruntek harritzarro mogitzeko, ez tolatzeko gauza izan zitezkenik.

—Laminak-edo asaben espirituak eginiko zubiak bezala?

—Bai kontuizu, eta, behar bada, aztu egin zutelako gizakiak bere ahultasunean ere, erraldioen ekintzak egiteko nor direla, batez ere irrika handiak elkartu eta barnetik eragiten dietenean, geroko bizitza ziurtatu nahiak, adibidez.

—Jo, baina nola ziurtatu geroko bizitza?

—Sinimenaz, artesiaz, magia, denaz baliatu behar zan horretarako. Eta hilen gopuzkinak babestu behinpehin pistien eta lapurren erasotik, hako Fenix, *Ba Benatua* edo arima erratua itzultzean, bakoitzak berea erraz ezagutu eta bizira ekar ahal zezan. Faraoiaren gorpuzkinak Piramidean ehorzten zituzten hagatik. Zeruko jainkoen aintza soilik faraoiarentzat zela uste izan zan, hasiera baten, baina, K.a. bi mila eta bosteun inguru herri guztiaren zoritzat onartua izan zan eta hilentzat mastabak eta harrizko hilobiak egiten hasi ziran Egipton. Arestiko asmo berekoa da Europako megalitismoaren agerkeria ere.

—Baina hori historia da eta Tartalo ipuina ordea.

—*Ino Inu* jainkoari eta, *ipoin/opinio* gizakiri. Historia, oraingo sinistedunen itxaropena bezala, mitoaren gainean eraikitzen da. Hor ez dago kontrajartzerik, bata bestearen ondorena baidira. “*Tartaloetxe* zergatik ipuin? Hilobiak beste mundura bidean pasa beharreko ateak, atakak, eta tarteak ziran. Bide hori *Utuk* sorturiko *ttulo>xulo* edo *Errak* eraikitako *arta* edo *atari* miragarrietatik zehar joian, ehortzien eta Eguzki jainkoaren begiek elkar topo egin behar zuten unera. Hagatik tregoa eguzki Sortaldera begira egin ziran, hilerriak bezala. Tregoa zutuniko harri zirrikietatik eguzki errainuak sartu-urtenarako ziran. *Utua+Erra+Ka* arketipoen ate urituak ziran eta *ate+ur+ko>torreko>trego* dator. Beste inongo bizirik ezin zeiteken ate, xulo edo arta haretatik sartu, *Tartalo* erraldoia eta bera bezalako etoiak bai-ziran *atarteon* zaindari. *Torreko/kotor* da tokizenetik izen arruntera, hizkuntza arketipo bihurrituez zerbitzatzen baidira edukinen zabalkundea zertzeko. *Trego/gotor* izan behar zuan, aldien igaduratik salbu, turrustak edo ekaitzak eratxi ez zezaten, lapurrek urregai edo magiazko eskeintzen grinaz edo

pistiek egortzien ondakinen usmoan barruan sar ez zitezen.

—Ze magiaren grinaz baina?

—”Magia” euskaraz *artezi* da: asaben sinistez, nahi zutena artez zuzendu ahal izateko indarra eta trebezia. Gezi gana? Ehizea lortzeko. Urrezko erastuna edo dorua? Jainkoekiko itunbena zihurtatzeko: *Utuk doruaz* agintzaria *osotu* eta *osa zezan* eta *Errak eraztunaz erraztu* eta *erresaz eros zezan*, euskal hitzaren erritoak egizatzen duenez.

—Eta senar-emazteek elkarri atzamarrean ipinten dioten erastunak ere magikoak al dira?

—Magiak fede barik gitxi ahal dezake berez, eta fedea, berriz, bera da magiarik onena. Erastunak biren arteko asmoa *orobiltzen* du, baina, nahiz eguzkiaren *aroa* berdindu eta *urre* iraunkorra agindu, maiz huts egiten du, *aroak oro*i ez ba dino eta *oroitzak oratzeko orro* eta *eroiu* edo fedezko *oraziorik eroaten* ez badu.

—Eta trego-harriak eraiki zituztenek otoitzik egiten al zuten?

—Eta hatarako euskara bezalako hizkuntza berezia aspaldi asmatu zeukaten, otoitzak magiaren arteziaz lor zezan irrikatzen zutena: *Ut*u jainkoari, *otoi* eta *otoitz*, *otian* eta *uxala*, *Erra* jainkoari *arren* eta *arren*, *Horus* haren lobasoari *orro* eta *orho*, *orazioan* bezala, bada nori *erregu* hari *eregu* eskatzen zuan arauak. Beraz, jainkoei otoitz egiten zien haietaz guk ezin genezake *jentil* izenik esan, fedebako-edo bailiran. *Jentil* hitzak “ederra” ere esan nahi du, baina ederren faltaz, gaur jentil asko dago gure artean. Gure mendi eta ibarrean hilobitzat tregoak egin zituztenen hizkuntza berean egiten dugu otoitz gaur ere euskaldunok. Ez ete zan bidezko haiekiko gure loturaren berri euskarak ematea? Erdaldunek sarritan ziria sartu izan nahi digute: “hable usted cristiano” edo “menos Jaungoikoa y más Dios” bezelako memelokeriez. Erdaldunak ez dakite gu euskaldunok euskararen jakinduriari sor gatazkiola eta eguno gure bizitzan eta historian zehar ez dugula Jainko izenik aldatu beharrik izan.

—Eta Ino, eta Iruzki eta Iduzki, eta Urtzi, eta Mari, eta Anderexo zer ziran, ba?

—*Ino*, *Inkoren* aita eta *Jainko*, Jaun titulu eta guztiko *Inko* ber-bera. Gainerako guztiak Jainko Aitaren familiako jainko edo jainkosak gizakien hainbat beharretan ararteko ziran, beste maila baten oraingo Kristo, Andre Maria eta santuak diren bezala. *Ino* eta bere nazakoak euskarak arketipo bizi erabilten dituela hasieratik eta gaurdaino. Beranduago eratu ziren hizkuntzak, hebraiera bezala, inguruko herrien kulturaren tirabiran eta pentzutari jainkorik jainko ibili ziran, euren Jainkoa zein zen ere ez zekitela eta Jainkoari ze izen zuen galdezka. Zer otoi arautu edo mitologikaz josi zezaketen euren hiztegia eta hizkuntza?

—Eta Santimamine kobako marrazkiak egin zituztenek egiten zuten ezelako otoitzik?

—Edozein abere urruma, ume mindurika edo gizakien orro zerbaiten eskakizun edo seinale dira, baina Santimamineko gizakiak ez zekian ziur halako giza urrumak jainkoek uler zituzketenik. Hagatik mutuen hizkuntza bezalako imintsioak, eskuketa, eskuen, abereen, eta koba barreneko marrazketa, ahalik eta benazkoenaz, adierazten zien ilunpeko jainkoei. Neolitos Haroan, ostera, gizakiak jainkoekiko harremana argitzeko otoi arautua asmatu zuan. Eta harexek, jainko arketipoen hotsekin deitzen zen otoiak zuten benetako artezia eta jainkoekiko ulerpidea eta ez edozein urrumak edo antxinagokoen marrazkierak. Hitza zan gizakia abereengatik argien bereizten zuan seinalea eta, beraz, hitza eta esankizuna zaindu behar zan, bada, otoitzeko huts batek kontrako ondorea ekar zezaken. Zer esan eta zelan esan begiratu behar zan. Ez da berdin “sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik” esan edo “sasi guztien azpitik eta laino guztien gainetik” esan, hako sorgin kumeak erratu egin zuenean bezala eta, dakizuenez, oso urratu eta urrikaldu heldu omen zan Akelarrera.

—Baina otoitz egiterakoan zer ardura dio batera edo bestera egiteak, guk esan orduko Jainkoak dena daki-eta, asmoa begiratzeko bai-du eta ez otsa?

—Gure Jaungoikoak bai, baina Mozanbikeko animisten jainkoek ez nonbait, ez bai-zuten ondo ulertu, euren ustez, halako legorteren egarrian herriak zuzendu zizkien otoiketa luzea eta

gero halako ugoaldea jasan behar izan zuten gizaldi honen hasieran. Amak ere jakin, ba zekin, eure lagunak gonbidatzeko sosik beharko dunana, baina eregu egin eta eskatzen ez badion, ausaz pentza dezake, “baina nondik du sosik gure umeak” edo “zeren lotsak eragozten dio eskaria, ze konfidantza falta da hau?” kezka daiteke ama eta sosak atzendu egin ditzake, eure segetuak aztertzearren. Gainera, ezeren beharrik ez dagonean, ostaz egiten zaio Jainkoari ere eregurik eta erregurik. Hori gertatzen zaie gaur ere otoitzik egiten ez dutenei.

—Eta orain zergaitik ez dira egiten tregoa klakoxe eraikitzak?

—Lehen ere ez ziran denentzat trego handiak egiten. Askoren tzak nahiko ziran soloan egineko *tholoi>ttolo>txulo>zuloak*. *Tregoa* edo *dolmenak tolatzea*, euskarak *tolau+mene* “harri tolauez egin une, ingurune” ulertzen du. Aberatzek, gaur ere, marmore landuz trego antzeko monumento txukunak egiten dituzte euren hilentzak, bizitzan eta heriotzean besteak baino gehiago direla adierazteko-edo, baina Kristok hobiko harria irauli zuenetik, kristau askoren *dolmenak* eta *dolamenak* ibitu egin dira.

—“Tregua” ez al da, bada, gudatean biren arteko bake unea, euskaraz “suetena” edo “menia” ere deitzen dena?

—Bai, *sueten* izena polboraren ostekoa da su-armen isiltzea esan nahi du. Tregoa eta meniak, ostera, bakoitza epe batez bere torreko gotorrean edo, lehenago bezala, munean gorderik, bata bestea ez zuela erasoko adierazten zuan eta unean uneko hitzen analogia jakin ezik, ez da ondo aztertzen hizkera. Munak lurraren gora-berak dira eta berezko gordeleku ziran eta muruen pareko, berriz, harriz-edo indartuez gero eta hareago tarteka dorrez gotortzen baziran. Erromatarrak antxinakoen teknikak hobetu eta izen bereaz deitzen zien gordelekuoi, baina meniarik ez zioten eman, ostera, Europako kultura zaharrari, ez eta gaur haren enperiozale diren kumeek ere.

—Erromatarrak ez ziran izan, bada, grekoekin batera, Europako kultura sortu zutenak?

—Grekoek Asia Hurbileko jakinduria zaharra uztiatu eta epe gutxian burutu ziran eta erromatarrak ere beste hainbeste egin zuten Asiako eta Europa Zaharreko kulturaren gaineratik. Batak ez bestek ez zituzten errespetatu asaben jainkoak eta haiekandiko herri eskubideak, nahiz euren *Jus romanum* liburuan eurentzat jaso, ez menperatuentzat. Batak bestea zokoratu zuan ahal zuan bestean eta euren etzaigoa ez da ahienatu gaurdaino, ez herriz, ez elizaz, euren artean. Horixe gertatzen zaie asaben eskubide eta eskuera gizabidez errespetatzen ez duten herriei. Europako jakitsuak halatan indoeuropeismoaren amets hutsalean sartu ziran, hizkuntza kulturaren oinarria ere ba zela jakinik. Argituko dira, euskararen zuzia ixiotzen dutenean.

## 24. Harrigizon harritua

Egip-ton aberatz zenduen gorpuk momia bihurtzen zituzten. Hatarako barruak ustu eta ontzi berean ezarten zituzten eta gihardura kimiaz igurdi, ustel ez zedin. Horrezaz gainera, zenduen erretratua harrian edo bustin errean taxutua jartzen zuten hobiaren ondoan. Azken aldian bai eta marraskian egindako kua-droetan ere. Hildakoaren bizkunda zihurtatzearen, egiten zuten halako operazioa.

—Berbizkundan sinisten al zuten, ba, egitiarrek?

—Nahi dena sinisten da. Egitiarrentzat heriotza igaro bidea zan, ate batetik sartu eta bestetik urteten den eguzkia bezala. Erretratua haragizko etxean bizi izan zan Ba benatuak Ka gorpuzkinera itzul asmoa errazteko zan, arpegikeratik ezagun ahal zezan aldi bateko bere kabia. Hagatik, zenduaren enor eta guzti-ko antza izan behar zuan erretratuak.

—Eta inoiz gertatu zan halako berbizkunderik?

—Fedea ziurta zezaken horren gertakaria eta itxaropenak egin horren jarraipena, hagatik zenduak eguzkiaren zoriko izan nahi zuan: une batean ortzi, bestean urten, iluntzean hil eta egunsentian berbiztu. Eurak hala itxaroten zuten jainkoen zuzentasun eta errukiagandik: jainkoen zeru erreinuan bizi

nahiago, alegia, inpernuko erreinuan baino.

—Inpernua ere jainkoen erreinua al zan, ba?

—Maaten zerua jainkoen erreinua zan eta giza jainkotuena, berriz, Am-Duat zeritxon Egipton, hango errege Osiris, Erra jainkoaren semea zela, eta egitiarrek sagaraz eskeintzen zizkioten hilda-koak Osiris jainkoari. Sumerren Huburreko erregea, Nergal, Enlilen semea zan. *Hubur* “bee+ur” *iburni* “ur beena” da euskaraz.

—Eta euskaldunek sinisten ote zuten zeruan edo inpernuan?

—Geroko bizitzan sinisten zuten. Euren itxaropena ere, fedea-ren heinean ezeze, *harrigizona* deituko egonarrarian gordetzen zan, idea sinboloan gordetzen eta sinboloaz adierazten den bezala.

—Nik ez dut uletzen “sinbolo” izen hori, ez eta “harrigizona” eta nola jakin dezaket euskaldunek geroko bizitzan sinisten zutenetz?

—Zenduen hilobi buruan lurrean josten zen harri horri deitzen zioten *harrigizona*. Harrigizonak gaina eguzkiaren aro biribil eta guztikoa du, hagatik *Iduzki Saindua* ere ba zeritxon, aroaren erdian gurutzaren irudia izan ohi du alderik alde eta eguzki loretu antzeko “buru beltzak” eta zenduaren erastunak irudikatzen ziran sarritan. Sinblook maitasunaren iraupena adierazten bai-dute.

—Zer edo nor dira “burubeltzak”?

—“Burubeltzak” An jainkoak sorturiko herria zan; hala deitzen zioten sumeriarrek euren buruari. Oroitarriotan, oster, burubeltza aro errailatua da, errailak eskumarantz itzuliak dituela, ibilian dabilen eguzki gurpila ematen du. Zergatik eskumarantz begira eta ez ezkererantz? Eguzkia, Ifar aldetik Hegora begiratuta, eskumarantz mugitzen delako. Kultura zahar askok erabili izan dute sinbolo hau. Harrigizona ere sinboloa zan; ez zan harrian-edo eratuko zenduaren erretratua, baina zenduaren egonarrizko fedea eta itxaropena adierazten zan. Sinboloak idea jaso eta erarik soilenean adierazten du, dela fedea, dela zenduaren nortasuna. Siglak nahiko direnean, adibidez, ez dira izen abizenak idazten, edo hitzetan gertatzen den lez, konsonante bakarraz adieraz zeitekena bokal gabe idazten zan, antxinako idazkizunetan bezala. *Erra* jainko *iruzkia* aro soila zan jeroglifiko *irudian* eta *erdian ardatz* zuloa zeukala

agertzen zan eta *Utu* aro gurutzatua zan Feniziako alfabetoan.

—Nola, baina, holakorik, kurutzea askoz geroagoko kristinau-  
en ezaugarria da-ta?

—Bai, kristinauen ezaugarria, noski, Krisko gurutzean josia eta hil izan zelako. Baina gurutza aro barruan gurpil ibilkoarraren ardatz errailak ziran artean. Arorik soilenak errail gurutzatua behar bai-du ardatzari lotu eta gurdiari eragin diezaion. Eta horrela idazten zan Utu arketipoa, aroa galduez gero, † † † gelditu dena. Beraz, balio al du gurpilak mogimenduaren eta biziaren sinbolo izateko? Bai, gurpila errodatzeko da eta mugimenduan agertzen da bizia eta hareago gurpil hori eguzkiaren sinbolo denean. Eguzkia beti bai-dihardu mogimenduan eta su bizi eta bizi sortzailer agertzen da landaretzan. Eta hor duzue *harrigizona*, gizaki *harritua* benetan, erabat asaben mito harrigarri eta kristau itxaropen seinalez ikurtu, Kristo hilarripetik bezala, bere *harriduratik* noiz urtengo, eta lehengo kulturaz gaurkoa oretzen duela.

—Nastutzen duela, esan nahi duzu?

—Ez. Nastuta dagoenak ez daki lehena eta oraina bereizten, baina mitoa eta fede berria bereizten dakianarentzat, lehengo ohi-turak ere eutsi egiten dio berriari, lehengo ustea eta oraingoan fedea salbabideko helburu berdintsura doazelako. Hori horrela ezpaltz, hizkuntza, batez ere euskara bezalako hizkuntza zaharrak, aldatu egin beharko litzakezan, eta “hable usted en cristiano” esaten zigutenen ziri maltzurra eta aholku ergela jarraitu.

—Baina posible al da holakorik esan ere egitea? “Hable usted en cristiano” bezalako ziririk, esan nahi dut.

—Bai, entzun duenak esanetik daki eta neuk entzunetik neuk dakit, “más Dios y menos Jaungoikoa” bezalako alea. Baina parte txarreko aholkuok ez zuten Jainko ardura txikerrenik, halako kultur etsaigoaz euskara baztertzea bilatzen zuten bakarrik eta bide batez euskaldunen herri gogoa itotzea. Erljio gudatan bezala, “Diosez” mozkortu jende hori zan “Jainkoaren” etsairik amorratuena. Zer dela eta? Euskara bera ere askatasun sinboloa delako, zigorraren zamapean dagonaren ahotan. Bueno, sinbolotik



sinbolora, argi gelditu al da *harrigizonarena*?

—Bai, harrigarria da sinboloaren eragina eta eskola.

—Harrituta utzi al zaitu, ba, eskerrak zurtuta utzi ez zaituen, edo erabat “harri eta zur”, esan ohi den bezala. Harrituta benetan *harrigizona* zegoen, egitiarren ustez, harik eta Maat jainkosaren eta Osiris jainkoaren zuzentzaz harriduratik askatu eta ostera ere bizira etor zedino. Baina fede argitua dutenentzat ere hor dago *harrigizona* bizkundearen garapena ager dadino. *Zurgizona* ez dugu ezagutu gure hilerrietan, zurak ez duelako izan harriaren iraupenik, baina “zurtuta utzi nau”, “harri eta zur gelditu naiz” analogiazko esakerak hilen “Iduzki Sainduak” oroigaia gai bietara egiten zela adierazten du. *Zurean, Utu* jainkoaren *edura*, (Sumerren ez bai-zegoen harrobirik) eta *harrian, Erra* jainkoaren *eredura*, Sumer eta Egiptoko kultura ondarea euskaldunen hilerriko errito eta ohikunean eta orobat euskara mito bizian agertzen den bezala. Eta hizkuntza, euskara bederen, analogion garapena da.

—Zer da, bada, analogia?

—Aldi bateko Gramatikan atariko lezioa eta orain hizkuntzalari eta gramatikoez aztuta edo baztertuta daukaten diziplina alpertua. Lehenago analogiaz hitzaren etimologia edo jatorria bilatzen zuten eta hatarako argi bila, latinaren eta grekoaren iturrietaraino jotzen zuten, baina batak ez besteak ez zekiten hitzaren bidea egiten, etxea aurreko kulturen bihotzean barik, haien erauskinetan jaso zutelako. Analogia, adibidez, margolariak, zerbait pintatzean, modelo dauka begien aurrean, edo irudipenean beheinipehin: margozkia modeloaren analogia bezala da, ots, modeloren antza du.

—Baina margozkia ez da hizkuntza. Margozkia margoez egindako lana da eta hizkuntza hots ahozkatuez egindakoa.

—Bai, eta zenbat dira margoak? Non idoro daitezke koloreak? Izadian? Ostarkuan? Ederto baten. Baina modeloan bertan ere aurki ditzake margolariak. Marrazkiak modeloaren antza dauka, haren forma eta margo distiretatik jasotakoez burutu du arte lana. *Harrigizonak* ba al du zenduaren antzik harri tajuan?

—Ez, baina harrigizona oroitarri berezia da.

—Sinboloen kabia, hain zuzen. Kabi horretako aroak, erastunak, buru beltzak, eta kurutzak ez al dira sinboloak? Sinbolook hots ahozkatuen ordezkariak dira. Sinbolook ere eguzki modeloaren forma daroe eta letren aurre-egitama dira. Sinbolo bakoitzak jainko izena du otoitzgai, letra bakoitza haien deiera den bezala. Izen hori hots eta otoitz bat da. Errezago izan zuan margolariak irudia egitean. Errazago musikariak oditik puts eginez, ariak tenkatuz edo zur ezberdinak joz, doinuak antzematean. Zazpi nota, ostarkuaren margoak bezainbat. Hizkuntzalariak ahozkeraz baliatuz, ezpain eta hagin-arteko ziztuak saiatuz, otsak eurak ere asmatu egin behar izan zituan, gero izen gidariak ipiten asteko. Zenbat hots soil ahoskatu, hainbat arketipo. Zazpi nota asma zitezken musika guztia konpontzeko nahiko bai-ziran, zazpi ots-konsonante berezi ere nahiko izango ziran hotsen gainerako bustidurak eta ozendurak eta gogortuak gidatzeko. Letrak ugaritu eitekezan, arketipoak ez. Arketipoen hotsak hizkuntzan, noten doinua musikan bezala, edatzen da hizkuntzaren artean. Eta arte horri analogia deritso eta berak garoaz hizkuntzaren iturri gardenera eta izadian dagoen poesiaren *harridurara*.

## 25. Eredu eta erreku

Erljioen ikerketa gure asabek euren jainkoekin hitz egiteko erabili zuten hizkuntzaren ikerketa baino ez da, Müller erljioen ikertzailearen arauz eta, alderantziz esanda, hizkuntzen ikerketa gure asabek bizi izan zuten erljioen ikerketa baino ez da. Berak esana autoritatea da eta kito, baina euskara mito bizia lekuko jarriez gero, hobeki ulertzen dugu harek esana.

—Zertan parekatzen dira, bada, erljioa eta hizkuntza?

—Gizakiaren lehen urrumak, abereenak bezala, batak besteari zerbait eskatzeko seinuak dira. Baina gizakiak jainkoei eskatzeko orhoak edo orazioneak erritox taxutu esamoldeak dira. Gramatikak ere esamoldeon eredia jarraitu zuan eta halatan hizkuntza erljioazko otoitzekin bat dator. Elkarrizketa mailako hizkuntza dira biak.

—Zerikusi du “gramatikazko orazioak” zeritzen perpausak eta

gure asabek euren jainkoekin komunikatzen egiten zituzten ahozko erresuekin?

—Esana/izana da, nahiz eta Gramatika bera ere desmitoloji-zatu egin diguten eta berdin hizkuntzaren jatorria bilatzeko diren ate bakarrak itxi edo agiriak ere erreko balituzte. Ba zinoan honetaz Nietschek: “Jainkoak itzuri ditugu, baina hor da Gramatika lekuko”. Edo Gramatikaren predika ere itzuri egin behar ote dugu, izenak aldatu, lehengo oihuei belarriak itxi, nahiezkoeren bat entzun edo asaben Jainkoarekin topo egiteko bildurrez?

—Zer dinozu? Gramatika jainkozko predika bada, Jainkoaz ala Gramatikaz dihardugu?

—Aizak, Teresa Doneak platereko zopatan ere Jainkoa ikusten zuan, beraz hau duk galdera: Jaten ala gogoetan ziharduan? Baina hemen euskara mito biziaren ala Inko biziaren ari ote ginen ere, galde genezaken? Batak bestea dakar eta elkar aipatzen dira funtzean, hasiera baten hitza eta otoitza gauza bera zelako. *Inu* jainkoari *aieenez inzini in* eta *Inotez inoak ino*. Hala *dino* euskarak, hala *dinozu*, edo *ninon*, *inoan*, *zinoan*, etab. igarokoa. Hitzaren igaduragatik, bizkaieraz izan ezik, gainerako euskalkiak galdu ere egin dute funtsezko *-n-* erroa, *Inu* bera ere desagertzeko arriskuan jartzen dela. Gainontzekoan, forma zaharrena eta erabat biziena da gaurdaino euskararen. Hala egiztatu du zuetariko batek “Zer dinozu?” jalki didanean, ez delakoan ere, *Inu* arketipoa aipatu bai-du. Ezagunak dira *oinon*, *mintzo*, *mezu*, *onu* eman formak ere, esankizun alorrean. Gaurko euskaldun ohiez, ume isilkorraz Erriberan esaten dena “no dice ni año” esan daitekela. Eta euskararen ostetik datozen erdereri begira berdintsu ikusiko duzue *anunciar*, *mentar*, *mencionar*, adibidez. Eta *Inu* jainkoaz esana bera esan genezake beste jainko arketipoez. *Utu* dela? Ba, *hots*, *oihu*, *uju*, *aitor*, *hitz* egin, *itundu*, *aitu*, erderaz *decir*, etab. Arketipo beraren lehiakari *Erra* dela? Ba, *erran*, *orro*, *orho*, *eragon*, *eretsi*, *erasi*, *erasan*, erderaz *orare*, etab. Eta, azkenik *Ilu* dela? Ba *ele*, *eleka*, *elegin*, *elekatu*, latinez *loquere*, etab. hizkuntza, otoia bezala, jainkoei eregu egiteko bai-da.

—Guzti horrek, hau da arketipo bakoitzari bere hizkera egoztear, arropoz eta aurretiaz konpondua ematen du, nire ustez.

—Eta ondo dinozu, izenak eta hitzak apropos konponduak izan ziran eta, hobeto esan, erritoaren ohikunaz arketipoei begira, zehazki konpondu eta arteziaz emandakoak izan bai-ziran, jainko bakoitzaren izenari eregu eginik, erregu ere egiteko.

—Magiaz emandako otoitzak esan nahi duzu?

—Magiaz edo analogiaren mainaz, zuzen eta artez arketipoen ituari begira asmatu eta emanak. Artez edo zuzenean esaten edo eskatzen dena hain artez eta arteziaz, edo hain magiaz, lortzekotan.

—Gauza berdina al da, orduan, artez eta arteziaz?

—Ez da berdina. Artez dinonak helbururako bide itera dino eta arteziak, ostera, hatarako maina ere eskatzen du. Nola eskatu behar den erakusten digu, ahalik ziurren lortu al izateko?

—Nola eskatu behar da, bada? Gezurretan ari behar ote dugu?

—Barneko arrak zerbaitetan salatzen al zaitu? Ez, Jainkoarren, holakorik! Eskuak mahi gainetik beti, inoiz ere ez mahai-petik. Artezian ez dago tranparik, “atxila, motxila” esatean magoak egiten duen bezala. Arteziaz izatekotan, eregu egin behar zaiola Jainkoari erregu aurretik.

—Eregu ala erregu esan duzu?

—Bata eta bestea; biak. Lehenengo eregu: maina eta mimoa, arpegiune gozoa erakutsi eta laztan egin, umeak amari eta maitaleek elkarri egiten dieten bezala. Lehenengo *inoak* eta gero *aie-neak Inu* jainkoari, *emaitzaren* bat ere *imini Inuren mahaian*, gero *Inuk mesedea eman* diezaizun. *Inoak Inuren handia* eta *aintza memoratzen* du, *aienak*, ostera, *umearen minak*, *mindurikatzen* denean, edo *enoiatuak “ene, Inu, anutu nagotzu, indazu anoaren mesedea”* eskatzean. Eta horrelakoa izan ohi da jainko bakoitzarekiko hizkera.

—Eta nola eregutzen zaio orduan Utu jainkoari?

—*Utugana jo*, haren *duintasuna otu*, *doinuz ozendu*, *idago*, *hots* egin, *oihukatu* “zu zaren doia, zuzena, dotorea, Utu” aitortu, usain-

*garría ixuri haren soloan, sua ixiotu eta oturuntza otarra* ipini haren taulan, gero *otoi* egin: “*otan zaren, Utu dohatsu, uduki, otian, osasuna*”, adibidez. *Erra* jainkoagazko ereguan bada, hasteko *oroi Eroia* eta *erasi Erraldoiaren eresi harrigarriak, orhatu haren arrandia, erakus eraspeneko erastunak, erresak eta erregaliak, arnari, urun, erregaiak, aurreratu haren oruan* eta “*aran*” eta *urren, errege* edo *orru* egin: “*Erra aratz eta eratsu, eros nazazu, arren, herio arratze-tik argitara*”, *erreguak arrandatuko* duelakoan

—Baina hori hizkirimiria da! Jainkoekiko hizkirimiria, nahi ba duzu, baina hizkirimiri hutsa.

—Eta zergatik ez deitu analogia hutsa jainkoekiko hizkirimiria horri, dela eregu, dela errege? Bestalde *hizkirimiria* “*elkarrizketa atsegina da*”. Ez al da harrigarria, guk geure arteko autuetan hako jainkoekiko hizkirimiria erabiltea. Ba dauzkagu giza arketipoko beste esakera batzuk, baina lehenengo eta behin jainkoekiko ereduak azaldu behar ditugu. Azkena gelditzen zaigu, *Iluren legekua, alegia. Ilu lausengatzeko, lehenengo haren lauduak, elesariak elekatu, elikaduraz eliki alikatu haren loria, elaztun lotura luzatu, laztan egin “hel, Ilu, zure alhalak larga nazala ahuldura, alu eta hiltetik” oles egin* edo “*eleison*” gaurdainoko *alakaz, laguntza lor* diezaizun.

—Baina nola gorde ahal izan du euskarak jainkoekiko hizkirimiria guzti hau?

—Arketipoen ituari jarraiki, hitzak haren analogiara soindu eta jainkozko arketipo bakoitzaren ahozko erritua ohikunaz batera ospatuz. Euskarak oroitza osoa du, baina euskalki bakoitzak eredu batari edo besteari eregu gehiago eginez, (Sortaldekoak, ausaz, Iluren lagun minago dira, Sartaldekoak Erraren arikoak, behar bada), arketipo guztien otsak gorde ahal izan ditu, sumeriar zaharrenetatik hasita.

—Euskaldunak ere jainko bataren edo besteren zaleago izan dirala, esan nahi duzu?

—Euskaldungora etorriak, bakoitza bere jainko arketipo kutunaren izendegi eta guzti hurbildu ziran, bakoitzak bere jakinduria zekarran. Euskara horrela aberastu zan. Arketipo batzuk besteak baino zaharragoak dira. Kontuan hartu Sumerreko kultura Egipto-

koa baino zaharrago dela eta Egiptokoa Feniziako baino lehenago-koa. Baina kultura bakoitzak, unean uneko, bere jainkoen eredu bultzatzen zuan eta euskararen memoriak bakoitzean konbeni zitzaiona jasotzen, gaur bertan ere egiten duen bezala.

—Baina ze arketipo eta ze jainkoiei jarraituz?

—Jada ez dago arketipo berririk, moda berria eta analogien analogiak dira dena, baina euskarak oratzen duen guztia ohitura zaharren edo egitura orokorren arabera onartzen du. Hiztegiek, zederronek, liburuek memoria gehitzen diote. Orokorki hartuta, arketipo zaharrak ez dira galtzen hizkuntzan, baina arketipoak ezagutzea asko lagun diezaioke bai euskarari eta bai euskaldunei asaben oroitza zaintzen.

—Ederto, baina nik dinodana: jainkoei zerbait eskatzerakoan, eregu egin beharra ez al da umekeria?

—Giza jokera da, edozelan ere, eta gizakiak umetzaroko kulturaren ikasia. Umek, inork erakutsi orduko, mainatsuak izan ohi dira amari eregu egiten eta, hagatik dira umeak saria lortzen dutenak. “Umeak antzo ez bazaree, ez duzue lorturko zeruetako erreinua” esana da. Jainkoak ez die agindu gizakiei errege aurretik eregu egitekorik, baina gizakia eskeko eta behartsu sentitzen da Jainkoaren aurrean eta harekikoak, umeak amagazkoak bezala, onean, gozo eta arin egin nahi ditu. Gaurko eleizkizunetan ere otoitzak egitura berbera dauka: Lehendabizi Jainkoari goralpen deia egiten zaio eta hurren eskaria, honelatsu: “Izadia harrigarriro eratu eta harrigarriago eraberritu duzun, ahalguztidun Jainko Jauna, gauzkazu eskutik bidean tupust egin ez dezagun eta zure aintzaren partekide izan gaitzan, zure Seme Jesukristoren bitartez. Amen”. Eregua familia artekoen erregua da, izan ere.

## 26. Mairu-baratzeko koronarria

Harriz egin edo seinalatuko aro handi hoiei *cronlech* deritsaie bretoieraz eta *koroarri* euskaraz, *korxila* bezala *korruan* egiten baiziran, baina harri handiagoz eta tregoak baino toki garaiagoe-tan, *egur* garbiko tokian, sumerieraz *ekur*>*gora* deituriko mendiko tenploan eta Euskal Herrian ere hor ditugu *Ekurmendi*>*Egurmendi* edo, *Gurmendi*/*Mendiguro*, *Goramendi*/*Gorramendi*/*Mendigorria*, *Montsegur*, *Montejurra*, *Mendiguren*, ohiko santutegien izenak. *Ekur*+*ate*>*Korta*>*Gorta*>*Grotta* dator eta konposagaien itzuliketaz *Ategorri*>*Aitzkorri*>*Azkorri* eta edotariko kobazulo edo *gorku* duen mendiak, haiek bai-ziran jainkoen toki eta *guru*en egoitz sakratuak, *hain gora* bizi ziren *anakoretak*. Tokiok ez zituen inongo herrik berekotzen, herrien arteko muga eta erabat lokarri ziran maiz, Errenga mendikoa Lesaka eta Oiartzun artekoa den bezala. Tokiok, beraz, *ekurrenak* ziran eta, beraz, toki *gurenak*.

—Hortik ete datoz, bada, *gorri* eta *guren* izenak?

—Euskara mito biziak horixe dino. *Koru* deitzen zaio gaur ere elizako ginga biribilari eta *kortxel* haren teilatuari. Len “*ekurren lurra*” esaten zan, orain “eleizaren lurra” esaten den bezala. Ba dago, egon, *ekurreko* dinoen *Gorgomendi*, *Okoriko*, *Goriko* izenik. *Ekurrena*>*gurena*, bretoieraz ere *crom* da. *Koroiok* harriez egiten zirenez gero, *koronarriok cromlech* dira bretoieraz. Toki *gurenok* harri handi xamarrez *gordetzen* ziran, *gornia* bezalako kalteen aurkako *gorkuak*, eta abelgorriak *gordeteko kortak*, eta bildotxen “*corderos*” *korxilak*, hala *Kurtzemendi*, *Montegordo*, etab.

—Nola izan diteke “gordo”? Kurtziamendi ez ete dator, bada, “kurutze” izenetik eta mendi haretan kurutzea ezarri zutelako?

—Lehengo eta behin, esan behar diat, San Antoniok *gordeta* dagoen abelgorria *guri*>*guritu*, erderaz *gordo* egon ohi direla. Beraz, *ekur* santutegiak eta hango *guruak* ere, *kortak* bezala, *gorde* egiten ditek. Batak bestea zekark funtzean, hizkuntza analogiak bezala. *Gurutzea*, berriz, oraintzuko ikurra diagu gure

mendietan, baina *ekur*+*ate*>*Kurtzia* historiatic ate dagoen izena eta santutegia duk, txo. Biek ere analogia berbereko *gordeleak* direla? Hala jinok otoitz batek “*Kurutze* santuaren seinaleagatik gure arerioekandik *gorde* gaizuz”. Bestalde, euskaraz *gorta* dena erderaz *grotta* eta *gruta* dela, biak ere berezko *gorku* eta *gordelekuak* izanik, zentzun bereziak dituenarren.

—Santutegitik kortara aldea dago, hala ere.

—Bai eta ordukoen euskaratik oraingoenera. Baina abelgorriak aske bazkatzen dik jainkoen usteko santutegian, hantxe bilatzen dik gainera belardi goxoena. Eta, harego, jainkoena huan aberea bera ere denborarekin gizakien uzta izatera etorri dena. Jainko Semeak ez joan ezetzi Belengo korta. Asaben jakindurian ez zegoan ezelako esirik Ekurtzamentitik Kurtzemendira.

—Mairu-baratzak, ordea, jentilen baratzak bezala, mairuen hilerriak izan ete ziren entzun dut.

—Hala ere, mairuak baino hiru mila aurretikoak dira baratzok, eta berdin analogiaz deituriko “jentilbaratzat”. *Murko* ere deitu izan dira, *muruko*-baratzak ziurrago, borobilean *muruz* inguratuak zirelako, gotortegi antzean, *Mallorka* irlako Arta bezala, edo harri bakandun, Errengakoa bezala, batean gudateko erasotik herria ta herriko ondasunak *gordetzeko* eginak eta bestean jainkoen *ekur* sakratua markatu eta gordeteko. Hagatik *armure* ere deitzen dira bretoieraz: *harri*+*mur*, *harresi* forman bezala. *Murruko*>*murko* dator, *torreko*>*trego* eta *torrega*>*trega* datozen bezala gailegeraz. *Muru*, ordea, erratuz bakarrik datorke *mairu*. Gainera baratza ibarreko lur aberatzean egiten da eta ez mendi gurenean, koronarriak bezala. Baratza, ortua lez, maiz harriz uritu edo estoz esitu egiten dela, hori bai, ortusan-tuak edo kanposantuak uritzen diren bezala.

—Orduan kanposantuak bezalako hilerriak al ziran *cronlech* edo mairubaratzak?

—Ez, *koronarriak* baino: jainkoen mendiko toki santuak gorde eta seinalatzeko harriak. Hagatik *guru* “santu” esan nahi du eta *guren* “santuen”. Ibaraldeko herria erromez *kurika* edo

*kurrika* joan ohi zan jainko-jainkosei *gurka* eta *agur* egitera euren urteko beharrizanez *akordatu* zitezten. *Kurika* edo erromeria hori gaurdaino egiten da herri askotan, Santurtziko *Kornite* egunetan bezala. Gaiso askok hara igongo zuten osasuna eskatzera, bertan eta bere inguru ehorzteko eskatuko zuten askok, oraintzu arte gure ermita barru eta inguruan egin den bezala.

—Ermita barruan ehortzi hilen gorpuk? Holakorik!

—Ermita barruan eta eleiza barruan ere bai oraintsu arte. Ibaraldean eleiza handiak egin ziran eta aldi batean eleiza barruan ehorzten ziran zenduak. Ermita inguruan ere ehorzten ziran. Egunotan egiten diren bermoldaketetan aspaldian ehortzitakoen ezurrak agertu izan dira. Ezurrok ere halako ehorzketen lekuko dira.

—Eta *kurrika* edo erromeriok kristau eleizak onartu egiten zituan, beste gabe?

—Ez, beste gabe ere. Artean *ekurrean guru* edo santu berriaren ermita eraiki zan, maiz koba arrokari itzatzia, izan ere *ekur/arroka>roca>rock* arketipo itzuliaz dager hizkuntza askotan. Ba dago *Rocamador* izeneko ermita Izarrako arkaitzetan, Andre Mariari eskeinia, “Virgen de las Rocas” bezala. Beste batzuetan *ekur/urka* dator *Urkamendi/Menorka*, *Urkiolamendi*, etab. bezala. Eleizak fede berriz eskolatu dituela, edo nahi izan dituela, erromerietako *kuriak* eta *agurrak* eta *errogatibak*. Antxinako *ekur* santutegiak maiz uritik urrun gelditzen ziran eta hango Andre Mariaren irudi zaharra beheko eleizara aldatzen zan “Antiguako” titulo eta guzti, lehengo debozioko berbera zela adierazteko-edo. Zerbait antzeko gertatu zan lehenago Sumerreko urietan, jainkoen mendirik ezean, jainkoen urbiltasunerako Zikuratak, edo Egipton Piramideak, egin zirenean.

—Orduan *rock* inglesa ere euskaratik al dator?

—Ez beintzat latinetik. Latinak gorputz azaleko tximurrari *ruqa* deitzen dio. Analogia hori lurraren azaletik datorkio *Ka* azalari, *arru+ka* egiten duela. *Ekur/arroka* honen kultura Sumeriatik Europa bazterreraino sartu zan Megalitos Haroan. *Koronarri* handienak, eta berandukoak erromatarren garaikoak, hain zuzen,

Englanden egin bai-ziran. Avebury-ko *koronarriak* 365 m. ditu diametroz eta Stonehenge-koak 88 eta bere harritzar handienek 50 tona pisatzen dute.

—Bai, baina Stonehengek zerikusi du Euskal Herriarekin.

—Stonehengekin ez dakit, baina *Avebury* formen lehengusuak *Burueba*, *Burieba*, *Biribai* eta *Ibaiburu* formak dituzu, hemen geure artean. Joan da ikustea baino ez dago *Avebury* tokiz “ibaiaren buru” ete den. Kultura honen bultzada Sortaldetik Sartaldera dator eta artean dagoen Euskal Herriak lokarria egin dezake bien artean euskaraz baliatuz.

—Erromatarrek zer egin zuten, orduan?

—Englanden? Han eta edononun, bertako jendea indarrez zapaldu, ondasunak ostu, herriko kultura baztertu, armen *gurenda* jo eta garaipen *korona* euren buru gainean ezarri.

—Eta toki sakratuok ez al dira orain toki sakratu?

—Toki *gurenak* ziran eta ez alturagaitik bakarrik eta orain ere ba dute beste mailako gurentasunik, izena/izana den aldetik. Gure aurre-historiaren aztarrenak dira eta tokiok, sarritan egin den bezala, ez dira bertan pinuak landatzeko edo traktor muturrarekin jota, bide berriak euren paretik egiteko, albotik baino, *kurika* ezpada ere, inoiz edo behin asabek Jainkoari zioten jaiera bertatik jasta ahal izateko. Bestalde Jainkoa *gurtzeko* ez da jadanik *Ekurmendi* edo *Mendigorrira* edo Jerusalemara joan beharrik, Jainkoa egiaz eta gogoz *gurtzeko* ordua jota dagoenez gero.

—Eta zerikusi dute Mendigorrira eta Jerusalem tokizenak elkarrekin?

—Eta zerikusi du *Otsogorrigaine* bezalako tokizenak otso gorriekin? Ala otso gorriak inoiz ikusi al duzue zuek? Otsogorrigane Izaban gora eskumaldera Irati alderatz dagoen mendia da. Bi mila inguru metro ditu alturan eta dana da belardi, ifar muturreratz duen erdiko samatzea izan ezik. Antze, *otan* du *arroka* edo *ekurra*, antxinako artzaieen toki *gurentzat* zutena eta gaurko herri-etimologi zaleen ostoparri galanta, *Sokorri* gaine bezla. Jerusalemene ere han dago *Roca* deritson mezkita, erdian *ekur gurena* gordetzen

duela. Han ostopatzen dira asko, han buruaz harria joten. *Otsogorrigainen* dagoneko herri etimologia zaleak bakarrik errazten dute. Ez da inongo “lobo rojo” paperean irakurri nuen lez. Etimologia merkea egin gura dutenei koronarria edo korxila bezalako hesia jarri behar litzaieke, irudimena kortzelatuz, larregikerietara ausartu ez daitezen. Orduan ikasiko lukete *corset* izena nondik datorren maisuki erakutsi nahi diguten erromanistek ere, bide lauetan ere laprast egiten bai-da, albora begiramenez begiratzten ez denean. Izan ere, orain kortzelatu egiten dira hako Kantikan agertzen diren maitearen aine bikin tutikariak ere.

—Eta *Otso* nondik dator, bada, Isabako mendi hartara joatean “otso gorrien” bildurrik izan ez dezagun?

—*Ota*>*Otxa/oto*>*otxo* dator eta tokian “altu” esan nahi du, *Otoain/Ainetu*>*Ossoain/Ainoso* eratorriekin, eta *oto+ekur+gaine* >*Otsogorrigaine* edo *oto+ekur*>*Sokorri/Koro*zo.

## 27. Asaben Zapatua

*Asabak* edo *arbasoak* deitzen zaie gure aurretikoei eta, beste era batera esanda, *beatuei*. Azken forma hau *behetu* aditzetik dator, *behetu*>*beatu*, *zendu*>*zaindua* bezala, jakinduriako hizkune parekideen arteziaz. Baina denetan hitzik zaharrena *asaba* da. Bere arketipoak *atta+aba* dira eta *atta behatuak* adierazten dator. Latinak ere *atavia/atavu aspaldiko*, ots, *aitabe* “beatuen” aldikoak aipatzeko. Hortik gaztelaniak *atávico* darabil, *asabengandiko* adierazten.

—Eta zer esan nahi du “aita behatuak”.

—Hilak *lurperatu* egiten dira, beraz, *behatuak* dira. Hilak zoriekotzat eukitzen ziran eta dira, hagatik dira *behatuak*, latinez *beati* “zoriontsu” esan nahi duena. *Lurperatuak* desagertuak dira eta maiz aztuak izan ohi dira, baina hori adierazteko ba dago ikastolan asko erabilten den beste aditz bat: *ezabatu*, “atzindu” adierazteko. *Asabak* edo *arbasoak* aztutzen dituen herria deserri da, munduan diren herri galduak bezala. *Ezaba* “eskutau” esan nahi du eta gure *asabak ezabatuak* dira lurraren gainetik. Bizi dira, baina, euren ustetan, beheko toki eskutuan.

—Ze alde dago *asaba* eta *arbaso* hitzen artean? Zein aukeratu beharko litzateke, euskara batuan?

—Biak, txo! Galdetu ere egitea halakorik! Ezabatu hitz bat ere ez! Bestela mihina moztan diok euskara mito biziari. Baina bere aldea ditek arketipoen aldetik. Biek ere “eguzki” ume aitortzen dituk, *Utu* edo *Erra* arketipora, baina ez “eguneko eguzki”, gaez lurpetik dabilenaren “beheko ume” baino, *Utu+be*>*osaba*, *Erra+be+tu*>*arbaso*. Bide beretik, *aita+be*>*asaba* diatork.

—Nik *aba*, beste barik, *aita* esan nahi duela entzun dut.

—Beste barik ez, *abate*>*abat*>*abas* izan beharko du, eta ikusten duzuen *aita+be* hitz zaharragoaren itzulia da arketipoz. Beste hitzetan ere arketipo bilduan dator: *osaba*, *izeba*, *neba*, *arriba*. *Ba* arketipoak bakarka, “ene *ba*”, “ene *bada*”>*baita* adierazten du, eta *aba* egiturak ez dio ezer gehitzen *Ba* edukinari.

—Orduan *asaba* eta *basa* ere ardatz berekoak al dira?

—Baina elkarren itzuliak, beraz, edukinez ere elkarri aurkatuak, euskararen behenipehin. *Basa* “lokatz” ere esan nahi du. Beraz *asaba basatara* jatxia izan denarren, ez da norbait *basati*. Ohar *Apophis*, *Apobasa* ere urpeko etsai “uzua” adierazten. Jainko arketipoa aurritzki duten hitzak dira zaharrenak, itzuliak geroztiko artezia dira. Beraz *asabak*, *atabutean atatu*, *tapatu* eta biziengandik *azabotuak*, “axatuak” izan dira. *Arbaso* hitzak ere, *Ra+Ba+Utu* arketipo hirukoitzez osatzen dela, gauza bera adierazten du. Hitz honek egitiarren iruzki jainkoa ezeze, haien siniskera adierazten digu. *Heriotuak Erraren arranoak harrapatzen* zituan *Erraren erreinura eraman* zitzan, beraz, *harrabatuak*>*arbatuak*>*arbasoak* dira. Analogia hauxe darabil, ain zuzen, San Paulok tesalonikarrei hilen biztuera aipatzen dienean “gu azkenean haidean harrapatuak izango gara”.

—Ni txunditu egiten nau “asabak harrapatuak” izan direla eta holakoak entzutean. Ez al da hobeto “hil direla” esatea eta kito?

—Ez da berdin: hil edukinak ez du geroko osterik erakusten. *Azabotu* edo *harrapatu* hitzak, ostera, ez du amaitzat ematen asaben bizi zoria. *Azabotuak* edo *harrapatuak* izan badira, gu-gandik urrun, baina nonbaiten bizi dira. Bestalde, hitzak, denak

dira erabiltekoak eta askori ziur atsegingarriagoa izango zaie *asabak beatuak*, ots, “zoriontsuak” direla aipatzea edo *arbasoak* gora *harrapatuak* izan direla jakitea. Hagatik dino euskal jakinduriak “hil hadi eta alaba haie” edo eta “ez da santurik jaten dutenen artean”, *zendua/zaindua* bai-ta eta *behatua/beatu*. Euskara mito bizia bera da gure asaben fede iragarpena.

—Eta noiztik sinisten zuten gure asabek geroko bizitzan?

—Gizakia, bere zoriaz arduratu eta gauzok hitzez adierazi zituenetik. *Aita+be>asaba* jainkozko eta giza arketipoz asmatu hitza da. Jainkozko arketipoa aurritzki du, giza arketipoa atzizki, beraz, hizkuntzaren lehen aglutinazioko hitza da eta, ausaz lehen jakinduriakoa. *Sabat* izena akadiarra da eta “eten, igaro, atzedan” esan nahi du. Hortik hartu zuten hebertarrek *Xabbat* asteroko euren jaiaren izena, gure kalendraren ere *Zapatu* gerta dena. Judeguren *Xabbat* ospakizunean ohartzekoak dira hiru jataldiak eta atzedan hartzea eta hatzedana betiko atzedanaren aurre-maitz bezala hartzea. Orain ikustea baino ez dago elkarren eratorri diren *ezabatu>zapatu* hitzak.

—Bai, baina *zapatu* “zapaldu” ere esan nahi du eta nondik josten dituzu edukinok “zapaldu” eta *Zapatu* jai egunaz?

—Sinonimoen analogiak aztertu behar. Lorratzak *ezabatzeko* ez al dira *tapatzen*, beraz, *zapatzen*? Edo eleizako hilarri edo zuraje gainean belaunikatzen zen amak ez ete zituan zenduak aspian *zapatzen*. Eta lurperatuen lurra ez al da *tapikatu* edo *zapa-zapa* egiten? Eta ardura handiz egin ere, egiten zuten Mesopotamia aldean, harriak gainetik ezarriz, zenduak bere lurpetiko bidea jarrai zezan, anima erratu eta bizien bildurgarri izan gabe. Dolmenak eta tregoarrien *mene tolauak* ere asmo berdina zeukaten. Guk ere hitzaren sor-arketipoa gida ziurra jarraitu behar dugu, baina edukinak halako jakinduriak xedatuz, hitzaren artezia gal ez ditzaten.

—Baina *Zapatu* izena *Xabbat* hebreetik dator, ez ala?

—Ez dut uste. Hebertarrek akadiengandik jaso zuten eta guk *tapatu>zapatu>chafar* eta *ezabatu* hitzak zarragotzat ditugu.

Bere arketipoen itzulia *baxatu>pasatu* hitza da. Beraz, *baxatua/pasatua* edo eta *ezabatu pasatua*. Ohartzekoa da *baxatu/basatu* edukina ere, “lurperatzen dena lokatz” dela adierazten bai-du. Orain asko erabilten da hitz hau “*passa*, tio” eta holakotetan. Nork esango luken hitz biok euskarak bereak dituela, latina eta erromanikoak sortu aurretik! *Zendua* bizien mundutik *pasatua* da eta herri jakinduriak dinonez, “*pasautakoa* ez da gehiago itzultzen”.

—Bai baina, euskara garbian ez al da, ba, *pasatu* barik, “gertatu, jazo” esaten?

—Bai, eta adizkeretako *pasado* “gertatua” inoiz euskaratzen, “igaroa” beharrez. Edozelan ere ez *pasatua*. Hau, erdera baitzitzan, *ezabatu* egiten da. Hala ere, esakera jator dira “denpora-pasa”, “*pasaran*”, “*pikopasa*” edo “*pasa* den urtean”, etab., batez ere sasoiari dagokionetan. Bestalde, hitzari ezeze, ospakizuneko erritoari ere begiratu behar zaio. *Xabbat* “atseden” esan nahi du eta *baxatu>pasatuengatik* “pakean atsedan izan dezatela” edo “bakezko *pausa* izan dezatela” otoizten da. Heriotuak, beraz, *patua* jasanik, *pasua* “hesia” iragan dute eta *pati/passi* dira latinez eta dagoeneko betiko *pausa* lortu dute. *Patu* “sorte” dino euskarak, *pazuzu* “gaiso” akadierak eta *passu* “nekatu, hil”, oster, latinak. Garbi al dago nork nondik analogizatzen duen, edo eta nork nori eskola ematen dion hasieratik: euskarak latinari, ala latinak euskarari? Grekoek *Sabacios* deitzen zioten Adonis jainko hilari dolu egiteko ospakizunari. Dolugileak andrazkoak zirenez, *Zapaturi* “Neskanegun” ere deitu izan zaio Euskal Herrian. Damukizun bereko erosta izaten zan Sumerian, Damu erregea eta Dumuzi jainkoa hiltean, damu-erosta jotzen baitzuten, Inannaren samina gogoratuz. Hebertarrek Tammuz izenaz ezagutu eta ospatzen zuten jainko hau, baina profeten eraginez, hilen jainkoa, edo jainko hilgarria, ezeztera jo zuten.

—Eta euskaldunek ze jainkoren izenean ospatzen zuten, ba?

—*Asaben* izenean, *ezabatu/Zapatu* arabera emanaz, asabak orokorrean hartuta, euren arteko bereizketa barik edo euren ordezkarietat Dumuzi, Tammuz edo Adonis izeneko errege, han-

dizki edo jainkorik hartu barik, herri ospakizuna bai-zan.

—Eta judeguez zergatik ospatzen dute oraindino *Zapatua* edo *Xabbat* eguna eta ez Igandea?

—Eurak Itun Zaharreko letrari josiak gelditu dira, *Pazkoz passau*, *passu* eta berbiztu denaren misterioari jara egin gabe. Hagatik kristauon ospakizuna Igandean ospatzen da, egun hone-tan Jaunak, *baxatuen* lurpetik burua jaso eta salbamen ekintza bete zuelako. Fedea galtzen den neurrian, hala ere, kristau-ohiak ere hilak ospatzera jotzen dute, Kristoren berbizkundera ospatu beharrez.

—Zelan dakizu hori?

—Mezatarara joatea baino ez dozu. Igande arruntetan jende gutxi doa mezatarara, baina auzokoren bat hiltzen denean, orduan jendetzaz ezin kabituala, betetzen dira elizak. Hilen atzetik doaz eta bizien Jainkoa, haren Seme berbiztua, Igandetan ospatzen da, ostera. Fede berriaren argitasunari iges egiten dionak asaben ondarea ere galdu egiten du, euren jakinduriak aldian aldiko aurre-rapena egin zuelako jakinbide eta Jainkobideetan. Orain bizien Jainkoa bilatu behar da, ez bai-dago hilen Jainkorik.

## 28. Laratzen Larunbata

Jainko sortzaile nagusien jaia urtean behin edo birritan ospatzen zan halako arrandiz, astegunak, ostera, jainko txikiei eskeiniak izaten ziran, hala Astelehen *Asto Ilunori* edo *Aste Ilunari* (erderaz Lunes), Martizen, *Marti* (Martes) jainkoari, baratz lanetan-eta lagun ongile zenari, Astearte, *Astarte* ugaltasunaren jainkosari, Eguasten *Egu*>*Eguzki* jainko etxetiarrari, Sumerren *ekua* “etxe” bai-da, Ostirale edo Ortzilare (Jueves) *Osti/Ortzi* Utu edo Horus familiako Trumoi jainkoari, haren bekaitzetik baserri ondasunak gorde zitzen eta azkenean Larunbata edo *Zapatua*.

—Bai, eta Azteazkena non gelditzen da?

—Azken gelditzen da, *Astelena*, *Astearte*, *Asteazkena* hiru-koitx andana aste osotzat hartu zutenen ustetan. Mitoen mundua ezagutzen ez dutenek erraz erortzen dira etimologia herrikoietan.

Norbaitek *Otxoa* duela abizen? Ba, *otso* abere kastako edo *otso-ko* bailitzan ebazten du etimologia herrikoiak. Erabagi axalak naste sakonagora eraman dezake, hala ere, euskara munduko kulturaren eguna eman ez den hiru eguneko astea aitortzera, adibidez. Astea *zazpi* (*septe* latinez) eguneko aroa da eta hagatik *Zapatu* deritso azkenari. Azkenean, arazoak utzi eta jai egin eta, juduek bezala, hiru biderrez janaz, *shabbatu* “ase bete” egiten ziran.

—Baina hiru egunek bakarrik dute, ordea, *aste* aurrizki.

—*Aste* “egun arrunta da” eta arketipoen itzuliaz, latinak *dies* egin zuan. Gero *astegun* eta jaiegun aurkatzen dira. *Astegun/Eguasten* berberaren itzulia da. Horra, bada, lau egun dira aurrizki edo atzizki *aste* deiturakoak.

—Tira, guzti hori halan izango da, baina *Barikua* zertan da?

—*Barikua* baru edo barau egiteko eguna da, *Bariakoa* ere deitua. Eleizak arautu baraua zan. Egun hori *araupe/barau*>*baru* zegoan, *araupeko*>*barauko*>*Bariaku*>*Bariku* konpontzen dena.

—Eta orain ez al da baraurik egiten?

—Pobreek egunero egiten dute barau, batez ere hirugarren munduan. Inoiz edo lehenengo mundun bizi direnek ere barau egiten dute eta jakiaren kostua gosetuei bidaltzen. Holako jarduna hako barau legea solidaritate espirituaz berbiztuko balitz, osasun hobia izango genduke, egunero eta beti hiru jataldi egiten ditugunok.

—Eta non gelditzen da, orduan, Larunbata, bada guk beti esan diogu Larunbata *Zapatuari*?

—Euskara mito biziak izango du horrentzat ere erantzunen bat. Euskal Herrian antxinako jainko sortzaile nagusien ondoan, haien ararteko ziren jainko txiki errikoia goak ematen ziran, eguneroko ohikuna eta otoitza jasotzen zutenak, jainko *larreti* bakoitza *Laratze* jainko zaindaria, adibidez. Horrek dira, batez ere, asteko egunen izena daramatenak. *Zapatua* Larunbata ere deitzen dela? Argi dago euskal kalendrarak ere alboko kulturen eraginaz eztabaida izan zuela euskalki ezberdinetan maiz agertzen denez, asteko egunei edo urteko ilei izen ezberdinaz deitzean. Izenak izen,



izanari, edo ospakizunaren edukinari begiratu behar zaio. Erromatarren garaiko *Lares* jainko *larretiak*, asaben espiritu lagunak ordezkatzan zituzten eta “*Larum*+bata” *Laratze*-jainkoen *batza* ospatzekoa zan. *Larunbatak* auzo guztiko *Laratzen batza* zan, baina, denbora joanean etxe bakoitzak bere asaben *laratza* zeukan sutondoan.

—Ze jainko ziran *Laratze* jainkoak?

—Jainko nausiak menditarrak ziran, baina jainko txikiagoak muino eta goiko *larretan ere* ba zuten atanda eta *baita*, *betilo* harriren batez markatua, gizakiak gero eta hurbilagoak nahi baitzitan ondasunen *larga* lortzekotan. Azken baten *behelarre-ak*>*bailarak* ere jainkoz bete ziran, *belardi* bakoitzak berea. Jainkooi “baalak” zeritsen Sortaldean, hortik “valle”. *Baal*<*Ba+Ilu/El* semetarikoa zan, *asaba*<*Aita+be* ondorengoa den bezala. Harako “asabotuak” hemen *largatuak* dira, gure aurretik joan ziran arbasoak eta eurak ospatzen ziran Zapatu edo *Larunbata* egunean. Euron antzekoak hako *behen behetu* asabak, beraz, *benatuak*, latinak *penates* bezala ospatu zituenak, etxe jainko hoién *pentzu* utzi zuan euren mantenuko *penus* “aspilla”. Beraz, *benatu*>*penatu*>*pentzu* dator eta hortik *penates* jainkoen izena eta ez *penus* izenetik. Latinak aspila ondo betea zeukan, baina ez zekiten nondiko gaiez. Esan bezala, *larredi* gurutzebide haietan *baita*>*bet* zeritsen *betilo* oroitarriak eraikitzen ziran eta geroago baten hainbat santutegi eta ermita toki beretan eregi.

—Urkiolako santutegi aurrean aurkitzen dena bezalako harri biribilak, al dira oroitarriok?

—Urkiolako edo Arretxinagako harriak sansonarriak dira, antxinakoen ustez, tximistarriak bezala, aidetik eroritakoak-edo eta aldi bateko asabek jainkoen ezaugarritzat hartuak. Betiloak auzoak berak geroago eraikiak ziran, auzo bilgune ziran edo nagusiak adizkide eta morroiei gonbite egiteko bilguneak. Jendea batu eta herri erabagiak hartzeko gune apartak izaten zirenez gero, Erromako Errepublika garaian galazita egon ziran *Laratz* jainkoen jaiera, haien aitzakiaz herria matxinatu eta menpetik deslaidu ez zekion. Orduan eta etxe barrurago sartu zan *Laratzen* jaiera,

Frankoren garaian ikurrina edo euskal liburuak bezala.

—Gure baserriko txokoan sute zaharrea ba dago “*laratza*” deitzen den burdina. Ba ote dute harekin zerikusirik *Laratze* jainkoek?

—Jakina! Hagatik esaten da: “*Laratzak* ezagutuko du nor nolakoa den”. Larraune bakoitzeko jainkoa harartekotzat jartzen zan lekuko sinistagarri. Berak ikusten ditu bakoitzaren barrena eta asmoak. Zuk aipatu duzun *laratza* sutegia biltzeko burdina da, txingarrak eta autsa deslaidu ez zitezten. Sutegiko *Laratze* jainkoa ordezkatzan zuan. *Laratze* kate zintzilikarian sorginak uxatzeko larra ere exegitzen zan. Hagatik “*laratzak* bezain segur” esaten zan. Etxeko andreak suaz halako otoitza egiten zion Jainkoari *laratze* ondoan: “Jainkoak duela parte, Angeruek bertze hainbertze, etsai gaiztoek bat ere” eta gero *laratza* kakoaz jota subazterraz ohar egiten zion “ez piztu, ez itzali”.

—Berba egiten ziola *laratzari*?

—Eta zuk ez ete diozu inoiz txakurtxoari berbarik egin? Eta umeak bere andrakilari ez ote dio hitz egiten eta musuak ematen?

—Baina hoiék ume kontuak dira.

—Bada gizakiak ere bere umetzaroa izan du erleginoko eta fedezko arazoetan eta *laratze* jeinuek asaben espiritu xedegarria ospatzen zuan. Gaur bertan ere Jainkoarekiko otoitz berbaroa ez da ixiltzen eta ez da egunoxa ixilduko ere, hizkuntza jainkoekiko otoitzerako sortua izan zelako, gizarte harremanetarako beste. Hitzak, gainera, jainkoekiko harremanean lortzen du itunaren maila eta gizarterako erdua, Jainko lege zaharrak, geroagoko gizarte lege berriak bezala. Haiegazkorik gabe, gizarteko hitza piztatua eta gezurtatua gelditzen da maiz.

—Jainkoa denerako emendio? Orduan ez ete zegon, ba, medikurik?

—Eta medikuak zer dagike Jainko barik? Ala mendiku jainkoa nahi duzu edo jainko medikua. Jainko mediku asko zeuden Sumerrren bertan. Eta herri mediku titulua zuten gehienek jainkosak ziren. Hagatik esan ohi da “ama belar ona”, ama minduru askoren emen-

dioa dela esateko. Hagatik gaurdaino “gaisoen osasuna” deitzen zaio Jainkoaren Amari. Gizakiak beharrik edo ezertarako grinik, ez asmorik ez balu, ez luke izango, ez hitzik, ez otoitzik egin beharrik. Amak ere ez luke izango ezeren ardurarik, umeak “ama!” deika eskatuko ez balio. Amatzok eta aitatzok ezinak edo medikuak ezinekoak dira, ostera, gehien bat guk Jainkoaren belarrira esaten ditugun kezkek, gaur antxina bezala. Hagatik jainkoei egin otoitzak dira gaurdaino oihuzko laburrenak “*ene!, otoi!, ara!, hel!*”, etab. Hortik hasi zan euskara mito bizia hitz egiten, hori da euskarazko lehen lezioa, monosilabodunekin hasten dena.

—Eta *Laratze* jainkoei eginiko ohiuzkorik-edo ez al dago?

—*Laritzen* jainkoen arketipoa *El/Ilu* da, beraz jainko txikien izenak jainko sortzaile nagusien arketipoez osatzen dira, horrela *El/Ilu+Ra+Utu>Laratze* dakarre, hiruko morda honek hiruren ondorengo eta indarreko egiten zituan *Laratze* jainkoak.

—Eta Igande izena nondik dator?

—*Igante* jainko txikien analogia batetik etortekotan, eguzkia *eki+ain>ekain* deneko muga *Ekain+te* “eguzki gainaren garaia” edukinetik izan daiteke, *Igandea* ere astearen gaina delako. Baina erritozko ohitura batetik ere etor daiteke: *igante* “*igain* garaia” ere ba delako, mendi edo muno *gaine*ko santutegira igotekoa, alegia, edo haien antzera, ibar munoetan ere, denen ikusgarri eraiki ohi izan diren elizetara *igaintekoa*. Behin elizaraz gero, *Igandea* Domeka ere bada, aste/dies “Dominica” erderazko hitzetik hartua “Jaunaren eguna” adierazten, ots, Jauna berbiztu eta bere garaira *igain* zenekoa. Dakusuenez, gure astearen izenak mitoz edo teologiaz beterik dagoz eta mito guztiak dute Domeka edo *Igandean* azkena: aurrekoen izenak azkenengoen iragarpenak ziran eta euskera mito bizia bera ere lehengoan oroitzapen, gaurko predika eta etorkizunaren iragarpen da, hitzaren jakinduria sakonetik ulertu nahi dutenentzat.

## 29. Sansonarri eta Oinaztarri

Zerainen ba dago Sansonarri bat landako belardi baten magalean. Mutiko ginala, ezin etsi harritzarraren gainera igon gabe. Ez zan igon erraza, laupabost metro laukitu, baina zirrikituetako belarrei oratuz, lortu gendun gainartzea. Goia ere belartsua zeukan. Ezkerretara Zerain eta eskumatara Segura ikusten ziran eta *santzo* egin genien, harritzar gainera igoteko gei izan ginala, ohar zitezen. Harkaitz puska hari *Sansonarria* deitzen diote. *Sansonarri* gehiago ere badago Euskal Herrian eta halako harri bakan eta bakartiei deitzen zaie, ez harkaitzei.

—Eta nondik irauli zan harri hori belardira?

—Sansonek edo jaurti zuela kontazen dute ipuinek, baina nik ez dut uste Bibliako morroiak halako harritzarra eskuan hartu eta jaurtitzeko izan zitekenik, ez eta ehun halakok batean ere. Jiganteen burruka ere aipatzen da. Mendi batetik bestera harrika omen zebiltzan jiganteok, baina behin baten euretariko batek, halako harri puska jaurtikieran, behiaren gorotz piloan irrist eginenez, indarra galdu eta bide erdi, zereko landan erori omen zan.

—Ja, ja, hori ipuin barregarria da horregatio!

—Behia era makala izan beharko zuan gainera. Ipuin baregarria ona da humorerako, baina horrek ez digu *Sansonariarena* ondo azaltzen. Ipuina gehien bat azalean gelditzen da eta ez digu mitoaren muina agertzen. Ipuina antxinakoen oroitzak galdu zutenen oraintsuagoko asmakisuna da. Beste herrien historiarekin gonbaratzen badugu arazoa, euskarak agian haiekiko lotura egiteko gei izango dugu. Lurbiran aurkitzen diren arru eta artak, artzulo eta atxarteak eguzkiak eguneroko ibileretan urratu bideak omen dira eta beraz jainko *santzuak*. Jainkoek bezain sendo eta iraunkor direlako, *harri Erra* jainko ereduak dator eta *ate>atx/aitz* direnez, berriz, *Utu* jainko eduko. Hori dela-ta, *harrigizonak* ere ereduon artezia lortu nahi zuan, *harri* eta *zur* konponketa den geziak *oinaztarriarena* bezala.

—Zer da oinaztarria?

—*Tximistarría* ere deitzen da. Hodeietan sortzen diren tximistak Hodei jainkoak jaurtin geziak zirela uste zuten asabek? Nola azaldu bestela? Ba zekiten harri mota batzuk elkar joz txispak urtikatzen zituztena, baina nondik haiek bezalako zartadak? Gezia ere, hagatik, jainko iduzki arketipo bien ereduko *harri* eta *zur* artezia zan, Ugariteko mitoetan agertzen denez. Zeruak jaurtineko oinaztarria lurrean sartzen omen ziran eta gero pixkanaka azalera-tzen. *Oinaztarria* “Inu-atx-harria” zerutiko santsua zen eta *tximistarría*, “*Tinia-* (etruskoen “iduski”) atx-harria”, haiek bai-omen ziren txispa zartatekook aztertzen ulertuenak. *Itxina* eta *Txindoki* hari edo *Sin* akadiarren “ilargiari” egotzi mendi santutegiak dirudite, *arritxin* “harkaitz zatia” denez, *Arritxinagako* harriak halako menditik gizartera jatxitako jainko *santsu* bezala hartu eta santutegi bihurtuak dira. *Sansonarriak* ez ziran edotariko harriak, bakanak eta arraroak baizik, inguruko harrobi kutsurik ez zutenak. Haiek ziran jainkoren batek bidaldu *santzuak*, Mekako mortuan aurkitu zuten Harri Beltza bezalako eta islamiarrek gaurdaino tenplo barruan jaiera handiz gordetzen dutena.

—Harria tenplo barruan? Zertarako dute harria tenploan?

—Hori Arretxinagakoei galdetu behar. Han, Jemeingo auzoan, harri bat barik, hiru harritzar dauzkate eliza barruan, elkarren artean pasadizoa egiten dutelarik eta tarte haretatik igarotera gonbidatzen bailegozan. Zutunik ezin daiteke igaro, baina bai katamarka. Errito hori betetzen dute, laster ezkondu nahi izaten dutenak-eta edo gaisotasunen batetik osatu nahi dutenak.

—Eta handik igarotzeko gauza ez direnak, gaisoek esate baterako, zer? Nork osatzen zituan halakoak?

—Bestetan harria inguratzea nahiko izaten zan, Urkiolan bezala. Mekan Islamiarrek bizitzan behin Ka’ba tenploan gordetzen den harria zazpitan inguratzen dute. Harri bizia magiaduna da. Ez al duzue inoiz entzun harri biziaren oihartzunik? Asabek atxarriekin nolabaiteko elkarriketa zeukaten. Euren jainko-*santzudun* arkaitzak deiari erantzun egiten zion. Itxaropenez eta fedez eskatzen zuen behartuak nolabaiteko erantzuna zeukan. Gaisotasunetik *saniatu* nahi zuela? Ba, *Shan/Sani*, sugeen jain-

kosari eskatu. Ausitegian *zuzena* nahi zela? *Utusam* ititarren iduzki jainkoari eskatu. Osasun *santzuak* behar zituela? Arabiarrek ere ospatzen zuten *Samsu* jainko eguzkiari eskatu, *Samsu/Utusam* bera bai-da, arketipoz biurritu. Ezagunak dira Euskal Herrian *Santiomendi>Santxomendi>Sansomendi*, etab. haren santutegien izenak. Mendi santutegira joateko ezindua zegola? Hurbilago zeukan *sansonarria*, *Sanso* jainkoak ezinduen osasunerako goitik bidaldu *osasun-santzu*a. Santutegiko osabidea zenez, *saniatu>sandu* agertzen zan, baina legenaren osasuna, adibidez, apaizek ziurtapenez legeztatzen zan eta euren baiezkoa *sancitu>sanctu* dino latinak ere askoaz geroago.

—Baina zerikusia du sano egoteak eta santu izateak?

—Gaitzak jotako edonor susmogarri zan: jainkoek zigortzeko, zerbait gaizto egin bide zuan gaisoak, bada, jainkoek, zuzenak izanik, gaiztoa zigortzen eta ona saritzen bai-zuten, jakinduria zahar-raren arabera. Beharrezkoak ziran, beraz, *santu santzuak*. Gaiso batek halatan nola frogatu zezaken gizakien aurrean zintzoa zela? Gaisoak eztabaida zuan bere jainkoekin: “nik ze gaizto egin dut, zuk ni halako gaisoaz probatzeko”? -kexu zan jakinduria zaharreko nekaturia, eta esamesa zeukan auzoarekin “horrek gaztakeriaren bat egin du, gaisorik egoteko”, hagatik osasuna lortu eta osasun santzoa jaurti nahi zuan, jainkoek osatu zutena auzoak jakin zezan. Sippar uriko sumertarrek Utu jainkoari jaiera handia zioten. *Utu otatu>osatu* dator eta *Utusam/San Utu>Sansu> Sanso* eta, beraz, *sanatu>santu>santzu*.

—Eta gaisoak osatzeko ez al dago Mari edo beste jainkosaren baten harri santsurik?

—*Nainarriak*, hain zuzen, Inannaren harri bitxiak. An jainkoaren alaba Inannak samatik bularrera eta zilborrerainoko harri bitxizko errosarioak eramaten zituan. Berak maiteen zituan harriak An zeruaren margozkoak ziran, zafirak bezalako atxurdi-nak. Ba dago *Nainarrimendi* izeneko santutegia Txindoki aldean. Emakumeek bularreko gaitzak-eta osatzeko erabilten zituzten *ugatzarri* eta *erroibenarriak*. Harri mota bakoitzak, ustez, gaitz berezia sendatzeko indarra zeukan. Orain, euskara mito biziaren

otsak galduez gero, beste era batera deitzen direla: iduneko, bularreko, belarritako, etab.

—Baina iduneko harribitxiak-eta edergailu hutsak dira eta ez dute jainkoen magiaz edo amuletoekin zerikusirik.

—Inanna jainkosagandik hasi eta gaurdaino harribitxiok emendio bikoitza egin du emakumeen eskuetan: zinzilikarien bitxiak jainkoei eregu egin, ots, ederretsi, eta haiegandik babesa lortu. Baina gizonezko zenbaitek ere samatik dindilik erabili izan du erreuma kentzeko eskuturreko gutun urrekirik edo ez dakit ze pistiren marfilezko hagina noren begizkotik ekidin zezan.

—Baina ez da berdin antxinakoen eraspina eta oraingoan moda.

—Ez eta eskola eta jakinduria ere, hareago, beraz, beharri-zanak eta fedea. Orain nor doa atxari darion ura edatera, eta arpegia bustitzera, etxean bertan bai-dauka txorrota? Hala ere, *uin, ur, utur/itur, edur, elur ura* arkaitzaren emoitzak dira eta jainko sortzaileen arketipoez izentatzen ditu euskarak. Zenbat eta atxari lotuagoak ur osasungarriagozat emonak ziran. Sansonarriak ere ez ziran gure plazetako oroitarriak, haiek jainko santsuak ziran eta gure plazetakoak, berriz, gizon famatuen irudi edo artista lanak. *Zinginarriak* ere norbere zintzotasuna auzoari dierazteko eta, beraz, haren gainean eskua ezarriz, zin egiteko harri bereziak ziran. Harriaganako atxikitasunik ba dago orain ere. Gure eleizetako arak ere harritzakoak dira, lege zaharreko harri eraspenaren ondakin, nahiz haren gainean Kristo opaltzen den. Harri horren sinboloa ez da kolpez birrintzekoa, bada “Kristo da etxegileek bazterturiko kantonarria” aitortzen du liturgiak eta jainkoen ekur/arroka gaurdainoko analogia eta eskola da hizkuntzan.

—Nik orduko osakidetza eta gaurkoa gonbaratzen dut eta Harri Haroa eta Teknika Haroa bezala bereitzen.

—Bai, Teknika da gaur askoren jainkoa, baina Teknika jainkoari ez zaio egiten Utu jainkoari bezalako otoi samurrik: “Zuk, Shamash, ahozpeztan eta apalik, zurrumurrutik eta gurpenez egindako eskaria, arrena eta otoi-tza entzuten duzu. Gaisoak, behar-tsuak, zapalduak, ezerezak oihuz deitzen dizu...” Teknika, giza-

kiak sortu duenarren, bai al du, euki, benetako gizatasunik? Teknika ere jainko izan nahiak onda dezake, gizakiaren serbitzara saiatzan ez bada. Harri Haroko jainko-oihartzuna ere gor eta gogor xamarra izan ziteken hasiera baten, nahiz geroago zeru altutik mendi garaiko ekur/arrokara jatxi izan eta, arroka astintuz, sansonarrira hurren hurbildu. Oraindio pauso handiagoak eman beharko zituan, gizakiari eskua luza ahal izateko.

—Jainkoak gizondu egin behar izan zuela, esan nahi duzu?

—Ez hodeietako trumoian edo tximistan, ez eta ostarkuaren margo harrigarritan, ez mendi edurtu edo mendate ezin garaituen distiran, ez ekur/arrokako santutegi gotorrean, ez arkaitzaren oihartzunean, ez Mari jainkosaren koban, Andre Mariaren altsoan baino.

—Jo! Zenbat denbora behar izan zuten horretarako Jainkoak eta gizakiak?

—Eta Harri Harotik Teknika Harora zenbat denbora beharko gizakiak Jainko bideak ulertu ahal izateko? Zein da harrigarriago Mari jainkosaren kobako artezia, hala Jainko Amaren estalpeko apaltasuna? Eta orduan ekur/arrokako santutegia beheko muinora jatxi zan, han Andre Mari eta santuen izenean eraikitako ermitara eta gero ibarraldeko eleizetara. Ez ote zan egoki eta zuzen Jainko bezala goitik behera etorri zena, behetik gora giza antzera igoten azaldu eta guri bidea erakustea? Gizakiaren bizitza luzea da, baina gazteak legez ikasten irauten du ia bizitzaren laurdena eta, haraz gero ere, azkarra ikasten ahalegintzen da, edozein lanean diharduela, bada, jainko Teknikak ez dio dena emendatuko.

—Bai, baina ez da berdin bizitzan zehar ikasten joatea eta hemen, eskola mahaiari derrigor lotuta, ikastea?

—Teknika gizakiaren magia eta artezia berria da, baina bizitzako maisua beste bat da, gizakiak lan egin eta ikasten duenetik honaino. Harri Haroko mitoak ere gizaki horren eskola dira eta oraingo gizakiak ez du ordukoen harrian berriro ostopatu beharrik. Maisuaren eskutik lezioa ikastea dauka.

—Maisuaren ala andereinoren eskutik?

—Idatzia dago: "Zuen artean ez deitu "maisu" inori, bat delako zuen maisua: Kristo". Eta erlijioen historia, herriek euren jainkoekin mintzatzeko erabili zituzten hizkuntzen historia denez gero, horra euskara mito bizia gure Jainkoaz eta gure jainko/jainkosez predika ematen dizu gutxien uste duzunean. On dugu lehena gogoratzea, oraina aztertu eta geroa argi antola ahal izateko, bada, harria Harri Haroko Jainko santzua izan bazan, orain Teknika Haroan, Jainko gizatua eta, beraz, gizakia bera da Jainko santzua.

### 30. Malatu Zuhaitza objetore

Zuhaitza argi bila gorantz hazten da. Bakarrik dagoenean, alboetara ere zabaltzen da, argia datorkion alde guztietara, baina zugaiztian, elkarren hurbil hazten direnean, elkarren lehian gora igoten dira eguzki bila eta tantai egiten. Eta ez lerroan landatu pinuak bakarrik. Nik urkia ere pinu artean pinuen lehian gerria luzatzen ikusia dut. Zuhaitzat eguzkia du maite eta *Utu* arketipoa dagokio: *zuhitze, zuhar, zuhamu, zurgai, zurtxuri*, etab. Baina era berean *Erra* arketipoa ere ba dagokio eta hagatik da *arbola, aretze, arte, araba, artze, eretz, urra, urki*, etab. Ikusten denez, zuhaitzak eguzkiarekiko harreman estuetatik jasotzen du bere indarra, ondarea eta, beraz, handik analogizatzen izena. Jobek beretzako nahi zukean zuhaitzaren jakinduria eta zoria. Gizakiaren bizitza, haren ondoan, ahul eta iheskor hautematen zuan, hil ostean bere ondarearekiko harremanik gabea. Zuhaitza, ostera, eroriarren ere, errotik kimuak berritzen ditu eta orpo berean beti irauten.

—Uste duzu zuhaitzek beti irauten dutela? Nik ez dituk ikusten gure aurretikoek ezagutu zituzten pagadi, artadi eta arestiak.

—Ibarrateko eretzak ere azkena izango zuten Gilgames bezalako eroien aizkorapean edo Nigeriako enberoak edo Amazoniako kaobak motoserradunen erasoan. Negoziodunek eta ekologistek biak maite dute zuhaitza eta basoa, batzuk negoziarako, besteek bizitzarako, zuhaitzak basoa estaltzen duteino, eguratz osasuntzu eta arnasa garbia izango dugulako. Zeinena da jakindu-

ria? Egiptoko baradisuan ere Erraren bizi-zuhaitza agertzen da eta Thot jainkoak, gizakiari idazteko artea erakutsi zionak, *persea* zuhaitz haretan idazten zuan Faraoiaren izena, zuhaitzaren zoria berearekin berdintzen zuela.

—Baina idazteko artea ez al da, ba, gizaki beraren asmakizuna?

—Bai, eta Kastrexanako zubia ere gizakien eraikintza da eta ez ainaninoena, baina orain ere, lana amaitzean, "Jainkoa lagun egin dugu" esaten da. Maitaleek ere euren izenak idazten dituzte Urkiolako pago-azaletan "pagoa pago daino", elkartasunean irauteko asmoz. Herriak ere zuhaitzaren kerizpean egiten zuten batzarra, herri arazoa eztabaidatu behar zenean. Herri askotako plazan artea edo aritza izan ohi da monumentorik bikainena eta harenalako bizitza opatzen zaio herriari.

—Baina, Jainkoari ohi bezala, Gernikako Arbolarari esan ete leio "Arbola Santua" eta "adoratzen zaitugu" edo holakorik?

—Zuhaitza jainkotzat-edo hartzen zutenetz esan nahi duzu? Jainkotzat ez, baina bai Jainko santzu eta hagandiko bizi iraunpen eredu bezala, eta hareago Jainkoak herriarekin duen itunben bezala eta Jainkoagazko edozein lotura haren santutasun kutsua lortzen du, "mendi santua", "egia santua", "liburu santua" esaten dugunean bezala, beraz, zergatik ez "Arbola Santua"?

—Eta orduan, Gernikako Arbola grekar eratako tenplo aurrean, halako begirunez eukiteak zer esan nahi du, bera ere zerbaiten tenplo dela?

—Ez holakorik! Herri aginte edo demokraziaren sinbolo doblea elkartzen dela toki berean, baina zuhaitzpeko batzarra grekar eraikintzako baina askozaz zarragoa dozu, zuhaitzaren babesa ere den bestean. Hagatik zuhaitza bera da aipatzen dena eta grekar eratako eraikintza beste kultura modernoagodun jendearen adigarri dator.

—Bai, nik euskaldunen demokrazia grekoena baino zaharragoa izan zela, entzun dut.

—Eta milaka urte zaharragoa, hatan ere. Baina ohore hori ez da euskaldunena bakarrik, antxinatasun berdina duten beste

herriena ere bai. Euskaldunok bereziki gorde egiten dugula asaben oroitzeta eta haien askatasun gogoia. Beti egongo da hortik, hala ere, birlobatxo bir-amonaren maistra egin nahi duenik, latinaren eta euskararen artean gertatzen den bezala, albora begira txapela ipini duenik. Hoiene ustez, euskara gehiena latinetik omen dator. Hala ere, euskararik ez dakite edo eta euskara ez dakitenean ikasle eta autonomia bako irakasle dira. Hoietarikoak Euskal Herria bera ere ez baita jartzen dute, harego, ohiko euskaldunen herri agintea edo euskara mito bizia.

—Eta zer esan nahi du Baradisuko zuhaitzak eta emakumeak gizonari eman zion frutakiak?

—Bibliak horrela egiztatu du gizakia jakitun egin zenekoa. Hasieran jakinduria Jainko dohaia zan. “Frutaki guztietatik jan dezakegu -erantzun zion emakumeak sugeari-, baina gaitz eta onaren jakinduria zuhaitzetik ez jateko agindu digu Jainkoak, bada, janez gero, hil egingo gara”. Gizakiak jan egin zuan eta, harrezkerro, gizakia jakitun egin zan. Sumerreko mito zaharragoak dinonez, Jainkoak gizakiei jakituria eman zien, baina betiko bizia eurentzat gorde zuten. Emakumea eta jakinduria, berriz, antxinatik datoz parekide. Gilgamesek ere *Nin.sun* “andre jakintsu” jainkosari aholkua eskatzen dio. Emakumeari dagokio bederen berezko jakinduria den *suma*, ama izateko *sumari* izan behar du, *sumau*, eta *-zun* atzizkiak “bila, usnaka dabilena” dino. Eta euskal jakinduriak *dona/duin* “emazte/azkar” eta *totil/sotil* “andre eder/begiratu” bezalako hitz arteziak oretu ditu. *Ni.saba* zeritzaion Enki jainkoaren alabari ere eta jakinduriaren jainkosa eta Sumerreko eskola gidari izatera heldu zan. *Shapash* zeritson Ugariten eguzki “argi ontzi” jainkosari eta *xabe, xabetu>sapere* “sumatu, jakin” adierazten dator euskaratik latinera. Aldi bereko Egipton *Sia* dager jakinduriaren jainkosa eta *Renenet* idazlearen andrena. Biblian bertan *Jakinduria* ama arduraz umeei eskola emateko etxea eraiki duen andereño antzeko dager. Andre Mariari ere “Jakinduriaren Jarleku” deitzen zaio arrenetan. Beraz, argi al dago emazteak gizonari emandako jakinduriaren frutua zertan den?

—Ez, zera baino: ea Baradisuko zugaitza gaitzaren eta onaren

jakinduriaren zuhaitza izan zenetz.

—Hala dino mitoak. Guk halako zerbait dugu Malatu Zuhaitzaren akorduan. *Bizkaiko Foruan* aipatzen denez, bizkaitar guda gizonak Arabako mugetan Luiandoraino heltzen zirenan, ezpatak Malatu Zuhaitzean josten omen zituzten, handik harakoa zaindu edo handik hara gudukatzea ez zegokiela-eta, “eurak libreak zirela” adierazteko.

—Zer esan nahi du Malatu izenak?

—Sagarra *mailatu* dagonean, usteldu egiten da, norbait *malatu* dagoenean hil zorian dago. Halatan zegoen, nonbait, Luiandoko zuhaitz hori, zaharkitu eta *mailatu*. Bizkaitarrak handik harako gudaritzatik jaregiteaz zera dino Bizkaiko Foruak: “aske izate eta herri eskubide hori Bizkaiko Jaunek beti gorde izan ebela”. Malatu Zuhaitzari esker, gogoratzen zuten bizkaitarrek nolabait “On eta Gaitzaren Zuhaitzaren” jakinduria, hau denontzat zeukaten euren Jaunerriaren alde armak jasotea, baina ez dohan beste inongo jaunaren alde, jaun orrek soldata egokia ordaintzen ez ba zien.

—Lehen ojetore antimilitarrak ote ziran, ba, bizkaitarrak?

—Bere garaiko guda aurkari, noski, baina ez lehenenak, behar bada. Nork jakin Malatu Zuhaitz horren historia noiztikoa zan? Sumeriar herrian ere guda aurkako jenderik izan zan, Sumeria kanpotarren agintean jausi zenean. Nippur, Sippar eta Babiloniako jendeak ere errege edo jauntxu berriaren guda deiari uko egiteko euren jainkoengandik hartua zuten lege zaharra aipatzen die: “gu aske gara arazo hortatik. Anu, Enlil eta Ea jainkoek batzarrean erabagi bai-zuten bere jendea guda beharretatik aske zirela”. Jakinduria hau K. a, bi milagarrenean idatzi zan. Nippurtarrak-eta jainkoen agintzaria gogoratzen zuten eta bizkaitarrak asabengandiko usadioa zuten, Luiandon Malatu Zuhaitz ondoko ohikunak gogoratzen duenez eta nonbait napartarrak ere bai omen zuten beste antzeko sinbolopean. Bietan ere jainkoen lege zahar eta herriko usadioaren kontrako ekintzak arbuiatu egiten dira, inor hiltea eta beste herriak indarrez mendetzea Jainko Legearen aurkako ezbidetzat ezestean bezala.

—Eta ojetorea zeren jainko edo usadioaren izenean agertzen da gudaritzaren aurka?

—“Baitako ojetore” deitzen zaie orain. Ez dute Jainkoaren lege edo bestelako usadiorik aipatu beharrik. Nahiko dute norbere baitara jotea, gizaki adindu beragan bai-dago idatzirik on eta gaitzaren legea. Nahiko da aukera bata bestea baino hobetzat ematea: ona gaitzaren aurrean, bakea gudaren aurrean, maitasuna gorrotoaren aurrean, solidaritza globalizazioaren aurrean, askatasuna, menpekeriaren aurrean, etab. Beraz, ojetoreen jarkera ez da agortu, ez agortuko ere, giza barneko lege arazoak ebasten ez direno. Berez kontramutil izateak ez du balio, baina aukera hobeen aurrean adore izatea eta haren alde borrokatzea txalogarri da benetan. Horrela jakinduria zaharra eta berezkoa izatetik, gizar-teko jakinduria ikasia izatera heltzen da. Ojetore izatea “On edo Gaitzaren Zuhaitz” frututik aukeratzea bezala da.

### 31. Troiako torrea

“Troiako zaldiarena” entzungo zenduen, ez ala? Bada, alda ditza-gun behingoz arerioen amarruak goraiatu zuten zamaria eta “Troiako torrea” deituko diogu gaurko saioari, dorrea ere torre izan bai-zan, hitzaren ozendura sortu aurretik.

—Baina “torre” hori ez ete da, ba, erdara eta, hain zuzen ere, *turri* latinetik datorren hotsa?

—Hala ere, ez ziran izan erromatarrak eta ez latinoak ere torrea asmatu zutenak, eta erainkintza horri deitzeko izena, babiloniarrek *duru* deitzen zien euren uriko dorreei-eta, *uritu*>*ortu* bera delako *turri*, arketipoen itzuliaz. Eladetarrak baino mila urte aurretiz *uritu* ziran Asia Hurbileko auzo asko. Ate urituagatik ospetsuenetarikoa *Troade* “*ate ortu*<*uritu*” izan zan. Troade urian sartu ahal izateko eladetarrek zurezko zaldi amarrua asmatu zuten. Eta euskara mito biziaren izenean, ez ote dugu geuk euskaldunok ere euren hizkuntza klasikoen areto nagusian geure zaldia sartu behar? Bai, latinaren eta grekoaren salan, esan nahi dut.

—Ze zaldi baina edo ze amarru?

—Alegitan esana da, guk, hizkuntzalarien areto torretuan sartu ahal izateko, gerkarren zaldiarena baino, amarru hobetik badugulako. Amarrua barik, artezia. Amarrua euren izan zan eta heuren eskolako amarrurik nahiko jasan dugu. Guk euskara mito biziaren aholkua dugu. Hasteko, jakin behar da Troade, eta bera baino mila urte aurretik aipatuneko Ur uria bezela, iri guztiak harriz edo harriluz uritu edo urbilduak izaten zirena, ate bat edo bestek bakarrik, inoiz arta estuak, uzten zutela sartu-urtenetarako igarobidea. Edonoiz, baina gudatean bederen, zaindu behar izaten ziran ateok, eta atariok, gaez lapurrak edo egunez arerioak sar ez zitezen eta halakoen aurka gogor ekiteko. Horretarako ataurrean torrea erakitzen zan. Troade uriko ate nagusiak, adibidez, torretzar bi zituan ataurreko albo banatan. “Ataurrera! Jagon ataurrea!” -hots egiten zan, *atakan* izaten zelako *atakea*. Eta nork zaintzen zuan ataurrea?

—Dorreak edo dorrezainek.

—Jakina! Dorrea eroriez gero, agur uria. Beraz *ate+ur*>*ataurre*>*torre* dator, ataurreko gotortegia. Baina harakoan, gerkarrek itxura baten, arma indarra barik, zurezko zaldi amarrua sartu zuten Troadeko ataritik, herriari egin oparia bailitzan. Barruan zeukan arma indarra. Gure euskarak hako zaldiarenak baino indar hoberik ba du, kultura, Europako kultura zaharrena eta bakea baiditu mezu. Inor ez da ausartzen hari zuzenean kontra egiten, naiz azpitik arerio asko dituenarren. Egizue, bada, euskara mito biziaren jakinduria soilik dugula gure alde euskaldunok European egin behar dugun kultura burrukan. Ez dugu jasango euskara zuzia imilaupen gorde dezaten, argimutilera jaso arte ekingo diogu. Hatarako eskubidea dugu, eta ez Troade porrokatzeko grekarrek izan zuten aitzaki hutsa.

—Ze aitzaki edo zer du Troiak torreez edo dorreez, zerikusirik?

—Elena neskearen aitzakia baino, Tartainola itxas atartearen jabetasuna izango zuten ziurrago artean, itxas atartea halako dorrez gotortu uriak zaintzen bai-zuen. Eta hori zan Troade<Iturrate “torre atea”. Bada dira *Urrate/Atauri*, *Urrutia/Aturri*, *Urda/Turia*, *Urretxu/Atxuri*, etab. formetan agertzen diren uri gotortuak. Hasi-era baten, hala ere, *Iliona* zan bere izena, ots, *ili+unea* eta *Ulina*,

*Ullon, Llona* formetan egiztatzten da gurean, bada *iri/ili* arketipoak, *uri/uli* bezala, hizkuntza bakoitzeko jainko arketipoen araberako jokoak egiten dituzte. Uri ditugu kasurako *Uriona, Iruña, Irun* ere. Nonbait *Iliona* izena maxkal gelditu zan uriate edo ataurreko dorre barrien harrotasunean. Hura ataurreko dorreen ausardia eta edertasuna! “Iliona ezeze, Torreate da hau” esan bide zuten. Eta hortik Troade>Troia gelditu.

—Bai, baina nork ziurtatzen digu antxinako Troia, lehenago Iliion izan zena eta ez bestelaz?

—Homerok ez dik esaten horren zergatia, baina euskara baduk hori azaltzeko beste. *Iliona/Uriona, Iturrate>Troade* baino aglutinazio soilagoa delako, hain zuzen, eta beraz, zaharragoa. Zenbatu, ezpaere izen bakoitzaren konsonanteak eta hortik atera. Honetan euskal abizen luzeenak eurak dituk azken aldikoak. Mito bizia denarentzat ez zegok aldien alderik, baina aldea, eta handia gainera, mitoa zurrundu eta hitzaren guna aztu dutenentzat duk.

—Mitoa nola zurruntzen da, ba?

—Adibidez, egitiarren jakinduria eta teologia albora utzi eta haien momiekin eta bitxiekin gelditzeak zurruntzen dik mitoa. Hareago, euskal abizenaz harrotu eta euskararik ez dakitenak, euskara jakin eta egiten ez dutenak edo euskara mito bizian sinisten ez dutenak zurruntzen ditek mitoa. Beste era batera esateko, jakinduriari atea izten dizkietenak eta euren jarduerako eritzien ataurrean Troiako dorre eskergak eraikitzen dituztenak, hoiek euren aurreeritsiekin zurruntzen ditek mitoa. Zer egin behar dugu euren harrokeria porrokatzeko? Euskararen arteziaz baliatu.

—Zer da artezia?

—*Artezia*, bide arteza ezeze, artez egineko lana da, beraz *arte* hitzetik dator. Grekoek eta latinoek kopiatu egin ziguten haiek *arti* “zuzen” adierazteko eta hoiek *arte* “egoki, ederlan” adierazteko, gaztelerak, berriz *artezi>ardid* esateko. Eta geurea dugun izena ez al dugu *artez* erabili behar? Izena duenak izana du. Eladetarren zaldiagan ba zegoken, ausaz, arterik, areago Troia uriko harrizko ateetan erromanikar edo gotiar elizatetako eder-

tasunik. Guzti hori *Atarre/Arta* bezalako tokizenetatik dator, *atari-arta* hoiek zaintzeko behar den *arteziaz*. Zoritxarrez gaurdaino geu izan gara galtzaileak. Geu gure uriko atetik inoren zaldiak geure kalean sartzen utzi ditugunak eta *artatik* inoren mamuak geure gogamenean. Baina euskaldunok European kultur sarrada egiteko, ba dugu zaldi azkarrago eta biziagorik...

### 32. “Tartalo, hemen nago!”

Ulise euskalduna izan balitz, ez zan galduko gerkarrek *thalassa* deitu itxasoan, ez zuten malmuzkatuko laminek, ez erratuaziko bideetan belagileek, ez zioten ontzia puskatuko galernek, ez zan nora ezik ibiliko, edo lehengo egun baten turista bat Irun ateko ataskoan bezala, bideko kartelei begira, gaztelaniazko azalpenak ezin aurkiturik, txofer batari eta besteri alemanez alper galdekizunak egiten, inork ez bai-zion ulertzen, denek ere poltzetan balore berdineko euroak eramanarren. Ulise galdu zen itxasoa inguruko herrien bidea eta *atelasa* zan egitan eta *thalassa* deitzen zioten.

Ulise eladetarra Troiako gudura joan zan, orain amerikar eta espainiar batzuk Afganistanera eta Irakera bezela, besteen lepotik euren negozioa egitera. Ez nintzake bape harrituko, Ulisek itxasoan bezala, besteok legorrean burua galtzea, ez pastunera, ez kaldeera, ez Mesopotamiako beste hizkuntzarik ez dakitela. Ez nintzake bape harrituko eurerariko batek baino gehiagok hanartean andregaia ere galtzea edo, itxaroaren itxaroz, etxean utzi duten andreari asper eragitea, Ulisek Penelope emazteari bezala.

Ulise, nobait indoeuropear zenez, ez zuan ulertzen ingurune haretako kultura zaharren hizkuntza. Itakako atekatik urten, *Dardanelo atarte* igaro, Troiatarrei zaldia saldu eta Elena neskatila baitua izanagatik asperkundera bete eta gero itzulian, itxasoan izurdeak laminatzat hartu, laminen kantuei jarraiki, Itakako atea ustekabean gaintu eta Atalasa erdian, *Tartinia* inguruko *atarreetan*, batean sartu eta bestetik ezin urten ibili omen zan, iburniko *atarrean tartaloe* aurre egiten ziotela-ta, haren suzko arpegiak ekidin ezinik.

—Konta eiguzu Tartaloren eta kito.



—Irlen edo mendi *atarteetan Tartalo* etoiak eta *athal* aurretan, berriz, *Atalante* sendo porrokatuak egoten ei ziran atezain, *Atlas* mendietako *ateletan* bezala. Antxinakoen ustetan *tarteok* Utu/Erra iduzkiak bere bideko sartu-urtenetan egin pasadisoak omen ziran, bada, *Utu+Ra>atari* den *Terra* eta *Utu+Ilu>athal* den *Tellu*, latinak ere “Lur” adierazteko erabili bai-zituan izenok, *Tartaru*, berriz hilen iburnia adierazteko. Beraz, beste gauza askotan bezala, euskarak ba daki pertsonai horren izena nondik datorren, latinak eta grekoak ez bezala. Hagatik *Tartaro* edo *Tartalo* ipuina, euskal artzaintxo baten jakinduriak menderatu zuena, bederen, arrunta egin zaigu. Zegaman jazo omen zan. Anaitxo bi ardiak bazkatzera joan omen ziran, baina bidean Saadar mendiko koba arakatu irrikaz, barrura sartu omen ziran. Atean bertan harrapatu omen zituan Tartalok eta ataka harrizarrak takatu. Iluntzean suari egurra gehitu, burduntzia jaso eta anaietariko bat bertan oratu, surtan erre eta afaldu omen zuan, anaia txikiaren begi bistan. Asetu ondoren lotarako orduan, Tartalok erastun miragarria ezarri omen zion anaia txikiari hatzamarrean “Tartalo hemen nago” salatzen zuena. Tartalo etoia loak hartu zuenean, artzain txikiak handik bizirik urteiteko artezia asmatu zuan: Tartalok erabilitako burduntzia sutan goritu eta bekokian zuen begi bakarretik sartu zion. Tartalo orroaka esnatu zan eta itxumustuan beste mutikoaren bila hasi. Mutikoa ardi larruen artean izkututzen zan eta erastunak “Tartalo, hemen nago” salatuala, hango beste pardel ostean izkututzen. Tartalok orduan harpea larruz garbitzea erabaki zuan eta, sarrerako harria irauliz, larru pardelak kanpora ateratzen hasi zan. Artzaintxoak orduan, ardi narruz jantzi eta Tartaloren esku artetik, eztalakoan, kanpora urten ahal izan zuan. Artzaintxoa etxera abiatu zan, baina “Tartalo hemen nago” erastunaren salapenera, etoia zangokada handiz atzetik zetorkiola konturatu zan. Erastun madarikatua eritik ezin aterarik, harri batekin eria moztu eta osinera jaurti zuan. Handik zan “Tartalo hemen nago” deia eta hara zuzendu zen Tartalo itxumustuan eta bertan ito eta artzaintxoa salbu gelditu heriotzatik”.

—Eta Uliseren tartaloak ere jeinu berdinak al ziran?

—Ez, bada, euskaldunentzat gaueko iduzkiaren atarte zaindari

ziren jeinuak, grekoentzat atartea bera edo handik harako iburnia gertatzen da. Eta Ulises guzti honen ezjakitun zela, lagun bat barik hiruzpalau galdu zituan eurek Polifemo deitu-tartalorekin burrukan. Eladetar asko indoeuropear etorkinak bai-ziren eta ez zekiten ten mediterranean inguruko herrien jakinduriarik. Eta ezagutu beharrean, ulertzen ez zuten mundua gorrotatzen eta hari burruka egiten asi ziran, Espanian bertan antxinatik hona gotiar gogoko direnak euskaldunen kontra gizaldietan egiten ari diren bezelaxe.

—Eta Tartalo euskalduna ala indoeuropearra zan?

—Ez euskalduna, ez indoeuropearra, baina bai gure asaben eta ustekizun edo haien irudimenak asmatua. Esan dizuet Tartalo Iduzkiaren bide tarteetako zaindari etoia zela, asaben ustetan, *idittuak* eurak bezala.

—Zer dira iditxuak?

—Ni txikitan *idittuen* ipuinik entzunda nago. *Idittuak* tartaloak baino zaharragoa ziran, izenaren soiltasunari begira. *Idia Uturen* maskota zan eta haren kasta *idittuak Uturen gaueko toilu* eta *txulo>zuloen utukku* “zaindari” *tukutsuak*. Ahotik sua jaurtitzuten omen zuten. Hortik datozte gure plazetan jostagarri erabili izan diren suzko zezanak-eta “Iriarena”. *Iddituak* gizakien gida onak baino, hareago omen ziran bidegalerazle etoiak. Gerkarrek “Minotauro” deitzen zien halakoei eta Kretako Muinoze edo Minos zeritzaion kobako jeinu edo nortasun errebeseko sorkari egin, erdi zekor, erdi gizaki, gizajale. Doriarren ustez, urtero Eladeko ehun neskaren zerga iraingarria irunzten omen zuan pistitzarrak, zekorra, berez, belarjalea izaki. Ez zuten, antza, aitzaki hoberik idoro indoeuropearrok *Karaeta>Kreta* itxasoko erreginea erasotzeko, terrorista mamua lepotik egozte baina. Itxastar haien aberastunak zituzten irrika benetan eta haien kulturaz, nortasunaz eta izenaz jabetu ere jabetu egin ziran. Harrezkero Eladeri *Garatia>Grazia* deritso. Eurak aitortu, Elas aitortzen dute orain ere, baina, ostunekoa eukitez zutenekoa baino gehiago zenez, Sartaldekoak ostuneko altxorretik deitzen jarraitzen diote, eskutik eskura bezala, Kretako artearen eta kulturaren jarraile direlako.

—Ba euskaldunori ere, “terrorismoa” egozten digute etsaigoa

digutenek eta ez zeozergatik bakarrik, bai eta zeozertarako ere.

—Hori, hako doriarrak, hemengo bisigotak bezala. Historiak erakusten digu herri txikien arriskua zertan den, baina bai eta asabek “asmoz eta jakitez, txikiak handia bentzuten” jakinduriaren emendioa. Asmo onean eta jakitean ez dago indarkeriarik, artezia baino. Eta bakoitza burujabe izatea asmo ona ezeze, esku-bide orokorra da demokrazian. Eta honetan euskaldunen genesak demokrata petoarenak dira. Eta gu bezalako herri txikiok iraunkortasunaren genesak bultzatu behar ditu historian zehar.

—Zergatik dinozu eskaldun genesak demokrazia zaleak direna, “euskara mito bizia” hori dela-ta, ausaz?

—Bueno. Euskara hizkuntza zaharra eta “mito bizia” jainko ordezkariak eta giza ordezkariak mahai berean exeriaz eta zeru eta lurreko auzian oreka sortzeko lain izan denez gero, hareago izango da gizartean “nori berea” aldarrikatzeko eta hitzari, berbeari, bere egia itzultzeko, “nori berea” lematzat duen zuzenbidea hemendik hasten delako. Beraz, ez daitela ifarretikoen edo egotikoen sarradez inor baliatu, hitzaren baloreak irauli eta euskara gurea ezin ulertu hizkuntzen gelan atxilotzeko.

—Indoeuropearrak izan ziran edo dira horren errudun?

—Indoeuropearrak barik, indoeuropeistek. Zer dela-ta? Ba, antxinako jakinduriaren ezjakinean, azken aurreko jakinduria ziurrena zela uste izan dutelako. Indoeuropeistak nahiago izan zutelako, euskoeuropeistak baino, etxekoa iguinago dutelako, atzekoa baino. Hoietaz esana du euskara amak “kalean uso, etxean otso”.

—Zer egin behar dugu atzipetu eta azpiratu ez gaitzaten?

—Itera jo sortetxerantz, ez jara egin uinen zirimol eta laminen aholkuei, ontzi auskorretan ez oinik ipini, itxasbide edo mendi bide jakinetik zeharretara jo. Euskara, antxinakoen eta gaurkoen jakinduriaren jabe den mito bizia izango dugu gida, berak salatuko du laminen ziria, berak gezurtatuko minotauroen eta tartaloen egia eta armatuen gezurra. Zuek badakizue hako sorgin gaiztoak behin gurasoen etxetik harrapatu eta urruneko basora eramano nebarrebatxoekin ipuina?... Ba, konta iezaiguzu, neska, mesedez.

—Ba..., sorgin gaiztoak behin umeon etxean sartu eta, euren gurasoak lanean ari zirela, umeak oratu eta basora eraman zituela preso. Bidean, mutikoak ogi pusak uzten zituen txitean pitean arrastotzat eta neskatoak, ostera, tabaka erabilten zituen errekarri zuriak. Basora heldu eta gaua egin zenean, sorgina lokartu egin zan. Nebarrebatxoek, lokarriak askatu eta basoan zehar etxera bidean abiatu ziran. Baina nondik asmatu etxerakoa? Mutikoak ogi apur jaurtien arrastoa jarraitu nahi zuan, baina artean txoriek jana ziran, han egozen, ostera, neskatoak jaurtineko harriak lekuko argi eta horrela, harri arrastoen gidatik, etxera itzuli ahal izan zuten aitaren eta amaren pozerako”.

—Horixe bera egin du euskara mito biziak Sotaldeko gurasoen etxetik urten zuenetik eta gurera heldu zeino. Mendi-aran bakoitzari, irla eta itxas golko bakoitzari bere izena ezarri eta aurrera jo, Sotalde honetan bere baratza antolatu zuen arte. Orain itzulia egin nahi dueneko, izenak gogoratzea baino ez du, eta orobat, asaben urruneko etxera itzulia egin nahi duen euskaldunei, euskararen arrasto hoiek jarraitzea baino ez du. Izen arrasto bakoitzak “ni, euskara naiz, ni hemendik igaro nintzan” ots, deiadar egiten digu bidean. Berari jarraitzea baino ez dugu gure asaben sorlekutik ondorengoak bizi dugun lekura dagoen osterea egiteko eta euskal-europeismoa munduan zehar aldarrikatzeko.

### 33. Gizaki izan nahi zuen Jainkoa

Ume ezinduak ezin du amagana heldu, baina amak bai umeagana, eta hareago deika ari zaion umearengana. Egoki da umeak amari apapa jaso dezala eskatzea eta zuzena amak umea besotara eramatea. Orain, bada, zertan gelditu ziran euskarak Jainkoari inobere egindako deiak? Ze ondore lortu zuten *ino, enei!* harako *inzini* eta *minduruak, otoi, eit! ots* eta *otoitzak, ara, arren! eroiu* eta *arrantzak* edo *hil, hel! alauri* eta *alakatuak*? Zertan da mitoetan eta jakinduria zahar eta berrian oreturiko salbamen espe eta itxaropena? Zerez bete zuan Jainkoak giza hizkuntzak aurretiaz prestatu zion itunbena eta teologia? Ala gizakia alperriko irrika al da eta euskara alperriko igarkizuna?

—Ez holakorik! Euskara ezin daiteke, inolaz ere, alperriko hitz izateraino erratu. Euskara geurea da eta ez dugu besterik.

—Beraz, geurea da euskararen egia, mitoa eta jakinduria ere. Geurea da euskarak aurretiaz iragarria eta iragarri bezala gertatua, bestela euskarak, ez inongo hizkuntzak, ez luke arteziarik izango eta herriek euren jainkoekin egin itunbenak utsean geldituko lirake. Alperrik asmatuak *maite, duin, zuzen, itun, eredu, dohai, ustego, erruki, damu* hitzak eta, *erosi, sorosi, soltü, osatu, larga, ixetu, itxaron* aitortenak. Zentzu gabeko *ogen, barku, benaz, gurtu, jaun, esku, esker, espe*, etab. baloreak? Edo nork eta nondik sortu zituan gizakiagan *antzi, inka, irrika, lehia, ardura* bihozkerak edo *almen, indar, manu, oro, oso, anitz*, handi analogiak? Gizakiak adindu zenetik ezagutu zuan jainko asmoren bat zuela barnean gordea, nolabait jainko unetik sortua izan zelako. Eta asmo hori argituz, bera ere *An/Ino* Jainkoaren *antza, antzi* eta *untza* beragan ezagutzen hasi zan. Hala ere, bideko estropezuetan itera bidea gal ez zezan, edo galbidetik atera, egoki zan noizbait edo aldien osatzean Jainkoak gizakiari gizabidez amagandiko Jainko *antzera* erakutzi ta eskua eman zezaion.

—Beharrezkoa al zuan Jainkoak emakume batengatik gizatu edo gizon egitea?

—Eta benetako gizaki izateko Jainkoak bai ete du emakumea baino beste biderik? Eta izatekotan, amagandik jaiok sinistuko ote lukete halako gizakiagan? Mitoen jainkoek ere ama erraiak erabili zituzten gizakiaren sorkuntzan. Horixe zan bide arrunta eta aproposa: emakumearen erraiak. Jainko edo jainkosekin ezkondu nahia hilezkor izateko giza irrikatik zetoren? Irrika hau behetik gorakoa dager mitoen jakindurian. Eta erantzuna gotik beherakoa izan behar zuan, ea Jainkoak gizakiarekin ezkondu nahi zuen jakiteko. Izadia halan antolatu zuenak, horrela burutu nahi izan zuan. Eta Jainko Semea gizatu zenetik, Jainkoarekiko ezkontza egina dago eta sorkuntza osotua, ez da jada beste berririk, dena Beragan burutu bai-zan.

—Jadanik ez dela gauza berririk sortuko eta ezin dugula beste ezer itxaron orain bizi dugun aurrerapidean?

—Jainkoak bere Semeagan eman zuan gizakiak eskatu zion erantzuna; egitekoa egina dago; ez du birritan berba egin edo bizia eman beharrik, ez gizakia birritan salba beharrik. Gertatua gertatu, gure bizi epea eta itxaropena azagan digaro, berrogetasak urte dituen gizakiaren bizitza bezala. Aurrerapideak ere zera esan nahi du: bizikizuna azagara doala, haraz gero, bada, haserak azkenarekin biltzeak ematen bai-die aldiei zentzua eta osapena.

—Eta zelan dakigu Jainkoa gizatu zena, guk ez bai-genuen ikusi Jainko Semea, ez jaioten eta ez hiltzen?

—Ez eta bizten ere, baina, fedez aparate, espe hori hitzaren jakinduriari galdetu behar zaio, ea sinistagarria den bere eratzuna. *Jesu* izena ez zuan zerutiko aingeruak asmatu, egokitzen eman zuan ostera, akadiar *shedu* “aingeru jagolea” izena, aingeru lana bai-da, haurraren bideak *xedatzea*, “gizonak asma, Jainkoak *xeda*” euskal jakinduriak dinonez. Profetek ere “aholku handiaren *shedu*=aingeru” iragarri bai-zuten aurretiaz eta “salbatzaile” hauteman, “berak salbatuko bai-du herria bere pekatuetatik” esanez. Hako euskaldun agureak ere etortzekoa zen *Kixmi* iragarri zuan izar disdizariaren agerpenean, bera bai-da *Kristo* Jainkoak *gizatasunez gantzutua*, *giza* arketipoak ere, haren gizatasunaz aitor egiten duenez. Ez duzula *Jesus* jaioten edo hiltzen ikusi, baina entzun egin duzu haren izena, haren izenaren segetua, bere gizatasunezko izena *Shedu*>*Xesu*>*Jesu* eta ekintza salbagarria, aurretiaz esanda eta ahozkatua, otoiztua eta eskatua zegoelako, eta euskalduna, euskara bezain adi eta zuhur egon behar du aldian aldiko seinale eta hotsen mezura.

—Profeten esanez, *Jesus* izenak “aingeru” esan nahi badu, *Jesus* ez zan izan gizakia, aingerua baino, eta aingeruak espiritu hutsak dira.

—Arraiea! “Aingeru” izenak ere ba du giza arketiporik artean, baina nik *Shedu*>*Jesu* datorrela esan dut, aurizki *As* giza arketipoa duena. Arketipo honen bidez lortzen du, hain zuzen, gizakiak Jainkoagandiko santutasun zehatza, “hagatik *santua* deituko da zugandik jaioko dena” esan zion aingeruak *Maiari*, hitzaren erritoak argitzen duen eratan eta hitzak ez du gezurtatzen eguno jakinduria. Arketipoz *Seth* eta *Satan* ere onak ziran, eta aldi batean onbideari jarraitu ziotenak, baina, giza askatasuna zer den, onerako *setak* barik, gaitzerakoak gaiztora eramanean, gaitzaren eredu eta analogia bihurtu ziran.

—Euskarak beragan izan bazuan jakinduria guztia, zergatik baliatu izan da latinaz “angeru, adoratu” eta holako mailebatuekin?

—Euskarak ez du latinaren beharrik izan, baina erromantzatuek, euskara handirik ezean, latinaz baliatzen ziran katekesia egiterakotan eta haren kutsuren bat utzi behar, euren ezjakinarena, alegia. Latinak, ostera, euskararen eta beste antzeko hinkuntzen laguntza beharrezko izan zuan, “biztu” esateko ere euskararen *ixetu*>*scitare* hartu bai zuan edo *eskantzatu* handik *scandere* egiteko, etab. Euskararentzat ohore da latinak bezalako hizkuntzak bere iturritik edatea, baina iturri jabetza inori kentzea beti ere lapurreta izango da. Erromantze deitu hizkuntzak ez zuten negarrik egin latinaren heriotzean, ustezko kulturen batzailea, banantzaile gertatu bai-zan hasieratik, “divide eta vinces” berak eskolatu eta jarraitzen zuan bezala, hau da “banandu ta zapaldu”. Europako herrien hizkuntza ere enperio batuaren izenean murriztu bai-zuen eta bata eta bestea galdu zituan gero, berak artean zapaldu txikien arnaserako.

—Eta erromanikar hizkuntzak zer?

—Hizkuntza erromanikoak latinaren ohoretik pustutzen dute jatorria, baina elkarren ezinulertua dute, ez dakite nondikoa den euren altxorra, latin ehortziaren hilobitik hara. Egia dena jakitea ere bost axola zaie, lapur kumeari gutxi ardura bai-dio, etxeko eukiak nondikoak diren jakitea.

—Ze hizkuntzatan erakutsi zien, bada, dotrina euskaldunei?

—“Euskaldunei euskaraz” izan da lege eta nola arraio uler zezaketen bestela euskaldunek? Unamuno gazteak ere aitortzen zuan hainbeste: “Ia edozein baserritar, gaztelaniaz zerbait mordoiloiz bada ere ulerzeko gai da, baina sermoia erderaz denean, ez dute tutik ere ulertzen eta euskaraz egin behar zaie, ezer uler dezaten”. Orduan euskaldunei teologia nork erakutsi zien argi dago: euskararen jakinduria zeukan hitz aproposa euskaldunak jakinduria zaharra eta berria uler zezan. Nola uler zezaketen dotrina berria, zaharraren bidetik etorri ezean? Jakinduria zaharra aztu zutenek bakarrik har zezaken paganotzat *Inko* izena eta “menos Jaungoikoa y más Dios” izekatu, Ebangelioa kaltetuz. Hagatik euskal mi-

siolariak, orokorrean hartuta, zentzun hobea izan du herri bakoi-tza bere hizkuntzan eskolatzeko legea onartzean.

—Euskaldunentzat Kristo aitortzea ez zan izan orduan artean sinisten zutena ukatu eta ilunetik argitara aldatzea? Bada, entzun dudanez, euskaldunek beste herri askok baino minkiago iraun zuten euren paganismoan, kristauen dotrinaren aurka.

—Iluna gehiago maite izan ebela, beste askok baino? Ez dakit ze amoriarren izan ziteken halakorik. Bestalde paganoek euren iluntzean, argi nahiko izan zuten eta eguna argitzean lehengo begiez ikusten jarraitzen zuten, lehen baino hobeki, hatan ere. Euskarak eskolatu zituen aldetik ez zeukaten beste herriak baino eragozpen handiagorik eta, ausaz, bai abantailik nahiko. Herriko batzarrean gauzak, ohiturazko legeakino, eztabaidatzeko ohitura zuten, Mari jainkosaren marra xedegarriak, Jainko aginduekin pareko etozen, zenduen zoria lehen baino argiago ikusten zuten, ez zuten lege idatziaren oztoporik, ez zuten erromatar enperioko erlijioarenganako atxikitasunik. Izan ere, kristautasuna atzerritarren nausigoa apurtzera zetorren nolabait. Euskalduna gertu zegoen entzuteko eta ulertzeko, mezua euskaraz iztekotan behinpehin.

—Hori bai, baina kristautasun beraren aldetik, ninoan.

—Eragozpenik? Zera. Kristok berak esana: “ez naiz Lege Zaharra ezabatzeraz etorri, betetzera baino”? Jatorrizko mitoak eta asaben jakinduria bera zan euskaldunentzat Itun Zaharra eta ostaz zegoen bertan hamarretik bat ezetzi beharreko erabagi edo asmorik. Dena zela argitugarri, baina eskerrak aurretiaz zuten jakinduriari uler zezaketen errazago Berriona, artean ere Jainko Espirituak gidatzen bai-zituan herriak. Hagatik euskaldunen herri xea, aurretiaz zegoen Ebanjelioko mezu askatzaile haren gose-egarri. Dotrina eta siniskera zaharra, berriz, Liburuari lotua zeukaten herriek eta kulturek, letra berantiarrari lar atxiki, espiritua itto zuten eta Jainko pertsonatuarekin barik, kosmoko jainko zurruneekin gelditu ziran, Jainko Seme gizatuaren bihozkeraz egagutu gabe eta aske bidean aurrera pausorik eman ezinik.

—Eta orain geuk ere geure dotrina letraz idatzia irakurgai dugunez gero, ez ote gara beste liburudun kulturen arriskuan sartzen?

—Ez, Ebanjelioak berak dinona jarraituez gero: “letra heriogarra da, espiritua da, ordea, bizia ematen duena”. Beraz, betidanik eta gizaldietako sorkuntzan eta salbakuntzan ihardun izan duen Espiritua bilatu behar dugu eta haren jarraile izan. Baina, letrak, berez ez du agortzen herrien memoria, eta maiz bizigarri da.

—Zerk agortzen du orduan herrien memoria?

—Oroigarri direnak ez ospatzeak. Zeuon jaioteguna urtero ospatuko ez bazenute, jaioteguna noiz den ere aztu egingo zendukete, euskara astean behin bederen, aldi bateko eskolumeok bezala, egingo ezpagenu, euskara ere aztu egingo genduke. Guk egun haretan euskara ospatzen genuen eta gureztat euskara zein handi eta berezi zen ulertzen gendun. Euskaldunok ospakizunetako liturgiari esker gorde izan ahal dugu oroitzapen argia, “jaiegunak jai eginez” esateko. Jaietako ospakizunak memoria berrizten baidu ospatzen den bakoitzean, euskara bera mintzatzeko euskal jakinduria astintzen eta argitzen duen bezala.

—Eta zer da espiritua?

—Ara, sorkuntzako uren gainetik aidean hegatzan zen uso irudian azaltzen da antxinako mitogrametan. *Uxu* deitzen zan sumerieraz ere eta Utu iduzkiaren maskota eta ugaltasunaren irudi da. Hagatik Jesusen jaiotzan ere Espiritu bera dager, aingeruak Mariari esan zion bezala: “Espiritu Santua zure gain izango da eta Goi-goikoaren indarrak gerizpean hartuko zaitu”.

—Eta *espiritu* hitza ere euskaraz al dago?

—Euskarak *as* “arnase” dino adierazten, hortik *asperen*, *asperatu*. Euskarak *biri* deitzen dio arnase auspoari: *as+biri+tu* horri latinak *spiritu* deitzen. *Asa* hartzen dugu bizi izateko, *asbiritu* > *asperatu*, *espea* edo kexua azaltzeko eta hitz egiteko. Hagatik “zure arnasa bidal gugana” eskatzen diogu Espirituari. *As/hasi* da jakinduriatzko hizkune edo formuletari bat ere, ots, *asa* hartzeaz batera *hasten* dela umea bere kisa bizitzen, eta *asa* hori dueno biziko da, eta galtzean, hilgo. *As*, *haize* denean, *aize* doa belaria eta, *haizea* galtzean, *paioa* dator eta *azaga* da hurbil orduan, *asa* bizia bai-da eta *azaga*, haren ukapena.

## Ondoretan

Euskararen etorkizuna dagoneko geure herriaren eskuetan dagoela aitortzen dugu, baina euskararen sorrera Neolitosko geure asaberen eskuetan egon zan antxina baten, eta haien kultura ondareko garenok asaberen barne ganora eta pentsamoldea ezagutzea ezinbestekoa dugu gaurko euskaldunok, gizakiak egunoko sortu duen arterik bitxiena den hizkuntzaren segetua ulertu eta euskarak duen informazioa guztia jaso ahal izatekotan.

Mitoazterketa ez da inolazko alienazioa eta bai bat galanta, ostera, gure asabek mitoetan emandako jakinduria eta guri hizkune eta esakeretan ezeze, euskararen hitz bakoitzaren egitura heldu zaiguna ezaintzat edo alper jokutzat hartzea, euskara beraren laudoriorako edo euskararen hermenutika emendiorako baliorik, eta handia gainera, ezpailuen.

Historigileek esandakoak maiz arkeologiak jaso idazki zaharagoako edukinekin adosten dira, era berean gure etnografoek aztertu gaiak euskararen hitzak egiztatu behar ditu, ohikunak eta hitzak biak gorputz bat bera osatzen bai-dute errito beraren muienean. Euskararen lekukotasun hurbilaz argitzen ez den hetnografia lana material ona izan daiteke, baina formaren aldetik harri mokor landugabea.

Bide batzuk urratu ditugu behenipehin eta lezioari hasiera eman. Bide honeri jarraituz, aipaturiko Max Müller, erlijio gonbaratuen azterleak aspaldi esana errepika genezake orain: “egunero eta ezagunagoak egiten zaizkigu hizkuntzaren segetuak eta ezbaigabe gramatikazko analisiak kimia analisiaren pareko arrakasta izango du halakoren baten”.

Max Müllerek ez zuan euskararik ezagutzen, bai ostera, aldi bereko R. M<sup>a</sup> Azkue jaunak. *Euskal Hiztegia* argitaratu berri zuela, susmo handiak zeuzkala aitortzen digu, baina euskararen jatorri zadorretan ez zela ausartzen. Hala ere, *Euskal Hiztegiari* buruz zera dino Atari Atarian: “liburu honetako hitz guztiak irakurri eta astiro aztertuz, beste hizkuntzetako hitzen parean jar-

tzen badituzue, Linguistikak hainbat bitxi eskuturen berri emango dizue". K. Mitxelena ere euskararen jatorriaz kezu zan: "Euskararen jatorri-argibidetan zoritxarrez ez dugu aurrera pausurik eman (...) Antxinateaz lotura egiteko katebegiren bat falta zaigu agian (...), ausaz metodoak aldatu beharko ditugu".

Egoki zan hizkuntzen eta euskararen igarle hoiien asmo eta susmoei jarraitzea. Etnografiaren lorpenak aparte, euskal hiztegiaren oinarritu behar da, metodo antzuek baztertu eta asaben jakinduriara hurbil gindezaken Antxinako Sortalde Hurbileko beste herri zaharren kultura aztertu behar dugu eta haiekiko zubia egin. Filologia eta mitografia gonbaratuek geure historia ulertaraziko digute.

Agur esateko, hako txinar jakintsuaren hiltamuko irrika bizia gogoratzen dut. Heriotz orduan galdetu omen zioten gaisoari: "zein da zure gurari bizierna ordu larri honetan?" Eta honela erantzun omen zuan: "Itzuli dieziotela hitzari bere egia". Itzuli diezaiotela, beraz, euskarari ere, hain hizkuntza artezari dagokion maisutza, eta orduan hasi ahal izango dute hizkuntzalariek benetako etimologiak egiten.

## IZTEGIA:

A

- abez* "abestuz",  
*adari* "ahari, arito",  
*ador* "adore, almen",  
*adore* "alimu, bizkortasun"  
*aen*, "hain",  
*agirika* "errita, salapen",  
*aiene* "kezu kanta zahar" (Ino edo eresiekin batera, Sumerren lehenegoz sortu zen samin kanta),  
*aihen* "landare lokarri",  
*ainanino* "deabru",  
*ainen* "birao",  
*aidor/haidor* "eder, langile trebe/galant, harro",  
*aitalen* "patriarca",  
*aitor* "Aitor, mitozko euskaldunen aitalena, mazal, jator",  
*Aitor alaba/ seme* "yaio, jator",  
*akordu* "korde, oroi", *akorduan euki* "gogoan izan",  
*ala* "oinaze",  
*alha* "larre, bazkatu"  
*alakatu* "negar egin",  
*alamen* "intziri",  
*albo* "gibel, lado",  
*alegia* "hain zuzen",  
*alimu* "adore, gogo",  
*alu* "destain hitza",  
*amarru* "iruzur, tranpa",  
*amilana* "hego haizetariko",  
*amilen* "laino otz",  
*anakoreta* "mendiko gura" (gerkeraz),  
*analogia* "eredu antzera sortu hitza",  
*andrena* "andreena",  
*anei* "mila", aneika "milaka"  
*anho* "jaki",  
*ano* "ardano, ardao, ardo",  
*anonna* "urteko anhoa" (latinez),  
*antu* "handitu",  
*antzarretara ibili* "gau pasan",  
*antzeman* "antza hartu, igarri",  
*apen* "mendeku",  
*apo* "sapo",  
*ara* "aldare, aldareko harri",  
*arauz* "eritsiz",  
*arbuatu* "ezetsi",  
*arerio* "etsai",  
*argimutil* "candelabro",  
*arintu* "igon, jaso",  
*arketipo* "antxinako hitz-hots eredu", jainkoen izenak eta giza konplexuaren izen monosilaboak dira,  
*arpatu* "harrapatu",  
*arraba* "arrainen arrautz tokia",  
*arramantza* "matxinada",  
*arran* "zinzarri",  
*arranbera* "sistro, pandero",  
*arranda* "errendatu",  
*arras* "guztiz",  
*arren* "mesedez", dolumen "doluzko"  
*arta* "atari, zirrikitu",  
*artez* "arin, zuzenean, behingoan",  
*artezi* "maina, ardid",  
*as, asa* "ats, arnase, asperen",  
*asabo* "urrun",  
*asabotu* "urrundu",  
*asakatu* "akabatu, amaitu"  
*askazi* "naza, kasta",  
*a saco* "indarrez hartu, ostu",  
*asperen* "asgora, asbera",  
*asperkunde* "apentza",  
*atabuta* "hilkutxa",  
*atalas* "ataurre",  
*atasko* "ateak hartu ezina, oztopo"  
*atatu* "sartu",  
*athal* "ate",  
*atitar* "Atti>Asia (Txikiko) biztanlea, hitia ere deitua.  
*atso* "zahar, emakume zahar",  
*atsotitz* "atso+hitza, zaharren jakinduriako esakuna",

*atton* "aiton",  
*atün* "zentsudun, asko ikusia",  
*atxarri* "harkaitz",  
*atz* "santzu, zantzu",  
*azaga* "azkena, bizitzaren amaiera",  
*azagai* "gezi"  
*azaro* "azitarako haroa",  
*azkortu* "elikatu",  
*azoratu* "astoratu, urdu"  
*azore* "aztore, azor"

B

*ba,*"baita, barne",  
*baita* "etxe, barne",  
*Balbe,* "Herio",  
*baldar* "mailutzar"  
*baldatu* "lardaskatu"  
*balditu* "apaldu"  
*baratxe* "emankor". Hortik>feraz.  
*baratzakuxu* "baratzeko maloa"  
*barku* "barkamena",  
*basa* "basati",  
*baxatu*>*bajar* "jatxi"  
*batza* "batzarre"  
*begitantxino* "irudikizun"  
*beatu* "begitu, ohartu"  
*behatu* "ehortzi, lurperatu",  
*belari* "oihal untzia"  
*ben* "egiazko, formal",  
*benaz* "egiaz", *benaz egon* "larri egon"  
*berere* "batez ere",  
*berro* "sasi, lar"  
*berru* "lupu, escorpión"  
*besanga* "adar",  
*bezu* "ohitura"  
*betilo* "larre jainkoen oroitarri"  
*bilgune* "batzartoki"  
*biri* "arnasaren auspoa, pulmón"  
*burudia/diabru* "zazpi burudun erensugea"  
*burujabe* "aske, libre"  
 D  
*dia* "oste, talde"

*digaro* "igaroten da"  
*dinozu* "esaten duzu",  
*dioatzu* "joaten zaizu"  
*dohatsu* "zoriontzuz",  
*doi* "zuzen, exacto",  
*dotore* "apain",  
*duin* "beste, digno",  
*dundu* "urdin",  
 E  
*edosi* "erosi",  
*edoski* "xurgatu, edan"  
*edu* "eredu, bezala",  
*egi* "mendi-zeru ertz",  
*egitamu* "egitarau",  
*egonarri* "itxaropen",  
*egotxi* "jaurti, egotzi"  
*eguno* "inoiz ere ez",  
*eite* "antza"  
*ekidin* "itzuri, igesi",  
*ekur* "arroka" arketipo itzuliaz, "mendi tenplo" (sumerieraz) eta *Ekurmendi*, *Gurmendi*, etab. bezalako tokizenetan.  
*ele* "hitz, ipuin",  
*elekatu* "elkarri esan",  
*elesari* "goralpen",  
*eliki* "lasai",  
*emai* "emaitz",  
*emarazi* "agindu",  
*emendio* "lagungarri, burubide, neurri"  
*enoiiu>enojo* "unadura",  
*enor* "orban, garitx"  
*eñe* "esne" (haur-hitz),  
*epe* "dagokigun aldia, aldi seinalatua"  
*eraikin* "etxe",  
*eraspen* "jaiera, debozio",  
*eratorri* "derivado",  
*erauzi* "birrindu",  
*erditu* "ume egin",  
*eregu* "mimatu, laztanak egin"  
*Erensuge/Errensuge* "Erraren Suge"  
*eri* "hatzamar, beatz"  
*eretz* "izai, altzipres",

*Erkingu* "Sortalde",  
*ero* "zoro"  
*eros* "ospe", *Eros*, maite jainkoa gerkeraz,  
*erosle* "salbatzaile".  
*erra* "aserre, ira",  
*erran* "esan",  
*errebero* "errapetik harako esnea",  
*errepa(ra)tu*<*erre+beatu* "beatu, ohartu"  
*errebese* "basati"  
*erres* "arras",  
*esakun* "herri jakinduriazko esakera",  
*eskara* "eskuara, euskara"  
*esto* "hesi, seto",  
*eskain* "opaldu",  
*eskala* "eskale",  
*eskalas* "jataldi handi",  
*eskanditu* "erabagi, indartu",  
*eskanu* "exerleku, jarleku",  
*eskantzatu* "igon, askatu",  
*eskantzu* "eskaileira buru",  
*eskas* "urrurik, peituz",  
*esker* "mesede, gracia",  
*eskeraga* "handi, itzel"  
*eskondu* "lortu",  
*esku* "eskui, eskubide",  
*eskuartze* "parte hartu",  
*eskutu* "izkutu",  
*espe* "espa, antzi, esperantza",  
*etoi* "uzu, gaizto",  
*eudi* "euri",  
*ezkur* "elika",  
 F  
*fan* "joan, iges egin",  
*fida* "fidatu"  
*fite* "arin, berehala",  
  
*gailendu* "nabarmendu, harrotu",  
*gale* "larri",  
*galen* "eskarmendu, galpen",  
*gana* "gaina, erpina, tontor",

*gano* "ganorazko",  
*gar* "antzi, sugar",  
*gertakari* "gertatua",  
*gibil* "lakio",  
*ginga* "ota, gaina",  
*gixa/giza* "gizaki",  
*gnosis* "jakin bide" (gerkeraz)  
*gorku* "mendiko babes leku",  
*gorni* "elgorri",  
*gorta* "usu, ukuilu"  
*gotor* "trinko, sendo",  
*grotta* "koba, leze" (italieraz),  
*guen* "goren",  
*gura izan* "kura izatetik datorren maitasun",  
*gurbil* "zentsudun",  
*guren* "goien, goitar, maiteen",  
*gurenda* "garaipena",  
*gurka* "gurtzen",  
*guru* "santu, ermitazain",  
 H  
*haidor* "galant, harro",  
*hareago* "gehiago oraindik",  
*haro* "aldi",  
*harribizi* "oihartzun",  
*harrigizon* "hilarri",  
*harritu* "harri bihurtu, miragarritu",  
*harritxin* "harkaitz zati, chinarro",  
*hatan ere* "alegia",  
*hiltamu* "azken ituna",  
*hizkune* "mezu laburgoa, hitz bata beste antzekoz azaltzen denekoa, a.b. *mentu/mendu*"  
*hutsal*, "huts, ezgauza",  
 I  
*ibi* "ubi, urbide, vado",  
*iburni* "ifernu",  
*iduli* "irauldu",  
*iduzki* "Uturen ondorengo, eguzki",  
*igan* "igon",  
*igan+te* "igan garaia",  
*igui* "iguin, narda"

*igurdi* "igurtzi",  
*imusino* "sinu"  
*in* "jainko ekintza, egin", *in-* adizke-  
 ren aurritzki bermatzilea, a.b. *inautsi*.  
*indazu* "egidazu mesede, emaidazu",  
*inkaz* "suspirando",  
*Inko* "Jainko",  
*Ino* "Jainko" (monosiladun deitura),  
*ino* "eresi, esan", a.b. *dino*, *dinozu*,  
*inoena* "esaten zutena",  
*inor* "norbait",  
*Inote* "Inoren garaia", *Inauteri*,  
*intzigiu* <*in+segitu* "emana, maite-  
 mindu",  
*inzini* "eroiu, giza intziri",  
*inutu* "elikatatu",  
*ipingi* "txatal",  
*irago* "igaro, pasatu",  
*iruzki* "Horusen ondorengo, eguzki",  
*Ishtar* "Astarte, ugaltasunaren feniziar  
 jainkosa",  
*iskamila* "arabotz, zarata",  
*isun* "zerga",  
*itaun* "galde",  
*itera* "zuzen, artez",  
*itun* "aholku",  
*itzala* "geriza",  
*itzuri* "igesi",  
*ixetu* "ixiki, izioki, biztu",  
*izadi* "natura, cosmo",  
*izurri* "peste",  
 J  
*jadanik* "dagoeneko",  
*jagon* "zaindu, gorde",  
*jainko-oilo* "mitxeleta",  
*jara* egin "jaramon",  
*jasarritu* "jarraipena egin",  
*jinok* "esaten dik",  
*joagu* "diagu",  
*joaile* "ibiltari",  
*joran* "antzi, lehi, apeta", hain *joran-*  
*du>añorar*",

*jori* "ugari",  
*jote* "joate, martxa, carnaval",  
*Jote* "Uturen garaia, Inote, Inoren  
 garaia den bezala",  
*juzo* "zuzenbide", *juzoen>zuzen*,  
 K  
*kaizu* "kutxa, cavidad",  
*kali* "galdu, hil (pistiez esana)",  
*kara* "berbaro",  
*kausitu* "aurkitu",  
*kin* <*guena* "punta, akulu guenaz  
 kinatzen da",  
*koixu* "harrapatu",  
*kokildu* "kikildu, etxe barrutu",  
*koronarri* "cronlech",  
*korta* "usu, ikuilu",  
*kortxel* "eliz ganga",  
*kortzelatu* "hesi barruan gorde",  
*korxila* "bildotxen esparrua",  
*kuixu* "txorimalo",  
*kurika* "korrika",  
*kusu* "gusu, lehengusu",  
*kuzu* "guzu, lehenguzu, ahaide",  
 L  
*laga* "utsi",  
*lakio* "sare, gibil",  
*lama* "distira, argitasun",  
*lamia* "lamina, sirena",  
*lamina* "asaben ustez erdi arrain,  
 erdi neska ziren mamuak", *lamos*  
 "arrain ireslea" (gerkeraz),  
*lamotu* "lainotu",  
*lamur* "tamal",  
*largatu* "askatu",  
*largu* "ugari",  
*larrasuge* "vívora",  
*lekuko* "testigo",  
*lobaso* "ilobaso",  
*Lotazil* "Abendu"  
 M  
*mailatu* "mailukatu, zehatu",  
*maina* "artezi, jas, ardura",

*mainatu* "arduraz zaindu",  
*maiz* "sarri, sarritan",  
*malatu* "zaharkitu, gaiso",  
*malmuzkatu* "ziria sartu",  
*malura* "usteldura",  
*mamuzko* "mamu ereduko",  
*mana* "gauza atsegina",  
*manatu* "agindu",  
*mando* "handi",  
*manu* "aginte",  
*mardo* "indartsu",  
*markiztu* "natutu, tatxadun",  
*marra* "muga",  
*martzuka* "erbal, markets",  
*memela* "ergel, lelo",  
*men* "halabeharrezko",  
*mendu* "eztitu, hezketa",  
*mentu* "adimen",  
*merkatu* "merke erosi"  
*mielga* "melka, eskata gabeko arrain  
 mota",  
*mito* "antxinako kondaira",  
*momia* "gorpuzki zurrundua",  
*momo* "lo",  
*morda* "mordo, mortxa",  
*moto* "mototx, moño",  
*mun* "une, muin",  
*mur* "orma, harrezi",  
 N  
*nasa* "ibai eta itxasoko urak nasta-  
 tzen diren une barea",  
*nasi* "ugari",  
*naza* "azkazia, kasta". Hortik >*nacer*,  
*neba* "anaie arrearentzat",  
*nonbait* "antza, ustez",  
 O  
*objetor* "aurkako",  
*ogen* "pekatu",  
*ohikuna* "erritoko ekintza",  
*olde* "gogo, asmo",  
*ondore* "askazi, kume",  
*ora* "txakur",

*oratu* "heldu, uxigin, oska",  
*ore* "laino, ospe",  
*orga* "gurdi",  
*orho* "orro, dei",  
*orix* "ordekako orein",  
*oroi* "oroitza",  
*orro* "aldarri, oihu",  
*ortu* "uritu, hormaz esitu",  
*ortusantu* "hilerri",  
*ortzi* "zeru, tromoi",  
*Ortzilare* "Ortziri eskeinia, Ostirale",  
*orube* "solar",  
*orzi* "sepultar, zeru",  
*orzondo* "egun senti",  
*osatu* <*otatu* "sendatu, saniatu",  
*osin* "itxaso, putsu. Hortik, océano"  
*osotu* "bete"  
*ostin* "anil, urdin",  
*ota* "goi, argoma",  
*otatu* "jagon, zaindu",  
*osti* "trumoi",  
*otin* "udigo, erra, amorru",  
*ots* "hau da, edo",  
*otxin* "osin, itsaso, putsu",  
*oxtian* "oraintsu",  
 P  
*padar* "padre, abade",  
*pairu* "geldiune",  
*pairu* "neke",  
*paraje* <*baratz* "toki hurbila",  
*pareide* >*pareja* "parekide"  
*pasatu* <*baxatu* >*pasar* "igaro",  
*patari* "pisti, pristi",  
*patin* "eskuz eginiko putsua",  
*patu* "jokera, age, aje, halabehar",  
*pausa* "atseden",  
*pausu* "igarobide",  
*pentzu* "pentzuda, ardura, laguntza",  
*peto* "bere beteko",  
*pisu* "aztailu, balantza",  
*pitzatu* "erdibitu"  
*potxu* "zulo, amildegi"



potzo "txakurtzar",  
 predika "sermoe, aholku",  
 pristi "pisti",  
 S  
 sagara "eskeintza erritua",  
 sansonarri "aerolito, jainko santzu-  
 dun harria",  
 santsu "zantzu, arrasto",  
 santzo "oihu",  
 sarrakio "bildur handi",  
 sermoe "mintzaldi, predika",  
 set egin "uts egin, pot egin",  
 seta "aiurri, jokera, buru gogorkeria",  
 setilun "aiurri mukerdun",  
 shabbatu "ase-bete (akadieraz)",  
 shedu "aingeru zaindari (sumerieraz)",  
 sozi "zuhur, begiratu",  
 soltü "aske",  
 sorkari "izaki",  
 sorosi "lagundu",  
 sosa "diru",  
 sube "sugoi", su+be/goi mitoetako  
 munstroa sugea aipatzen du.  
 subil "enbor",  
 suma "sena, usna",  
 sumari "sogi, azkar",  
 sumau "barrundu",

T  
 taju "taiu, jas",  
 tenore "aro, une, garai",  
 tentu "sentzu, tiento",  
 tolo "antxinako hobi",  
 tortu>sortu "erditu, umegin",  
 trego "tolau-harriak, dolmen", trega  
 (gailegeraz),  
 ttuttur "txuntxur, txutxurru",  
 tuku "zelo, bekaitz, ardura",  
 turrusta "urjauzi",  
 txeia "fia, emakumei deitzekoa",  
 txitean pitean "noizik behin",  
 txunditu "harritu",

U  
 ubertu "ugartu, erdoitu",  
 ud "ur",  
 ugarka "urbide",  
 ugaro "itxaskatu",  
 uin "olatu",  
 uko "ukapen",  
 une "muin",  
 urgazi "gozatu, bultzatu, lagundu",  
 Hortik urgeo<sup>0</sup>=urgir,  
 urdi "urduri, azoratu",  
 uren "nagusien, bikainen",  
 uritu "harresitu, cercar",  
 urt egin "urten",  
 urten "ausartu, gailendu",  
 usin "elur zurrumbilo",  
 usu "ikarati, basati",  
 uxu "izu",

X  
 xabe "jabe",  
 xabetu>jabetu, "kontuan hartu",  
 xana "jana",  
 xautu "garbitu",  
 xede "muga, marra",  
 Z  
 zador "bide sakon",  
 zapatu "zapaldu",  
 zaust "bat batean irentsi",  
 zelu "zeru, zelo",  
 Zeuz "Jupiter" gerkeraz,  
 zilegi "eskubidezko",  
 zizelu "txixilu, zizailu, exerleku",  
 zori "sorte, destino",  
 zubi "ostarku",  
 zurruburru "kaos",  
 zurrun "seco, endurecido",  
 zurrut egin "edan",  
 zurtu "zur bihurtu, harrigarritu",  
 zuzendu "lortu",  
 zuzi "tea",

**ELBIKER** AUTOREAREN BESTE IKERKETAK

Vascuence y mitoanálisis, 48290-Amorebieta, Orue (Vizcaya), 2000., Tel: 94 673 04 86.  
 edo/o felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net  
 Euskararen ereduak,  
 Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan,  
 Euskal mito-erritoak eta euskara,  
 Apellidos y nobleza,  
 La onomástica, oído de la prehistoria (o el vascoeuropeísmo)  
 La analogía, arte del lenguaje, según el vascuence,  
 Antiguo Testamento del vascuence,

## ARGITARATZEKO

Zuzentza, eskubideak euskararen oroitzan  
 Origen y desarrollo del lenguaje, según el vascuence  
 Euskara amagazko topaketa

Bizi irrikaz  
gizona Jainko,  
ama arduraz  
Jainkoa gizon  
ziran itundu.

Itunbenaren  
egia mitu,  
eusker a bera  
benazko ipoin  
ziur bai-dugu.

ISBN 84-933155-4-0



9 788493 315542